

IRTEN
HIZKUNTZAREN
ARMAIRUTIK

EUSKARAZ BIZITZEKO PORTAERA-GIDA

emun^o
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA

Ferran Suay eta Gemma Sanginésen Sortir de
l'armari lingüístic liburuaren egokitzapena

Jatorrizko izenburua: *Sortir de l'armari lingüístic*

- © Egileak: Ferran Suay eta Gemma Sanginés
- © Itzulpena: Imanol Larrea, Emun
- © Egokitzapena: Juanjo Ruiz, Emun
- © Argitaratzailea: Emun Koop. E

ISBN: 978-84-608-3967-5
L.G. SS 1412-2015

Emun Koop.E
Urriburu kalea, 9
20500 Arrasate
Tel. 943 711 847
emun@emun.eus
www.emun.eus

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzeko ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Kode Penaleko 270 eta hurrengo artikulua). CEDRO erakundeak (www.cedro.org) babesten ditu aipatu eskubide horiek.

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak, S. L. Martin Ugalde Kultur Parkea. Andoain (Gipuzkoa)

Hitzaurrea	7
Sarrera	13
1. Psikologiako oinarri batzuk	23
Lehen oinarria: zerk estresatzen gaitu?	25
Bigarren oinarria: zergatik da estresagarria euskaraz egitea?	26
Hirugarren oinarria: zer egin estresarekin	28
Laugarren oinarria: ezinbesteko hainbat xehetasun	32
Bosgarren oinarria: laburpena	33
2. Bittor, hiltun herabea	35
Bittor dibanera	42
Bittorrentzako autolaguntza fitxa	46
Bittorrentzako errezeta	49
3. Xabier, erretako hiltuna	53
Xabier dibanera	61
Xabierrentzako autolaguntza fitxa	66
Xabierrentzako errezeta	70
4. Isabel, euskaldun berria	71
Isabel dibanera	78
Isabelentzako autolaguntza fitxa	80
Isabelentzako errezeta	84
5. Paula, katalana	85
Paula dibanera	94
Paula: autolaguntza fitxa	98
Paularentzako errezeta	101

6. Nerea, hiltun militantea	103
Nerea dibanera	113
Nerearentzako autolaguntza fitxa	117
Laburbilduz: Nerearentzako errezeta	120
7. Khadim, hiltun afrikarra	121
Khadim dibanera	131
Khadimentzako autolaguntza fitxa	135
Laburbilduz: Khadimentzako errezeta	138
8. Iparraldeko Itxasne	141
Itxasne dibanera	149
Itxasnerentzako autolaguntza fitxa	151
9. Hizkuntza asertibitatea hobetzeko gida laburra	153
Eskertza	163

Hitzaurrea

“Sortir de l’armari lingüístic” liburua, katalanez idatzia, Ferran Suayk eta Gemma Sanginesek TELP (Taller d’Espai Llingüístic Personal) tailerretan jasotako esperientzien emaitza da, eta 2010ean argitaratu zuten. Hor jasotako asko euskaldunon bizipenen antzekoak zirela ikusita, euskaraz bizi nahi dugunontzat tresna baliagarria zela baloratu, eta Emun Euskal Herrira egokitzen hasi zen.

1997an sortu ginen, gizarteak gaur egun dituen hainbat beharri erantzuteko lan egiten duen aholkularitza gara eta, euskara eta euskal kultura ardatz dugula, herritarren garapenaren alde lan egiteko misioa dugu.

2007. urtean jarri ginen harremanetan Ferranekin eta Gemmarekin, eta urte berean hartu genuen TELP tailerrak Euskal Herrian zabaltzeko ardura; gaur egun ere horretan ari gara.

Harro esan dezakegu urteotan TELP tailerretatik milaka euskal hiztun pasatu direla. Tailerretan parte hartu dutenek gurekin partekatu dituzte euskararen erabileraren inguruan izan dituzten bizipenak eta bizipozak, eta TELP tailerrak dinamizatu ditugun lankideontzako ere esperientzia emankorra izan da.

Hasieran, motibazioan eragiteko, zeharkako bidea lantzen genuen nagusiki, kanpainak eginez eta langileen artean euskararen aldeko atxikimendua egitasmo ludikoekin sustatuz. Zeharkako bideak elikatzen jarraitu, eta zuzeneko motibaziorako bideari ekin genion ondoren, tailerrak antolatuz eta hausnarketak sustatuz. Gakoa zirela konturatuta, arreta pertsonengan jarri genuen, euskararen eta hizkuntzen munduari buruz modu antolatuan hitz egiten hasi ginen eta interesak partekatzen, hizkuntzarekiko atxikimendua lantzen.

Bide horretan, “Irten hizkuntzaren armairutik” liburuko protagonistei gertatzen zaien bezala, ohiturei buruz hitz egiten hasi ginen, barneratuta ditugun arau sozialei buruz, eta erdaretatik euskararako jauzia emateari buruz; zein aldaketa egin, zein deserosotasun sumatzen ditugun aldaketa horretan, zein baliabiderekin gaingitu ditzakegun..., finean, euskaraz bizitzeko jauzia emateko ahalduntzen hasi ginen.

Liburuaren berri izan genuenetik, liburua euskarara itzultzeaz gain, “Sortir de l’armari lingüístic”-en agertzen ziren protagonisten euskal ordainak bilatu nahi izan genituen. Euskal Herrian gerta daitezkeen egoera anitzetan murgildu, eta egoera horien aurrean euskararen erabilera indartuko duen portaera asertiboak proposatu ditugu. Urte batzuen ondoren, liburua esku artean dugu. Taliana, Bernat, Miren, Tomeu, Neus eta Khadim Massalfassar, Mallorca, Albocásser, Valentzia, Girona edo Bartzelonako kaleetan ibili dira. “Irten hizkuntzaren armairutik” liburuan, Bittor, Xabier, Isabel, Paula, Kadhim, Nerea eta Itxasne Euskal Herriko kaleetara atera ditugu eta Zubieta, Donostia, Lasarte, Orio, Durango, Goizueta, Hernani, Ondarroa edo Bilbon dabilta. Eta, noski, euskaraz mintzatzen dira.

Liburu hau “Sortir de l’armari lingüístic” liburuaren egokitzapen bat dela esan dugu, baina badu jatorrizko

bertsioan agertzen ez den atal bat: euskarak ofizialtasunik ez duen herrian bizi den pertsonaren bizipena, euskaldunok dugun errealitateak gure hizkuntz portaeran duen eragina islatzeko.

Bagenekien euskarari eroso eustea euskaldunon ahalduntzearen baitakoa dela; bagenekien, era berean, inguruneak eta testuinguruak ere baldintzatu egiten duela gure portaera. Ikuspegi hori geure egin, eta, egun, eragina duten beste faktore batzuk ere lantzen ari gara. Urtez urte, gure ezagutza handitu den heinean, lan egiteko ikuspegi berriak eta egiteko modu berriak ditugu. Pertsona alde batera utzi gabe, eta bere hizkuntz hautuan eragiten duten aldagaiak kontuan hartuz, talderako jauzia ere eman dugu, eta gaur egun hizkuntz portaeraren aldaketa ikuspegi orokorrago batetik lantzen dugu. Pertsonekin lan egiten dugu, eta pertsonak taldean eta modu sistemikoan ulertzeko lanean ari gara.

Lagungarri izango zaizuelakoan, euskal hiztunei eskaini nahi dizuegu liburua, euskaraz bizi nahi duzuen euskal hiztunei, liburuak euskaraz bizi nahi horretan, zailtasunak gainditzen lagunduko dizuelakoan. Gurea egiten dugun *euskaraz bizi nahi dut* leloa, *euskaraz eroso bizi nahi dut* bihur dadin.

Sarrera

Zazpiak jota dira eta urriko argi epela mendebalderantz ihesi doa. Udazkeneko eguraldiaren gorabeheren ondorioz, Zubietan mahuka motzeko kamisetak, artilezko jertseak eta jakak nahasian ageri dira. Jolasean ari diren umeen gurasoak dauden banku bakanen inguruan elkartu dira. Seme-alaba txikienak dituztenak erne daude umeei begirik kendu gabe, eta ez diote arreta handirik jartzen solasari. Batez ere ume handienak dituztenak ari dira berriketan.

—Ni oso hozbera naiz. Uda-udan ere jertseren bat eramaten dut aldean... badaezpada ere.

—Nire gizona, berriz, alderantziz: beti beroak! Neska, ezin ezer burutu! Aire girotua ipini nahian edo arropak erantzi nahian pasatzen du eguna.

—Hori-hori, erantzi ditzala arropak... geuk ere bista gozatu egingo dugu horrela, emakumea!

Taldea txikia da. Bospasei lagun batari eta besteari buruz berriketan. Umeak, bitartean, jolasean ari dira eta noizbehinka arreta pitin bat eskatzen diete. Giroa lasaia da eta ia egunero denetariko solasak entzun daitezke. Dena den, gai nagusiak izan ohi dira umeen heziketa, oro har, edo bestela herriko eskolako kontuak. Ekonomia, txirringularitza, politika edo psikologia ere izaten dira solasgai, bertan direnen lanbideen eta zaletasunen arabera. Gaur, zehazki, lehen mailako irakasleak hartu duen amatasun bajaranantz joan da

berriketaldia. Taldeko gehienek gela horretan dituzte seme-alabak eta nabarmena da gaiaren interesa.

—Tira, nik ulertzen dut, haurdun baldin badago...

—Noski, baina berak badaki oso ikasturte garrantzitsua dela, aurren ikasten baitute benetan irakurtzen eta idazten, eta baja hartzekotan, hartzea zeukan hasieratik, ez?

—Jakina, izan ere egin duen moduan egin duelako ikasturte erdian irakaslez aldatu beharko dugu orain eta horrek kalte besterik ez die egingo haurrei!

Solasaldia berotzen zihoan bitartean Encarna iritsi da. Emakume gaztea da, itxura atseginekoa eta izaera gozokoa. Berak ere alaba dauka sei urtekoen gelan. Isilik egon da, adi, parte hartu aurretik:

—Bueno, buenas tardes primero, ¿eh?

—Buenas tardes —erantzun diote ia aho batez, eta norbaitek esku artean duten gaiari buruzko iritzia eskatu dio.

—Tú, ¿cómo lo ves, Encarna?

Encarna ere funtzionario lanean ari da eta irakaslearekiko enpatiko agertu da:

—Pues, yo creo que cualquiera, si estuviéramos en su caso, haríamos lo mismo. ¿O no?

Solasak gaia utzi gabe jarraitu du, solaskide bereberekin. Hala eta guztiz ere, aldaketa nabarmena egon da taldean. Lehen aktiboenetariakoak ziren bi lagunek iritzia emateari utzi diote. Batak erantzun laburrak eta adostasun keinuak egiten ditu; besteak, berriz, gaiari buruzko interesa galdu duela dirudi. Beste guztiek berbetan jarraitu dute bizi-bizi, lehen egiten ari ziren bezalaxe, baina desberdintasun batekin: Encarna iritsi arte euskaraz zen oso-osorik elkarrizketa;

orain, berriz, ia guztiek hizkuntzaz aldatu dute une batean edo bestean. Kanpotik ikusita, bitxia da gertakizuna. Batzuek beti gaztelaniaz egiten dute, baina beste batzuek solaskide bati edo besteari begiratzen diotenean hizkuntza bat edo bestea hitz egiten dute, eta honelako esaldiak entzuten dira:

—Pues claro, eso digo yo —Encarnari begira—, ¿si como persona tiene derecho!, pero es que —beste bati begira— umeeek ere badituzte eskubideak, ezta? Izan ere, hori ez da beste edozein lan bezalakoa. —Berriro ere Encarnari begira— Si yo no digo que no coja la baja...

Geroxeago, elkarrizketarekiko interesa galdu dutela ziruditenak taldetik banandu egin dira eta euren artean hasi dira hitz egiten. Taldean ziren bitartean biek ere antzeko portaera izan dute. Hasieran lurrera edo solaskideen zirkulutik kanpoan dagoen punturen batera begiratu dute, gorputza pixka bat biratu dute eta kanporantz begira jarri dira. Bietako bat, taldean hizkuntza aldatu ez duen bakarra, isilik geratu da. Hori guztia bi pertsonak deseroso sentitzearen adierazgarri garbia izango litzateke ez-hitzezko komunikazioaren aditu batentzat.

Azkenean, talde handian gaiak aldatzen joan dira eta elkarrizketak batez ere gaztelaniaz jarraitu du, harik eta Encarnak alde egin duen arte. Orduan, berriro ere euskara hutsean aritu dira guztiak, aurretik ari ziren bezalaxe.

Agian, komeni da argitzea Encarnak ez duela une batean ere euskaraz ulertzen ez duenik erakutsi, eta ez dio inori eskatu hizkuntzaz aldatzeko inondik inora, ez gaur, ez beste inoiz, nahiz eta taldekideekin sarritan egoten den. Gainera, Encarna Eusko Jaurlaritzako HAEE-IVAP erakundeak egiten duen 2. Hizkuntza Eskakizuneko euskarazko azterketa ofiziala gainditzeko ikasten ari da, eta taldekide gehienak jakinean daude.

Gertakizun horren bilakaerak nahikoa ondo isla ditzake gutariko askok egoera oso desberdinetan bizi izan ditugun esperientziak; batez ere 'ingurune ez-formal' gisa har ditzakegun horietan. Beste ingurune formalizatuago batzuetan, esate baterako unibertsitateko eskoletan, hitzaldietan, lan bileretan edo hedabideetako solasaldietan, hizkuntz kontuak (hau da, zein hizkuntzatan egingo dugun) aurretik zehaztu daitezke. Hala ere, egoera informal askotan jendeak elkar aurkitzen du eta hizkuntz zehaztapen espliziturik izan gabe hitz egiten du. Eta horrela, bakoitzak une horretan nahi duen moduan hitz egiten du, edo — zehatzagoak izaten hasteko—halako egoeretan egin behar dela ikasi duen bezalaxe hitz egiten du bakoitzak.

Horrela, kanpotik ikusita, aitortu behar da gure hizkuntzarekin dugun jokabidea oso bitxia izan daitekeela. Alde batetik, jende askok euskarari erabateko maitasuna diola esaten du, eta, egia esanda, asko dira hurrengo belaunaldiari transmititu dioten familiak hori oso ondo ikusia ez zegoenean ere. Asko dira hizkuntzaren eta erabileraren aldeko herri elkarteek antolatutako jai eta ekimenetan parte hartu dutenak.

Hala eta guztiz ere, gehienok oso erraz jotzen dugu gaztelaniara horretara behartuko gaituen indar behartzaile handirik egon gabe ere.

Batzuek gaztelaniaz egiten dute zuzenean euskaraz hitz egiteko itxurarik hartzen ez dioten edozein aurkitzen dutenean. Agian azalaren edo ilearen kolorea, begien morfologia, edo beste ezaugarri anatomikoren bat hartzen dute oinarri. Kontua da maiz euskaraz egin ohi dutenek ere beste norbait aurkitzen dutenean, nahiz eta herriko plazan izan, «Hola» garbia botatzen dutela kasu askotan.

Beste batzuek gaztelaniaz egiten dute solaskideak esan zaiona ez duela ulertu ikusi orduko:

—Egun on, badaukazue oposizioetarako gaitagirik?

—E?

—Que si tenéis temarios de oposiciones.

Beste batzuek, berriz, euskara utzi egiten dute solaskideak barkamena eskatzen duenean ez duelako euskaraz hitz egiten:

—Egun on, kamera digital bat nahi nuke.

—Disculpe, es que yo no hablo euskera.

—Ah! Bueno... quería una cámara digital.

Eta ia-ia guztiok egiten dugu hori ez dutela ulertzen esaten badigute edo gatzelaniaz hitz egiteko eskatzen badigute:

—¿Me lo puede decir en castellano?

—Sí, claro... ¡faltaría más!

Jende gutxik eusten dio hizkuntzari egoera horietan guztietan. Gainera, egiten dutenen artean ere askok etengabeko borroka gisa bizi dute, eguneroko liskar gisa. Horrek nekatu eta haserrarazi egiten ditu eta, sarritan, aldarte ona galarazten die eta nahieza eragiten die.

Aukera hori, haserretu eta desberdinen arteko borroka gisa hartzearena, alegia, David eta Goliaten aurkako borroka klasikoaren bertsio moderno bat balitz bezala hartzearena da aukeretako bat, zalantza barik. Eta guztiz bidezkoa da, baina oso nekagarria da eta kostu pertsonal handi samarra izan ohi du.

Bada beste aukera bat ere. Hu da, jokatzeko bestelako modu batzuk ikastea, hobeto sentitu ahal izateko kultura normalizatuetan (anormalizatu gabekoetan esan beharko genuke, agian) guztiz normala den zerbait egiten dugunean —eta normala delako, oharkabean gertatzen dena—, alegia, norberaren hizkuntzan hitz egitea oro har.

Dena den, aurkitzen dugun errealitatea da euskara lehen hizkuntzatzat duen askok ikasi duela —hainbat mekanismoren bitartez— euskara albo batera uztea komeni dela solaskideetakoren batek ez duenean euskaraz egiten. Kontuan hartuta euskara hizkuntza ofiziala dela hitz egiten den lurralde askotan (nahiz eta ez den hala gertatzen Nafarroako eremu ez-euskaldunean eta eremu mistoan eta frantziar estatua- ren agintaritzapean dauden Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako herrialdeetan), jokabide hori arraro edo ulergaitz samarra izango litzateke kanpoko begirale batentzat.

Oro har, ofiziala izan eta gainera bizi diren lurraldeko berezko hizkuntza den hizkuntzetako hiztunek ez dute albo batera uzten euren hizkuntza beste hiztun batzuen aurrean. Hala eta guztiz ere, euskarak bizirik irauteko izan dituen baldintzak kontuan hartuz, eta —batez ere— euskaldunek hizkuntza erabiltzeko baldintzak nola ikasten dituzten aintzat hartuta, ondorio bakarra atera dezakegu, hain zuzen ere, zeharo ulergarria dela egiten dutena egitea. Izan ere, Hizkuntza Nagusiranzko Konbergentzia Araua aplikatzen dute, hau da, euren hizkuntza albo batera laga hizkuntza nagusiko hiztunekin harremanak dituztenean.

Hori egiten dute halaxe egiten ikasi dutelako, egunero ikasten jarraitzen dutelako eta euren portaerarako eredu direnek edo izan daitezkeenek ere (agintariek, kirolariek, artistek eta pertsona publikoek oro har) beste horrenbeste egiten dutela ikusten dutelako.

Liburu honetan horiek guztiak aztertu nahi ditugu: geure hizkuntzarekiko dugun jokabidea, hain zuzen ere, nola eta noiz uzten dugun albo batera, ezkututzen dugun edo eusten diogun. Arreta pixka bat jarritz gero edozeinek tabernan, kalean edo garraio publikoan ikus dezakeen jokabideaz hitz egingo dugu. Eta horrela egingo dugu, izan ere, badakigu agintariek lurralde bakoitzean aurrera daramaten hizkuntz

politika dena delakoa izanda ere, azken iragazki bat dagoela hizkuntza baten benetako erabilera maila erabakitzen duena. Eta iragazki hori hiztuna da. Iragazki hori pertsonak dira, eta, legeria eta araudi baten barruan egon arren, beti ez dute goitik behera legeek jasotzen dutena egiten, hainbat bulkada, ohitura, desio eta arrazoi direla medio mugitzen baitira. Sarri, guztiz subjektiboak eta, horrenbestez, eztabai-daezinak diren arrazoiengatik mugitzen dira.

Esan dugunez, euskarak ofizialtasuna du hitz egiten den lurraldearen zati batean, duela hogeita hamar urte baino gehiago hasita. Hala eta guztiz ere, leku askotan erabilera nahiko murrizta da eta ofizialtasunak ez du erabilera maila handian areagotzea lortu. Jendeak ez du indarrean dagoen legeria kontsultatzen behin eta berriz errepikatzearen poderioz hain ohikoa den zerbait egiteko, adibidez, kalean doan norbaiti galdetzeko, telefonoz informazioa eskatzeko edo herriko udalari gutun bat idazteko. Besterik gabe, egiten ikasi duten moduan egiten dute; egin behar dela uste duten bezalaxe.

Hori dela eta, hain ohikoak diren gauza horietako edozein egiten dugunean nola sentitzen garen aztertuko dugu (gauza horiek, noski, oharkabean egiten dituzte hizkuntza normalizatuetakoa hiztunek); ea deseroso, lasai, beldurrez edo besterik gabe urduri sentitzen garen aztertuko dugu. Izan ere, baldin badakigu eta ulertzen badugu zer egiten dugun eta zergatik egiten dugun, gure portaera zer arrazoik azaltzen duten eta zein mekanismok jartzen duten abian, orduan hurbilxeago izango dugu aldatzeko aukera erreala, orain egiten dugunaren orde z gogobetetze pertsonal gehixeago eman ahal izango digun beste portaera bat hartzeko.

Ez ditugu aztertuko hizkuntza portaera horien zergatia azaltzen duten arrazoi historiko eta politikoak. Eta ez dugu egingo ez garrantzitsua ez zaigulako iruditzen edo ez zaigu-

lako interesatzen. Ez dugu egingo, besterik gabe, badirelako langintza horretarako gu baino askoz hobeto prestatuak.

Gu psikologoak garen heinean egin nahi dugu ekarpena. Alderdi horretatik gure eginkizuna da hitzunen portaera aztertzea, pertsona indibidual gisa hartuta. Eta horregatik kontuan hartu behar ditugu jendeak nork bere buruaren eta portaeren inguruan duen ikuspegi subjektiboa, nola adierazten duten hori gutzia edo zer esaten duten, baita nola sentitzen diren ere.

Hainbat gako eta baliabide eskura jartzeko asmoarekin egingo dugu, euren hizkuntza portaerarekin gustura ez dauden guztiek aldatu ahal izan dezaten, nahi badute. Agian, komeni da gogoraraztea hiztunak erabakitzen duela finean zein hizkuntza erabiliko duen egoera bakoitzean, eta — Mahatma Gandhik zioen bezala— «Egiten duzuna egiten duzula txikikeria izango da, baina oso-oso garrantzitsua da zeuk egitea».

Ondoren datozen ataletan hainbat kasu zehatz aztertuko ditugu, benetako pertsonen ohiko portaerei dagozkienak. Izenak eta pertsonak identifikatzeko erabilitako hainbat datu aldatu egin ditugu¹, nahita, baina esaten direnak eta portaeren deskribapenak egoera errealetan oinarritutakoak dira. Kasuok geure errealitatera hurbiltzen lagunduko digute, hau da, gutariko bakoitzak hizkuntzarekin zer egiten dugun ulertzen lagunduko digute eta, are garrantzitsuagoa, zer egin nahi dugun jakiten lagunduko digute.

Hasteko, dena den, psikologiako gutxieneko oinarri batzuk azaltzeko atal labur bat prestatu dugu, ezinbestekoak iruditzen baitzaizkigu.

1 Euskarazko argitalpenerako pertsonen datu eta egoerak Euskal Herriko testuingurura egokitu ditugu.

1 Psikologiako oinarri batzuk

Lehen oinarria: zerk estresatzen gaitu?

Estimulu eta egoera askok eragin diezagukete estres erantzun bat. Batzuetan gertakizun zehatzak izan ohi dira, oinarri fisiko argia dutenak, esate baterako, zarata handiak, temperatura aldaketak edo ahalegin fisiko handia. Beste batzuetan, berriz, izaera psikologikoagoa izan ohi dute, adibidez, hitzordu batera edo lan elkarrizketa batera joan behar izatea, edo jendaurrean hitz egin beharra. Gauza askok eta oso desberdinek estresatzen bagaituzte ere, guztiek hiru ezaugarri hauek dituzte:

- a) Ziurgabetasuna: egoeraren bukaera nolakoa izango den asmatzea ezinezkoa da. Ez dakigu onik aterako garen ala ez; zalantza dugu ondo egiteko gauza izango garen ala ez eta abar.
- b) Kontrol erlatiboa: egoerak izango duen bilakaera ezin dugula osorik kontrolatu atzematen dugu.
- c) Mehatxua: egoera arriskutsua izan daitekeela atzematen dugu. Biziraupena edo osotasun fisikoa egon litezke arriskuan, edo, besterik gabe, gure ongizatea edo autoestimua.

Beraz, estresatzen gaituzten gauza guztiek hiru ezaugarri horiek dituzte: zalantzasakoak, osorik kontrolaezinak eta mehatxuzkoak iruditzen zaizkigula.

Bigarren oinarria: zergatik da estresagarria euskaraz egitea?

Eremu urriko hizkuntza bateko hiztunentzat bereziki estresagarriak dira egoera komunikatiboak. Agian harrigarria irudituko zaizue hori. Dena den, oso ulerterraza da. Azter dezagun, adibidez, ezezagun bati hitz egitea.

Hizkuntza normalizatu bateko hiztuna banaiz, adibidez gaztelaniaduna, interakzioa hasi aurretik badakizkit hauek guztiak:

- a) Seguruena, besteak ulertu egingo nau.
- b) Ez banau ulertzen, solaskideak eskatuko du barkamena eta ahalegina egingo du elkar ulertzeko.
- c) Finean, elkar ulertzerik ez badugu izan, inork, ezta solaskideak ere, ez dit nire portaera aurpegiratuko, eta ez dit esango bidegabea eta desegokia denik.

Eremu urriko hizkuntza bateko hiztuna banaiz, berriz, adibidez euskalduna, ezezagun batekin hitz egin behar dudanean hauek guztiak dakizkit:

- a) Badago aukera solaskideak adieraz dezan ez dakiela euskaraz hitz egiten.
- b) Hala bada, seguruena ez du barkamenik eskatuko eta nire aldetik ahaleginen bat espero izango du (funtsean, hizkuntza aldatzea), komunikatzeko zailtasuna konpondu ahal izateko.
- c) Azkenean ez badugu lortzen elkar ulertzerik, seguruenez, norbaitek, agian solaskideak berak, kritikatu egingo nau hizkuntza ez aldatzeagatik.

Deskribatu dugun egoerak, alegia, eremu urriko hizkuntzako hiztunak bizi duen horrek, estresagarria izateko ezinbesteko hiru elementuak ditu:

- a) Ziurgabetasun pertzepzioa handia da, oso litekeena baita solaskideak ez jakitea euskaraz. Horren ondorioz, ezezagun bati euskaraz egitea apustu arriskutsu baten antzeko zerbait bihurtzen da, eta aukera handia dago egoera atsekabegarria izateko guretzat.
- b) Hain zuzen ere, besteak adierazten duenez ez dela gauza euskaraz ulertzeko, soilik hitz egiten ari den hizkuntzan egin dezake —ustez, behintzat—, eta interakzioaren pisu guztia geure ekimenaren esku lagatzen du. Horregatik, ez dugu egoeraren kontrol osoa: geuk zein hizkuntza aukeratzen dugun kontrola dezakegu, baina ez solaskideak zein aukeratzen duen.
- c) Gatazka gertatuz gero, egoera ahulena geurea da, eta hortik sortzen da mehatxu pertzepzioa. Ongi daki hori hizkuntza osagai garrantzitsua izan duen gatazkaren bat konpontzeko poliziarengana joan behar izan duen edonork.

Hain zuzen ere, hizkuntza normalizatu bateko hiztunari indarra eta egonkortasuna ematen dio hizkuntza gutxiago-tua ez jakiteak (benetan ez jakiteak edo ezjakinaren itxurak egiteak). Paradoxikoki —printzipioz ezjakintasuna ahultasuna baita—, ezjakintasun horrek murriztu egiten dio ziurgabetasun pertzepzioa eta egoeraren gaineko kontrol maila handiagoa ematen dio. Izan ere, euskaraz diharduenak hizkuntza alda dezake, eta besteak, berriz —ustez, behintzat— ezin du. Beste alde batetik, hizkuntza normalizatuaren nagusitasunezko egoerak murriztu egiten du hizkuntza horretako hiztunen mehatxu pertzepzioa. Finean, interakzioa zeharo gatazkatsua gertatzen bada, legea beti hizkuntza normalizatuaren hiztunaren alde egongo da, beti gauzatu ahal izango baitu gaztelaniaz edo frantsesez artatua izateko eskubidea, kasuan kasu.

Hirugarren oinarria: zer egin estresarekin

Jendeak modu desberdinak ditu estresari aurre egiteko. Seguruenez, kopuru izugarria egongo da, xehetasunei eta zehaztasunei erreparatzen badiegu. Dena den, gai hau ikertzen duten zientzialariek gutxi batzuk besterik ez dituzte identifikatzen, kontuan hartuta zer-nolako ondorioak dituzten egoeran (konponbidea aurkitzeko aukera) eta pairatzen duen pertsonarengan (gogobetetzea, ongizatea, osasuna).

Hasteko, egoera estresagarriei aurre egiteko estrategietan mota bi bereiz ditzakegu:

- a) Arazoan oinarritutako estrategiak, egoerari aurre egin eta irtenbidea aurkitzera bideratuak.
- b) Emozioan oinarritutako estrategiak, egoerari lotutako erantzun emozionalak eta nahieza kontrolatzera bideratuak.

Arazoetara bideratzeak esan nahi du, batez ere, aurkezten zaigun zailtasunari ematen zaiola arreta, irtenbide egokienak aurkitzeko, paperean ebatzi beharreko matematika ariketa bat balitz bezala. Oro har, estrategia horiek aukeratzen dira egoeraren kontrol maila ustez handia denean, baita egoeratik emozionalki distantzia hartzea erraza denean ere.

Aitzitik, emozioetara bideratzen garenean, helburu nagusia da egoera kognitiboki birdefinitzea, alegia, errealitatea interpretatzea sortzen digun emozioa atseginagoa izan dakigun. Sarritan mota honetako estrategia hartzen dugu arazotik urruntzea zaila den kasuetan.

Ikus dezagun adibide bat bi estrategia moten adierazgarri.

Jonek hitzordua du Mirenekin. Ordua iritsi da eta neska ez da agertu. Ordu laurdenera, mutila hasi da ulertzen agian Miren ez dela inoiz agertuko.

Arazoan oinarritutako estrategia batek ekarriko luke kalkulatzea zer den hobe, lehenik, Miren berandu datorrelako edo ez delako etorriko hutsik geratu den denbora aprobeztatzeko eta, bigarrenik, arrazoiak argitzeko eta hemendik aurrera nola komeni zaion jokatzeko jakiteko.

Emozioetan oinarritutako estrategia jarraituz gero, berriz, bere buruari eman diezaiokeen azalpenik onena zein den aukeratzeari ekingo lioke Jon, ez dadin oso gaizki sentitu pairatu duen arreta eza pairatu eta gero. Horrela, agian nahiago izango du pentsatzea zerbait larria gertatu zaiola, edo gaizki-ulerturen bat egon dela hitzorduaren lekuaren edo orduaren inguruan.

Bigarrenik, aurre-egite estiloak erantzun kognitibo eta konduktualak dira, estresa kudeatzeko asmoz garatuak. Egoeraren balorazio subjektiboa egin eta gero, hau da, geure buruari egoera azaldu diogunean gertatzen den prozesuarekin dute zerikusia. Oro har, *personalitatea* deritzogun horrekin lotzen ditugu eta egoera estresagarrien aurrean modu batera edo bestera jokatzeko dugun joera adierazten dute. Hiru mota daude.

Lehena aurre-egite estilo **pasiboa** izenda dezakegu. Egoerei aurre egiteko gertaerak ukatzea eta sentimenduak erreprimitzea hartzen du oinarri gisa. Emozionalki depresioari lotuta dago, kontuan hartuta depresio hitza ez dela beti kategoria klinikotzat hartu behar. Hemen erabiltzen dugun moduan portaera estilo inhibitua da eta nahieza eragiten duten gauzak aldatzera gutxi bideratzen da. Ukazioaren eta errepresioaren ondorioz ez da onartzen

gertatzen ari dena eta ez dira adierazten sortzen zaizkigun emozioak.

Bigarrenari aurre-egite estilo **erreaktiboa** esaten diogu. Estilo horretan nahiago izaten da erantzuna eman eta borroka egitea. Horrenbestez, badago nolabaiteko joera haserrea edo amorrua izan dadin emozio nagusia.

Hirugarren aurre-egite estiloa **proaktiboa** da. Aurrea hartzean, prestatzean eta ekimena izatean oinarritzen da. Estilo hau hartzen dutenak ez dira mugatzen gauzak gerta daitezen itxarotera; aldiz, paper aktiboa hartzen dute gertakizunen bilakaeran eragina izateko.

Azaldu ditugun bi orientabideak eta hiru aurre-egite estiloak konbinatzen baditugu, honelako taula bat lortuko dugu.

	Estilo pasiboa	Estilo erreaktiboa	Estilo proaktiboa
Arazoarekiko orientazioa	> Ukatu	> Erantzun	> Prestatu
	> Ezkutatu	> Borrokatu	> Planifikatu
Emozioarekiko orientazioa	> Deprimitu	> Haserrea adierazi	> Eraginkor sentitu
	> Sentimenduen adierazpena erreprimitu	> Deskargatu	> Gogobetetzea lortu eta adierazi

Hona hemen Jon eta Mirenen adibidea labur-labur aurreko taularen arabera.

	Estilo pasiboa	Estilo erreaktiboa	Estilo proaktiboa
Arazoarekiko orientazioa	<ul style="list-style-type: none"> > Ez dit huts egin > Ez dadila inor konturatu zain nagoela 	<ul style="list-style-type: none"> > Atzerapenaren arrazoia jakin > Egin duena aurpegiratu. Eztabaidatu. 	<ul style="list-style-type: none"> > Itxaronaldia aprobetxatu (adib. irakurtzen) > Neskarekin gaia lantzeko estrategia prestatu
Emozioarekiko orientazioa	<ul style="list-style-type: none"> > Erru sentimendua (ez naiz aski interesgarria berarentzat) > Haserrek ez erakutsi 	<ul style="list-style-type: none"> > Haserretu > Demanda egin 	<ul style="list-style-type: none"> > Ondo sentitu hitzordura joateagatik > Onuraren bat atera joan-etorritik eta egindako denboratik

Laugarren oinarria: ezinbesteko hainbat xehetasun

Argi utzi behar da bi orientazioetako bat ere —arazoarekikoa edo emozioarekikoa— ez dela bestea baino hobea edo txarragoa. Egoeraren eskakizunen araberako (egoera batzuek orientazio jakin bat eskatzen dute indar handiz) eta norberak nahiago duenaren araberako (pertsonalitate joerak edo ezaugarriak, horrela esan nahi badugu) kontua da. Gainera, horiek guztiak ez dira nahitaez aldaezinak pertsonengan. Pertsona bera batzuetan arazoetara bideratuko da, eta beste batzuetan emozioetara, eta bi orientazioak konbinatu ere egin daitezke, nahiz eta gehienetan bakarria izaten den nagusi.

Egoera batzuk orientazio bat erabilita konpontzen dira hobeto, eta beste batzuetarako, berriz, hobe da bestea. Zehazki, gertakizunaren bilakaeran kontrol handi samarra izan dezakegula iruditzen zaigunetan, egokiagoa izan liteke arazora orientatzea. Aldiz, batere kontrolik ezin badugu izan (edo oso kontrol txikia izan badezakegu), agian zentzuzkoagoa da geure emozioetan zentratzea, horiek geure esku baitaude —osorik ez bada ere, bai zati handiago batean—.

Halaber, ez litzateke zuzena izango esatea jendea pasiboen, errektiboen edo proaktiboen taldeetan sailka daitekeela. Hobe bai, hain erraza balitz! Edozeinek egoera batzuetan har ditzakeen portaera motak dira, nahiz eta beste egoera batzuetan bestelako portaerak hartu. Are gehiago, oso litekeena da norbaitek egoera batzuei aurre egiteko estilo pasiboa eta emozioetara bideratua hartzea, adibidez familiako gatazken aurrean, eta lan arloan, berriz, aktiboagoa eta arazoetara bideratua hartzea.

Bereziki, hizkuntz kontuetan sarri ikusi dugu eremu sozialetan, lanean edo irakaskuntzan oso proaktiboak direnek,

gero oso jokaera pasiboa dutela bere hizkuntzaren erabile-
rarekin zerikusia duen edozertan, harrigarria bada ere.

Bosgarren oinarria: laburpena

Gure abiapuntua izan da hizkuntza gutxiagotueta-
ko hiztunek estres handiagoa dutela komunikazio egoeretan,
hizkuntza normalizatu bateko hiztunen aldean.

Estres dosi estra horrek oinarri hauek ditu: interakzio
komunikatiboak jarraituko duen bideari buruzko ziurga-
betasun handiagoa (aurreateko ezintasuna), erantzukizuna
(kontrola) batez ere geure gain erortzen da, eta azken finean
galtzeko guztiak ditugulako sententzia (mehatxua).

Horren aurrean, jendeak erreakzio desberdinak izan ohi
ditu, atseginagoak edo kaltegarriagoak norberarentzat
eta hizkuntzaren osasunerako. Jokabide desberdin horiek
—zalantzarik gabe— bakoitzaren historia pertsonalaren
emaitza dira, eta guztiok dugu eskubidea orain arte egin
dugun bezalaxe egiten jarraitzeko edo aldatzeko, baldin eta
ez bagaude gustura, edo errealitate hori bizitzeko modu
hobeak daudela iruditzen bazaigu.

Horrenbestez, hizkuntza gutxiagotu bateko hiztunak garen
aldetik, izaten jarraitu nahi badugu, estres dosi estra hori
gainetik kentzen ikasi beharko dugu. Hori bi modutara
egin daiteke eta bi moduok elkarren osagarriak dira.

Lehena estimuluaren mailan oinarritzen da, eta kanpo bal-
dintzak aldatzean datza, alegia, gutxiagotuak izateari utzi
eta hizkuntza normal(izatu) bateko hiztun izatera igaro.
Bigarrena erantzunaren mailan oinarritzen da, eta beste
hizkuntzako, anormalizatu gabe dagoen horretako hiztu-
nekin ditugun interakzioei aurre egiteko modua aldatzean
datza, geure buruarekin dugun gogobetetze maila igotzeko,

psikologoek artean oso ezaguna den aforismoak diotenari jarraiki: «konponbidea arazoa baita». Bigarren modu horren oinarria, beraz, horrelako egoerei ematen diegun erantzuna aldatzea da, erantzun horiek, besterik ez bada ere, arazoaren zati direla eta konponbidearen zati izatera igaro daitezkeela konbentzita.

Lehen konponbideak (gutxiagotuta egoteari uzteak) aurrera egiten duen heinean, bigarrena (geuk egiten duguna aldatzea) gero eta errazagoa izango da. Hala, lehenak erabateko arrakasta baldin badu, ez dugu bigarrenaren beharrik izango (zorionez).

2 Bittor, hiztun herabea

«... mutil hura dena gaztelaniaz egiten hasi zenean... neuk ere halaxe egin nizkion galderak. Eta ez nuen nahi, baina... oso arraroa egiten da bakoitza hizkuntza batean aritzea!»

Victor Aizpuru, Bittor, duela berrogeita zortzi urte jaio zen Orio herrian (Gipuzkoa). Han bizi da familiarekin eta administrazio kudeatzaile lan egiten du. Herriko gehienek bezalaxe, euskara du lehen hizkuntza eta horixe da egunerokoan gehien erabiltzen duena. Bere bi seme-alabek Batxilergoa ikasten dute Orion, eta emazte Arantzak janari ekologikoen denda bat dauka. Biak oso pertsona kontzienteak eta aktiboak izan dira hainbat gizarte mugimendutan beti. Seme-alabak Orioko Ikastolan ibili ziren bitartean familia osoak aktiboki parte hartu zuen Euskal Herriko Ikastolen aldeko mugimenduaren aldeko egitasmoetan.

Manifestazioren batera jaisten ginenean, oso harrigarria egiten zitzaidan gurasoak euren artean gaztelaniaz egiten entzutea. Han zeuden, herriaren eta hizkuntzaren aldeko manifestazioan, eta gaztelaniaz egiten zuten? Hasieran ezin nuen sinetsi ere egin!

Bittorrek eta Arantzak sekula ez dute zalantzan jarri euren arteko hizkuntza zein izango zen eta ahaleginak egin dituzte beti etxean euskarazko liburuak egon daitezten.

Etxean EGUNKARIA eta ondoren BERRIA egunkariak erosi dituzte. Telebistari dagokionez, batez ere ETB1 ikusten dute eta ETB2ri buruz...

ETB2n euskaldunak gaztelaniaz aditzea tamalgarria da. Politikari, kirolari eta pertsona ezagunak ETB1en euskaraz esandakoa ETB2rentzat gaztelaniaz errepikatu beharra ere! Horrela euskara ETB2tik desagerrarazi dute. ETB euskara sustatzen laguntzeko sortu zen, besteak beste. Denbora aurrera joan ahala, eta ETB2ren sorrerarekin, hasierako helburu hura bazterrean utzi zen. Gainera, gaur egun ETB1eko programazioa eskatu egin da, baliabideak ETB2ra bideratzen dira nagusiki.

Herriko lagun eta jendearekiko harremanak beti euskaraz izaten dira. Herrian batez ere euskara entzun daiteke, gaztelania baino gehiago. Azkenaldian, dena den, euskara ez dakiten etorkin asko iritsi dira. Senegaletik eta beste herrialde batzuetatik etorri dira. Batzuek urte batzuk daramatzate herrian eta bertan jarri dira bizi izaten familia eta guzti. Eskolara joaten direnez, neska-mutikoek badakite euskaraz. Txikienek askotan euskara eta familiako hizkuntza besterik ez dute jakiten, oraindik ez baitakite gaztelaniaz. Hala eta guztiz ere, herriko askok espainieraz egiten diete. Dirudienez, aurpegian ezaugarri fisiko jakin batzuk dituztenek gaztelaniadunak izan behar dute. Bitorrek ez du hala jokatzeko. Badaki umeek euskaraz ikasten dutela eskolan eta beti hizkuntza horretan egiten die. Gurasoekin, dena den, beste kontu bat da.

Nagusiek gaztelaniaz hitz egiten dute, eta nahikoa kostatzen zaie dirudienez... ez dakit, bada... neuk ere gaztelaniaz egiten diet. Badakit ez nukeela egin behar, horrela ez dutela inoiz gure hizkuntza ikasiko, baina nahikoa dutela iruditzen zait, etxetik hain urrun, lan egiten duten moduan lan eginda, lanik astunenetan,

hemengoek nahi ez ditugun lanetan, geuk artean hizkuntza kontuekin gehiago konplikatzeke bizimodua!

Egia esan, ahaleginak egiten ditu. Horrelakoren bat aurkitzen duenean “Egun on” esaten dio eta euskaraz hitz batzuk egiten hasten zaio, baina besteak bi edo hiru esaldi esan orduko atzerritar baten gaztelanian, bera gaztelaniaz egiten hasten da, askotan konturatu ere egin gabe. Lanean ez da oso ohikoa, bezero gehienak herrikoak direlako, baina gauza bera gertatzen zaio: gaztelaniaz hitz egiten bukatzen du. Batez ere, telefonoz ari denean.

Ez dakizu nondik deitzen dizuten... eta agian kanpokoia izan daiteke, ulertzen ez digunen bat. Eta jakina, bezeroak ere badira... eta badakizu: ordaintzen duenak agintzen du!

Bitxia da Bittorren baieztapen hori. Izan ere, gaztelaniara igarotzen den beste egoeretako bat alderantzizkoa izan ohi da. Donostialderantz erosketak egitera joaten direnean, esate baterako, eta dendariak behin eta berriro gaztelaniaz egiten duenean, berak hizkuntza horretan hitz egiten du azkenean.

Aurreko batean familia osoa telebista berria erostera joan ginen. Kontua da nik beti euskaraz egiten dudala lehen hitza. Egia esan, ez badut gehiegi pentsatzen halaxe ateratzen zait, jakina. Baina mutil hura dena gaztelaniaz egiten hasi zenean... neuk ere halaxe egin nizkion galderak. Eta ez nuen nahi, baina... oso arraroa egiten da bakoitza hizkuntza batean aritzea!

Dirudienez, kasu honetan ez da aplikatzen ordaintzen duenak agintzen duela dioen esaera, nahiz eta Bittor bera izan arau hori aplikatzen duena.

Dena den, hori ez da beti hala gertatzen. Batzuetan, Bittorrek serioски hartzen du eta hizkuntzari eustea lortzen du, nahiz eta besteak gaztelaniaz egin. Hori gertatzen zaio, batez

ere, Administrazioko langileekin ari denean. Adibidez, bere herriko udaleko langile batek bakarrik gaztelaniaz daki, elebakarra da. Hori bai, gizon horrek inoiz ez du protestarik egin norbaitek euskaraz egin diolako.

Sarritan hitz egiten dut berarekin. Eta beti euskaraz egiten dut! Tira, agian batzuetan nahi gabe gaztelaniara igarotzen naiz. Izan ere, egia esan, deseroso samarra egiten zait, baina ez dut nahi gaztelaniaz egiterik neure herrian lanean dabilen funtzionario bati!

Beste alde batetik, solaskideak gaztelaniaz egiteko eskatzen badio, Bittorrek ezezko borobila ematen du. Horrelakoetan lortzen du elkarrizketa (edo eztabaida, hobeto esan) elebiduna izatea, gaztelaniara igaro barik. Honela kontatzen du Gizarte Segurantzara gestio batzuk egitera joan zenean bulegoan gertatu zitzaiona:

Sarrerako mahaian zegoen gizonak berari gaztelaniaz egiteko esan zidan. ‘Haga el favor de hablarme en español, que yo no soy de aquí’ —esan zidan. Finean, norbaitekin euskaraz hitz egin nahi nuela eta ea zer ordutan aurki nezakeen besterik ez nion galdetu-eta! Baita zera ere! Euskaraz egiteko munduko eskubide guztia nuela esan nion, eta neuk bere hizkuntzan egin behar izatea besterik ez genuela behar, eta ez bazekien joan zedila eskolara hitz egiten ikastera.

Oraindik ere berotu egiten da Bittor pasadizoa kontatzen duen bakoitzean, nahiz eta urtebete baino gehiago igaro ordutik. Itxura denez, asko eragin zion, odola berotzen baitzaio eta bestelako kontuak esaterakoan baino sutukiago hitz egiten baitu. Horrelakorik ez omen zaio askotan gertatzen. Jakina, bera Orion bizi da, eta ez Donostian. Dena den, bitxia da hizkuntzari eustea errazago egiten zaiola aurrez aurre aurka jartzen zaizkionean, baita gaztelaniaz egiteko

eskatzen diotenean ere, inork horrelakorik eskatzen ez dion beste egoera batzuetan baino.

Bittor eta Arantza sarritan haserretu egiten dira —edo tristatu, egunaren arabera—, euren seme-alabak gaztelaniara oso erraz aldatzen ikusten dituztenean. Harrituta geratzen ziren txikitan ere bien artean jolasean gaztelaniaz entzunda. Umeen irakasle batek azaldu zien hori normala zela (alegia, ohikoa zela).

Telebistan ikusten dute; pelikuletako pertsonaiek horrela hitz egiten dute... eta eurek ere berdin egiten dute.

Dena den, batzuetan erresumindu egiten dira pixka bat. Ez da, bada, izango txiki-txikitatik ez diegulako dena azaldu. Manifestazioetara eta topaketetara eramán ditugu. Etxea behin eta berriro hitz egin dugu gaiari buruz. Ondo dakite gure hizkuntza hitz egiteko eskubide oso-osea dugula, eta geuk ez badugu babesten, beste inork ez duela egingo. Baina begira! Deskuidatu orduko gaztelaniaz ari dira edozeinekin.

Semerik zaharrenak, Enekok, neska-laguna dauka. Neska donostiarra da eta badaki euskaraz, baina Donostiako taberna batean gaztelaniaz ezagutu zutenez elkar, oraindik ere hala jarraitzen dute. Gaztelaniaz egiten dute euren artean eta, adibidez, mutilaren familiarekin daudenean hizkuntzaren aldetik oso egoera zentzugabeak gertatzen dira. Biek euskaraz egiten dute beste guztiekin eta batak besteari zerbait esateko gaztelaniaz egiten dute.

Biek ere sekulako azentua dute eta! Ezagun-ezagun dute euskaldunak direla eta eurak jo eta sua gaztelaniaz. Sinestea ere kosta egiten zait!

Bittor deseroso eta haserre sentitzen da egoera horren aurrean. Bere ustez, ahal zuen guztia egin du seme-alabei

hizkuntzarekiko maitasuna eta kezka transmititzeko. Hala eta guztiz ere, gauzen nondik norakoak ikusita, zalantzan jartzen du bilobek zein hizkuntzatan hitz egingo ote duten, Enekok eta neska-lagunak horrela jarraitzen badute.

Bittor dibanera

Bittor hizkuntz kontzientzia duen baten adibide ona da. Hizkuntza gutxitu bateko hitzun dela aitortzen du, hizkuntza maite du (seme-alabei transmititzen die) eta publikoki defendatzen du (jardunaldiak, manifestazioak...). Bere burua kategoria horretan sartzen duen edozeinentzat, euskaraz egitea begi-bistako errefortzu positiboa da, sinesten duena egiten duelako eta koherentzia handia adierazten duelako pentsatzen duenaren (bere hizkuntza duina dela eta hizkuntza normala izan beharko litzatekeela) eta egiten duenaren artean (hizkuntza erabili). Horrek eta horrekin batera berea duen eta ezagunagoa egiten zaion hizkuntza hitz egiteko erraztasunak argi azaltzen du euskaraz hitz egitean sentitzen duen gogobetetzea.

Beraz, lehen begirada batera, bitxia da ikustea Bittorrek horrenbeste egoeratan aukeratzen duela gaztelaniaz egitea.

Hasteko, kontuan hartu behar da gehienetan euskaraz egitearen ondorioz gatazka egoera batzuk bizi izan dituela Bittorrek. Gatazka horiek desatseginak egin zaizkio eta, horrenbestez, zigorraren parekoak izan dira. Horrek euskaraz hitz egiten jarraitzeko aukera murrizten du, eta naturaltasunez egiteko aukera oztopatzen du.

Jakina, kontua ez da Bittorri gaztelaniaz hitz egitea gustatzen zaiola. Hori oso ulergarria da. Alde batetik, ez da bere hizkuntza. Nahiz eta menderatzen duen, ez du euskaraz

duen erraztasuna eta adierazteko gaitasuna. Beste alde batetik, gaztelaniaz hitz egitea kontraesanean dago bere ideiekin eta berak badaki horixe dela, gaztelania komunikazio maila guztietan legitimatzea, alegia, euskararen biziraupenerako mehatxurik handienetarikoa.

Zergatik egiten du, orduan, hain maiz gaztelaniaz? Erantzuna da gaztelaniaz egitea errefortzu negatibo bihurtu dela beste aukerari (euskaraz hitz egiteari) lotutako zigorra saihesten baitu.

Errefortzu negatiboa portaeraren baldintzatzaile oso indartsua da animalietan zein gizakietan. Bost solairu oinez igozteko gauza gara, ez ariketa egitearen plazeragatik, baizik eta gustuko ez dugun auzokide batekin topo ez egiteagatik. Eta batez ere horrexegatik, errefortzu negatiboagatik, hartzen du bere dosia edozein drogatako zaletuk. Hartzen ez duenean pairatzen dituen sentazio desatseginak saihesteagatik egiten du. Adikzio maila batetik aurrera, droga hartzea ez da plazera; aldiz, desatsegina egiten da ez hartzea. Ondorioz, droga hartzen dute abstinentziaren deserosotasuna saihesteko.

Hala, Bittorrek ez du sentazio bereziki atseginik izaten gaztelaniaz hitz egiten duenean. Gainera, pentsatzen jartzen bada, gaizki sentitzen da bere pentsaerarekin bat ez datorren zerbait egiten ari delako. Hala eta guztiz ere, sarritan hitz egiten du gaztelaniaz, horrela egoera gatazkatsuak saihesten dituela ikasi du eta. Gaztelaniaz hitz eginda, ez du sekula gatazkarik hizkuntza dela eta.

Mendekotasun estrategia horrek, dena den, konpontzen dituen baino arazo gehiago sortzen ditu.

Hasteko, gaztelaniara aldatzeak batzuetan ondoeza eragiten dio Bittorri berak esaten duen bezalaxe.

Neure burua barregarrien sentitu dudan aldia Osakidetzara joan nintzen batean izan zen. Presaka nenbilen eta leihatilara iritsi nintzenean gaztelaniaz egin nuen. Donostiako ospitalean nengoen, leku ofizial batean, eta neure artean esan nuen: «Tira! Gaur errazera joko dugu!». Hitz egiten hasi eta gero bulegoko langileak ondoko lankideari euskaraz hitz egin zion. Gorri-gorri eginda geratu nintzen, lotsaren lotsaz.

Bigarrenik, egin behar dela pentsatzen duena ez egiteak kontzientzia txarra ematen dio eta horrek ondoeza eragiten dio.

Eta azkenik, nahiz eta agian alderdirik garrantzitsuena izan, jokabide horrek gaztelaniazko komunikazioan oinarritutako harreman multzo bat sortzera eramaten du. Harreman horiek ez zaizkio batere eroso egiten eta artean gehiago zailtzen dute aldatzea atsegin handiagoa emango dion hizkuntza portaera hartzeko.

Kasu honetako alderdirik interesgarrienetakoa da seme-alaben transmisioari buruzkoa. Badakigu Bittorrek eta Arantzak euskara transmititu dietela seme-alabei. Dena den, kontua ez da soilik zein hizkuntza irakasten diegun. Hori bezain garrantzitsua da, edo gehiago, hizkuntza batari eta besteari buruz transmititzen dugun jarrera.

Badakigu biek ere esplizituki esan dietela seme-alabei euskaraz egiteko eskubide oso-osoa dutela. Ikastolara bidali dituzte eta sarritan eraman dituzte hizkuntzaren aldeko manifestazio eta topaketetara. Eta familiako solasaldi askotan egongo zen hizkuntzaren gaia, seguruenik. Horrekin guztiarekin, eurek pentsatuko dute behar zen guztia egin dutela seme-alabei euren hizkuntzarekiko errespetua eta maitasuna transmititzeko. Hala eta guztiz ere, seme nagusiak gaztelaniaz hitz egiten du neska-lagun euskaldunarekin!

Non dago akatsa?

Galdera honen erantzunak garrantzi praktiko handia dauka gizakion portaera ulertzeko. Kontua da askoz ere eragin handiagoa egiten digula ikusten dugunak entzuten dugunak baino.

Gurasoek esaten badigute geure hizkuntza duina eta garrantzitsua dela, hitz egiteko erabateko eskubidea dugula, presente izan dadin ahalegina egin behar dugula eta abar, sinetsi egiten dugu hori guztia. Zergatik ez, bada?

Dena den, hori guztia erne entzun ondoren, kalera atera eta aitak euskara alboratu egiten badu norbaitek gaztelaniaz egin orduko... horixe da gure jokabide eremuan grabatuta geratzen dena. Eredugarri izatea doktrinatzea baino askoz ere indartsuagoa da: aitak egiten duena kopiatzen eta imitatzeko. Ez horrenbeste esaten diguna.

Bitorren seme-alabek aitarekin joaten direnean ikusten dutena da gaztelaniara igarotzen dela hizkuntza horretan egiten dion edozeinen aurrean. Ez dago eskatu beharrik ere aitak hala egin dezan. Nahikoa da solaskideak gaztelaniaz egitea mirari antzeko bat eragiteko, alegia, euskararen alde denbora, ahalegina, dirua eta ilusioa eskaintzeko gauza den norbaitek uko egiteko euskaraz egiteari, baita zalantzarik gabe mendeko egoeran daudenekin ere, esate baterako, telebista saltzaile gaztearekin.

Horixe ikasi dute Bitorren seme-alabek, eta oraindik ere horixe ari dira ikasten. Gertakizunen argitasun eztabaidaezinen aurrean, diskurtsoak, argudioak eta hitzak geriza indargeak dira, arrakastarako inolako aukerarik gabeak.

Beste eremu batzuetan jende gehienak oso argi ikusi ohi du. Inor ez litzateke harrituko, adibidez, erretzaile baten seme-a-

labak ere erretzaile direlako, nahiz eta gurasoek zehaztasunez azaldu seme-alabei zeintzuk diren tabakismoaren eragin kaltegarriak. Hala eta guztiz ere, hizkuntzaren eremuan, itxura denez, nahiago dugu pentsatzea seme-alabek geuk nahi duguna ikasiko dutela, eta ez ikusten dutena guk egiten dugula.

Penagarria izango da agian, baina gauzek ez dute horrela funtzionatzen. Ez dugu transmititzen soilik hizkuntza bat edo bestea. Multzo banaezin berean transmititzen ditugu hizkuntzarekiko benetako jarrera, gure beldurrak, hutsuneak eta inkoherentziak. Eta hori guztia ezin dugu konpentsatu azalpen sakonekin, asmo onekin edo doktrinamendu saioekin.

Bitorrentzako autolaguntza fitxa

Bitorren aurre egiteko estiloa batez ere erreaktiboa da. Gogoan izan behar dugu horrek esan nahi duela erantzutea eta borroka egitea nahiago izaten dela, eta emozio nagusia haserrea izateko joera dagoela. Horregatik, unean uneko gogo aldatzearen arabera jokutzen du; batzuetan beharrik izan gabe ere etsi egiten du, eta hurrengoan, berriz, haserre bizioan erantzuten du. Horrek guztiak kalte egiten dio berari eta euskararen erabilerari ere ez dio inolako onik egiten.

Berarentzat ditugun gomendioak batez ere estilo proaktiboagoak hartzearen bidetik joango dira. Horrek aurea hartze handiagoa eskatzen du eta jokalekua prestatzea; gainera, emozio egokitzaileagoak eta atseginagoak adieraztean oinarritzen dira.

Bitorren kasuan ez dirudi zaila euskararen erabilera nabarmen handitzea. Hasteko, bere nahia horixe delako. Egin

behar duen guztia da aurreiritzi eta automatismo multzo bat gainditzea, bere portaeraren benetako lasta gisa funtzionatzen baitute aktiboki, bere ideologia horrekin bat ez badator ere. Hori lortzeko, eguneroko erregistro simple bat lagungarri izango zaio egiten dituen aurrerapenen berri izateko eta, bide batez, motibatuzko. Zenbat aldiz izan den gauza elkarrizketa elebidunari eusteko kontatu behar du, eta, horrekin batera, apuntatu behar du zenbaterainoko ahalegina eskatu dion eta zer nolako gogobetetzea lortu duen. (ikusi 1. eranskina).

Dena den, bere buruarekin egin behar du lanaren lehen zatia, dituen aurreiritzien inguruan. Oro har, joera izan ohi dugu pentsatzeko aurreiritziak ondo landutako formulazioak direla eta noiznahi adieraz ditzakegula. Adibidez, honelakoak: «nire ustez, beltzak (edo frantsesak, edo arabiarak edo emakumeak) intelektualki beheragoko mailakoak dira». Alabaina, ez da beti hala gertatzen.

Aurreiritziek errealitatearen aurrean jarritako betaurreko modura jokatu ohi dute. Errealitatea kolore bakarrekoa ikusarazten digute eta bestelako ñabardura guztiak ezkutatu.

Beraz, aurreiritzi bat da pentsatzea norbaitek ez dizula euskaraz ulertuko baldin eta

- a) azal iluna badauka,
- b) lehen hitza gaztelaniaz egin badizu,
- c) uniformeaz jantzita badoa, eta abar.

Gainera, oso arraroa da aurreiritziek forma elaboratua hartzea, esate baterako esaldi osoa, subjektu, aditz eta osagarri eta guzti. Aurrean jartzen dira abiadura handian, eta ia automatikoki eta konturatu orduko modu jakin batean jokatzen bultzatzen gaituzte. Adibidez: gaztelaniaz hitz egitera.

Aurreiritziak gainditzeko modurik onena da aurreiritzirik ez bagenu bezala jokatzea. Arraroa dirudi, baina halaxe da. Horrela eginez gero, aukera bat ematen diogu errealitateari beste modu batera azaltzeko gure aurrera.

Adibidez: hurrena aurkitzen dugun pertsonari euskaraz egitea erabakiko dugu; berdin zaigu bere itxura, non gauden, nola doan jantzita edo zein hizkuntzatan hitz egiten dugun. Lehen aldian ahalegin txiki bat egin beharko dugu agian, baina horrela egiten badugu, aukeraren bat badugu hauetakoren bat gerta dadin:

- a) solaskideak euskaraz erantzutea, edo
- b) ondo ulertzea, nahiz eta berak beste hizkuntza bat hitz egin.

Esperientzia sinple horrek, norberak zuzenean bizi izanda, gure aurreiritzia deuseztatzeko indar handiagoa dauka geure buruari esandako edo beste norbaiti entzundako arrazona-mendu eta argudiaketa guztiak baino. Oraingoan ere autoerregistro bat lagungarria izan liteke aurreiritziak hausteko (ikus 2. eranskina: Arrakasten egunerokoa).

Horrenbestez, Bitorrentzako gure lehen gomendioa izango litzateke elkarrizketa elebiduna praktika dezala, ahal izanez gero lagunekin edo senideekin hasita eta jolas hori aurretik eurekin hitzartuta. Horrela, sarritan gaztelaniara aldarazten duen arrarotasun pertzepzioa asko murriztuko litzateke, desagertzeraino. Izan ere, jende asko oso ohitua dago sistema hori erabiltzera eta ez dute oroitzen besteari zein hizkuntzatan hitz egin dioten ere.

Ondoren, gauza bera ezezagunekin egiteko proposatuko genioke, agindu sinple batekin: ez aldatu hizkuntzaz esplizituki ez badizute eskatzen.

Komunikazio adituek esaten dute oro har komeni dela pentsatzea solaskideak geure adimen maila antzekoa duela, eta zer nahi duen edo zer ez duen nahi argi eta garbi adierazteko geuk adinako gaitasuna duela. Beraz, norbaitekin hizketan hasten bagara, pentsa dezakegu baldin eta

- a) ez badigu ulertzen,
- b) ez bazaio gustatzen nola hitz egiten diogun, edo
- c) deseroso sentitzen bada,

gai izango dela jakinarazteko, geu asmatzen ibili beharrik gabe. Hori kontuan hartuta, Bittorrek lasai asko erabaki dezake edonorekin euskaraz hitz egitea.

Oso garrantzitsua da errazenak iruditzen zaizkion egoerak konpontzetik hastea. Horrela arrakasta txikiak lortuko ditu eta, horrek portaera berria sendotuko duenez, ataza zailagoi ekitera bultzatuko dute. Berarentzat zailak diren egoeretatik hasten bada, berriz (adibidez bezeroekin edo telefonozko elkarrizketekin), deserosotasuna jasanezina izan daiteke eta, horrenbestez, porrot pertzepzioa eragin dezake, eta horrek helburua bertan behera lagatzera bultzatzen dezake.

Laburbilduz: Bittorrentzako errezeta

1. Praktikatu elkarrizketa elebiduna senide edo lagunekin.
2. Hitz egin euskaraz ezezagunei egoera zeure aldekoa dela iruditzen zaizunean.
3. Hitz egin euskaraz ezezagunekin egoera ez denean zeure hain aldekoa ere.
4. Hitz egin euskaraz lehen gatzelaniaz egiten zenuenekin.
5. Erabili portaera erregistroak aldaketak antzemateko eta aurrerapenak errazteko.

1. Eranskina

Elkarrizketa elebidunen erregistroa

Hila: Astearen hasierako eguna: Astearen bukaerako eguna:	astelchena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea
Elkarrizketa elebidunen kopurua							
Ahalegin maila (0-10)							
Egunean izandako gogobetetze maila (0-10)							

Adibidea. Elkarrizketa elebidunen erregistroa

Hila: martxo Astearen hasierako eguna: 3 Astearen bukaerako eguna: 10	astelchena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea
Elkarrizketa elebidunak	I	II	I	III	IIII	IIIIII	III
Ahalegin maila (0-10)	8	7	5	3	3	4	2
Egunean izandako gogobetetze maila (0-10)	6	9	8	9	9	9	10

2. Eranskina

Arrakasten egunerokoa

Euskaraz jarraitzea lortu den egoerak erregistratzeko.

Egoera:			
Data:			
Deskribapena:			
Ahalegin maila (0-10)		Gogobetetze maila (0-10)	
Erauzitako aurreiritzia			
Oharrak			
Iruzkinak			

Adibidea

Egoera: Telefonozko elkarrizketa			
Data: 2014ko apirilaren 25a			
Deskribapena: Donostiako epaitegietara deitzea, lekuko gisa deklaratzeko epaiketa baten ordua aldatzeko eskatzeko. Neure buruari galdetu diot zein hizkuntza egin behar ote nuen. Zerbitzua eman behar zidatenez, zalantzan egon naiz agian euskaraz egitea nire aurkakoa izango zelakoan.			
Ahalegin maila (0-10)	5	Gogobetetze maila (0-10)	9
Erauzitako aurreiritzia	Justiziako funtzionario guztiak gaztelaniadunak dira.		
Oharrak	Lehendabizi hartu nauenak euskaraz egin dit. Uste dut ohi baino jatorrago egon dela gainera.		
Iruzkinak	Batzuetan, euskaraz egitea zeure aldeko zerbait izan daiteke, kalterako izan beharrean. Gogoan izan behar dut hori.		

3 Xabier, erretako hiztuna

«...Telefónica edo gas enpresara deitu
aurretik gaixotzen hasten naiz.
Lotsagabe horiek, gure diruekin,
euskaraz ideiarik ere ez duen jendea
kontratatzan dute eta niri tokatzen zait
eurekin borrokatzea».

Duela 30 urte bizi da Xabier Donostian, nahiz eta Goizuetan (Nafarroa) jaioa izan. Bigarren hezkuntza bukatu zuenean alde egin zuen, Bilbora joan zen unibertsitatean ekonomia ikasteko. Betidanik inplikazio handia izan du konpromiso sozial eta politikoetan, eta bizitza sozial handia izan du, unibertsitateko bizitzarekin parez pare. Ez zen iritsi lizentzia-tzera eta Donostiarantz joan zen, aitaren lagun batek eskaini zion lanpostuagatik. Lan duina eta nahiko ondo ordaindua zen, eta merkataritzan bete-betean sartu zen.

Gaur egun, duela 15 urte sortu zuen nekazaritzako produktuen enpresa baten jabe da. Berak ditu errepresentazioaren eta bezeroekin zuzeneko harremanaren ardurak, eta horregatik asko ibiltzen da gora eta behera, batez ere euskaraz hitz egiten den herrialdeetan bidaiatzen. Hori bere erabaki pertsonala da eta erabakiaren oinarrian bere ideia abertzaleak daude (edo independentistak, berak esango lukeen moduan).

Bere profila herriaren kultura eta hizkuntzarekiko konpromisoa duen batena da, borrokalari nekaezina, eta berak esaten duen bezala, hau oso argi duena:

—Hitz egiten ez den hizkuntza hil egiten da.

Esaldi hori ikur gisa hartuta, Xabierrek ia beti eta edozeinekin euskaraz egiten du. Egia esan, sarritan horrek eztabaidak eta atsekaberen bat edo beste eragiten dio. Bere lagunen ustez «serioegi hartzen ditu kontu horiek» eta ez du aukerarik galtzen hizkuntzaren gaia ateratzeko eta —behar denean— sutsuki defendatzeko.

—Sekula ez dela erlaxatzen dirudi. Ahal duen guztietan gaia ateratzen du, eta berari iruditzen bazaio, sekulakoak esaten dizkizu: kolaborazionista zarela, denok zure modukoak izanez gero herriak jai duela... Geu ere abertzaleak gara, baina... azkenerako kontra jartzen zaitu.

Agian, batzuetan gaztelaniara igarotzen da azkenean Xabier: norbaitek ulertzen ez duela esaten diolako haserretzen denean edo gaztelaniaz egiteko eskatzen diotenean. Orduan dezente berotzen da, oso azkar eta ozen hitz egiten hasten da eta nahi gabe ere gaztelaniara igarotzen da:

—Gogait eginda nago! Siempre nos tenemos que ple-gar los mismos. A ver cuándo aprendéis la lengua del país que os da de comer.

Bidaia asko egiten ditu Xabierrek lurraldean gora eta behera. Jende berri asko ezagutzen du eta aspaldiko bezeroekin ere baditu harremanak. Nekazaritzaren arloan egiten du lan, eta nekazariekin euskaraz hitz egin ohi du. Albo batera utzi ditu adibidez hegoaldeko Nafarroa eta Arabako Errioxa inguruak, nahiz eta oso merkatu ona izan mahastiengatik eta ardogintzagatik, gaztelaniaz egiten delako inguru horietan.

—Ez dut nahi buruko minik. Enpresa ireki nuenean, nire esku zeuden merkatuaren txoko guztietara joan nintzen. Meteosatek baino kilometro gehiago egiten nituen, baina une batean nahikoa zela erabaki nuen, ez nuela gehiago sufritu nahi. Tipo higuigarri batek “en cristiano” hitz egiteko eskatu zidan egunean izan zen. Besterik ez genuen behar! Euskal Herrian gaude eta Franco kabroiagatik eta oraindik ere hain bizirik dauden bere jarraitzaileengatik izan ez balitz hemen ez zen euskaraz besterik hitz egingo. Faxista deitu nion, kristorenak bota nizkion (horiek eta gehiago ere merezi zituen), eta erabaki nuen ez nintzela gehiago mugituko gaztelaniadunen lurretan.

Xabier gusturen gurasoenean egoten da, Goizuetan. Sarritan joaten da bisitan, batez ere asteburuetan, oso zaharrak direlako eta han, herrian, oso lasai egoten delako ere bai. Tabernara joaten denean edo ezagunekin kalean aritzen denean, pilotari buruz, amuarrainak harrapatzera etortzen diren arrantzale kanpotarrei buruz edo beste edozertaz jarduten dute. Hango bizitza haurtzarora itzultzea bezalakoxea da. Orduan ez zeukan horrenbeste buruhauste hizkuntza eta lurraldeari buruzko kontuekin (ez omen zuelako horri buruzko kontzientziarik).

Lasaitasun hori, dena den, ez du sentitzen bizi den lekuan. Donostian badu lagun kuadrilla bat, ezkongabeak bera bezalaxe, hangoak eta hemengoak. Egunero-egunero lagun batekin eztabaidatzen du arrazoi beragatik. Inork ez duela bera ulertzen pentsatzen du eta bere ustez jendeak, baita bere lagunek ere, herria pikutara bidaliko duen denaberdirzaitkeria du. Batzuetan oldarkor jartzen da, eta gehiago ezin duenean jarlekutik jaiki mus partida baten erdian eta etxera alde egiten du.

Egia esan, gero eta gutxiagotan joaten da tabernara eta gero eta gutxiago ateratzen da lagunekin, nekatuta dagoelako eta ez daukalako sesiorako gogorik. Etxean geratzen da, irakurtzen edo bere esperientziak kontatzen aktiboki parte hartzen duen webgune euskaltzaleetan. Hala eta guztiz ere, bere nahiezak ez du atsedetik hartzen, izan ere kontatzen dituen eta irakurtzen dituen gauzen artean odola berotzen jarraitzen zaio.

Blog batean idatzi dituen azken sarreren artean, anekdota hau kontatzen zuen:

Azken Kilometroetara lagunekin joan nintzen, ohikoa dugun moduan, ibilbidea egin eta bertan bazkaltzeko asmoarekin. Herrian zihoan ibilbide zatian gindoazela, gazte batzuk hurbildu zitzaizkigun ikasketa amaierako bidaia finantzatzeko zozketa baterako txartelak eskainiz.

—Erosiko diguzue txartel bat?

—Ea, emadak pare bat. Zenbat duk?

—Bi euro. Tori.

Txartelak hartu eta gaztelaniaz zeudela konturatu nintzen.

—Aizue!, baina zertan ari zarete? Kilometroetan gaztelania hutsez dauden txartelak saltzen? Franco aspaldi hil zuan motel! Ken itzak txartel horiek nire bistatik oraintxe bertan! Baina nola litekeek halakorik! Tori zuen txartelak eta itzulidazue dirua oraintxe bertan!

Hasieran, denak harrিতuta geratu dira nire erreakzioagatik; gero, txartela saldu didan gazteak, lotsatuta, dirua itzuli dit eta honela esan du:

—Euskaraz ere egin behar genituen baina letrak txiki-kegi gelditzen ziren eta... bada, azkenean denek ulertzeko moduan egin ditugu.

Aitzakia merke hura entzuterakoan are situago sentitu naiz.

—Txartelak gaztelania hutsez egiteko hobe duzue egiten ez badituzue. Erre itzazue gaztelaniazko txartel zikin horiek!

Handik alde egin nuen, baina egun guztia sutan pasatu nuen egora burura behin eta berriz etortzen zitzaidala. Penagarria da D ereduan ikasitako ikasle batzuk ikasketa amaierako bidaiia finantzatzeko txartel batzuk gaztelania hutsez ateratzea eta lotsa gabe euskararen aldeko jai batean saltzen ibiltzea. Gainera, egun osoan zehar Kilometroetan gazte asko euren artean gaztelaniaz entzun behar izan nituen. Non eta euskararen aldeko jai batean! Ez dut ezer esatekorik espainiarrak sentitzen diren espainiarrengatik. Azken finean, normala iruditzen zait, baina, euren hizkuntza aldatzen duten euskaldunak... Euskalduntzat izango dute euren burua, baina euskararik gabeko euskalduna irin gabeko ogia bezalako da. Jatorria galtzen duenak nortasuna galtzen du.

Betiko lagunak, geratzen zaizkion horiek, eta konfiantzazko bezeroek ere liskarzaleegi eta tematuegi ikusten dute hizkuntzaren gaiarekin, eta kontu handiz ibiltzen dira eztaba-dagarria izan ahal den gairik ez ateratzeko. Sarritan, dena den, kontuz ibilita ere ez dute lortzen Xabierrek beti prest duen diskurtsoa saihesterik. Bere pentsamendu eta argudio lerro nagusiak izan ohi dira nazio arazoak, hizkuntza eta —sarri asko— sekulako ezkortasuna. Adiskide batzuk aspalditik deseroso sentitzen dira berarekin. Nahiz eta oro har mutil jatortzat duten, batzuetan saihestu egiten dute betiko diskurtsoa edo liskarra saihesteko.

Eta Xabierrek antzeman egiten dio. Konturatzen da lagun asko egiten dituela bidaietan eta euskararen aldeko jardunaldi, ekitaldi edo antzekoetara joaten denean, baina ohiko lagunak, egunerokoan alboan izaten diren horietakorik, oso gutxi geratzen zaizkiola.

Gogoan dut, duela urte asko, lagun batzuekin tabernan nengoela, Espainiako selekzioak Nigeriakoaren aurka futbol partida zuela. Espainiak gola sartu zuenean, lagun bat garrasika jaiki zen, zeharo pozik. Ez dakizu nolako amorrua eman zidan. Zer hostia dela eta hunkitu behar du honek, euskalduna izanda, gainera? Kristoren errieta egin nion.

—Aizak, bada ni Nigeriako selekzioaren alde nagok. Eta badakik zergatik? Bada, nik dakidala Nigeriak inoiz ez ziguk bere hizkuntza inposatu, eta ez zaukak armada-rik gurean finkatuta! Hik esan al dezakek horrelakorik hire lagun espainiarrei buruz?

Ordutik, berarekin dudan harremana ez da lehengoa izan. Berari buruzko iritzi ona nuen, baina hura ikusi ondoren, eta gero esan zizkidanak entzunda (Espainia hurbilago zegoela, eta guztiok anai-arrebak garela...), oso argi ikusi nuen. Tipo horrekin ezin nau ezerk bat egin.

Toki eta une batzuek estutasun berezia eragiten diote Xabierri; ia-ia alergia ematen diotela esan liteke. Gestioak egiteko helburuarekin estatuko enpresetara eta operadoreei egindako telefono deiak dira. Bere hitzetan:

Telefonicara edo gas enpresara deitu aurretik gaixotzen hasten naiz. Lotsagabe horiek, gure diruekin, euskaraz ideiarik ere ez duen jendea kontratatzen dute eta niri tokatzen zait eurekin borrokatzea. Badakite ez dugula beste aukerarik, euren zerbitzuak erabili eta sumindura irentsi behar dugu. Eta nik ez dudanez irensten, azkenean ultzera egiten zait. Deitu aurretik ere haserretu egiten naiz. Eta gatzelaniaz egiten didatenean... besterik ez genuen behar! Niri euskaraz egiteko exijitzen diet eta kasu zipitzik ere ez dute egiten. Egunen batean telefonoa eskegi ere egin didate.

Bere ideiak indartzeko txatak eta blogak erabiltzeaz gain, bere antzeko jendearekin egoten da Xabier, denbora libre urriak uzten dion bakoitzean. Batzuetan, lan bidaiak aprobetxatzen ditu talde edo elkarteren batek antolatutako jardunaldietara joateko. Oso gustuko du legeria eta esku-bideak ikastea, adibidez, zer egin ez dakiela ez geratzeko diskriminazio egoeretan. Horrelako gertakizunen aurrean izaten diren bat-bateko solasaldiak ere atsegin ditu. Beti oso partaide aktiboa izan ohi da eskarmentuz betea sentitzen baita eta legeria oso ondo ezagutzen baitu. Aurrera jarraitzen laguntzen dion motorra da hori berarentzat. Dena den, jardunaldiak eta bilkurak amaitu eta gero halako sentsazio kontraesankor batekin itzultzen da etxera. Alde batetik, berak bezala pentsatzen duen jendea ezagutu du eta horrek konpainian sentiarazten du, edo ez hain bakarrik ere, behinik behin. Beste alde batetik, guztien bidegabekeriak eta zorigaiztoak partekatzeak batere itxaropenik gabeko etorkizuna sentiarazten dio.

Xabier dibanera

Xabierrek aurre egiteko estilo erreaktibo eta emozioetara orientatua erabiltzen du, zalantzarik gabe. Errealitatean atsegin ez dituen alderdiak aurkitzen ditu (gaztelaniaz egiten dion jendea, ez diotela ulertzen esaten diotenak...), eraso pertsonal gisa hartzen ditu eta haserretu, kexatu, eztabaidatu egiten du...

Horren guztiaren alderik positiboena da borroka egitearen alde egiten duela eta ez duela sistematikoki mendera dezaten uzten. Kontziente izan behar dugu beste testuinguru batzuetan jarrera hori positibotzat hartzen dela eta oso erabilgarria izan daitekeela autoestimua indartzeko. Pentsa dezagun, adibidez, kirol arloan. ‘Borrokalari’ adjek-


tiboa desiragarria da tenis jokalaria bati buruz, korrikalari bati buruz edo futbolari bati buruz aritzerakoan. Negozioen arloan ere norbait borrokalaria bada, printzipioz, bizitzan etorkizun hobea duela pentsatu ohi dugu konformista batekin alderatuta.

Xabierren arazoa ez da borrokalaria izatea. Xabierren arazoa da bere erantzunetan nagusi diren emozioak batez ere negatiboak direla (haserrea, tristura, gorrotoa, etsipena...), eta horrek kalterik handiena berari egiten dio.

Begi-bistakoa da baduela haserretzeko nahikoa arrazoi. Borrokalari batentzat zaila da ikustea bere herriak, oro har, mendeko jarrera duela. Dena den, ikuspegi psikologikotik begiratuta, Xabierren sufrimenduaren iturria ez da horrenbeste herriaren egoera anormala, baizik eta anormaltasun horren ondorio diren arazoak konpontzeko berak ematen dituen konponbideak. Kalterik handiena berari egiten dienez, agian pentsatu egin beharko luke portaeraz aldatzea komeni zaion.

Xabierren egoera ulertzeko lagungarria izan daiteke hiru azterketa maila klasikoak erabiltzea: kognitiboa, fisiologikoa eta motorra.

Maila kognitiboan aurkitzen dugu Xabierren sinesmen, ideia eta pentsamenduekin lotutako guztia.



Komunikatzeko orduan dituen zailtasunen jatorrian badira —gutxienez— pare bat aurreiritzi sendo.

Lehen aurreiritzia da pentsatzea beti euskaraz hitz egiten ez duena euskararen etsaia dela. Badakigu hori batzuetan hala izaten dela, baina gehienetan ez da hala izaten. Funtsean, egiten ikasi duguna egiten dugu guztiok, eta gure eguneroko ekintzen ondorioak zeintzuk diren ez dugu une oro serio eta kontzienteki hausnartzen. Hori beti areriotasun gisa interpretatzen duenez, Xabierrek ematen dituen erantzun batzuk gehiegizkotzat edo neurrigabetzat har daitezke, gutxienez solaskideen ikuspegitik. Horrek ikuspegien aurkakotasuna handitzen du erraz eta, horren ondorioz, guztiz gatazkatsuak diren egoerak sortzen dira sarriegi .

Bigarren aurreiritzia da besteen portaera berariaz bere aurka zuzendutako erasotzat interpretatzea. Xabierrek kontu pertsonal gisa hartzen ditu onartzen ez dituen iritziak eta ekintzak ezagutzen edo aurkitzen dituenengan. Seguruenik, horrek eztabaiden tonua oraindik ere gehiago berotzea dakar.

Bi aurreiritziek batera kalte handia egiten diote Xabierri. Horien ondorioz, egunero emozio desatseginenak izaten ditu nagusi. Paradoxikoki, nahiz eta bere hizkuntza izugarri maite duen, hizkuntza hori erabiltzearen ondorioz jasotzen duena batez ere atsekabea eta umore txarra da, hain zuzen ere, zigorra. Ondo begiratuta, oso tristea da gizon ekintzaile, borrokalari eta ideia argidun honek egin duen hizkuntza aukera dela—eta bere burua sufrimendura kondematzea, disfrutatu egin beharrean.

Bestalde, maila kognitibokoa da beste alderdi bat ere, askoz ere prosaikoagoa, baina garrantzitsua. Teknikoki autoelkarrizketa deritzonari buruz ari gara. Egoera bati aurre egiteko lehen uneetan geure buruari esaten dioguna

da autoelkarrizketa. Gehienetan, ez du honelako esaldi oso baten forma hartzen: «uste dut laster pertsona horrekin arazoa izango dugula». Esapide laburrak izan ohi dira, adibidez: «orain ere badugu», «gureak egin du» edo antzeko beste zerbait. Adierazpen horiek asko baldintzatzen dute ondoren izango dugun portaera eta —entrenamendu apur batekin— gogobetetze handiagoa eragingo diguten beste batzuekin ordeztu ahal izango ditugu.

Aurrekoarekin zuzen-zuzen lotuta, maila fisiologikoa dago, emozioekin lotua. Emozioak —hein handi batean— pairatzen ditugun aldaketa organikoei lotuta daude. Labur-labur esan dezakegu Xabierrek hizkuntzari eta nazioari buruzko gaien inguruko elkarrizketak aktibazio sinpatiko handiko egoerekin lotzen dituela. Horrek esan nahi du nerbio sistema autonomoaren dibisio sinpatikoaren funtzioak bultzatzen direla, hain zuzen ere, energi kontsumoari lotutako guztiak. Aktibazio sinpatikoaren ondorioz, adrenalina jariatzen da, bihotz taupaden maiztasuna bizkortzen da, tentsio arterialak gora egiten du eta azido gastrikoen jariatzea eta beste prozesu fisiologiko asko aldatu egiten dira. Aldaketa horiek guztiak oso lagungarriak dira lehoi batengandik ihes egin behar badugu edo borrokan egin behar badugu gorila baten aurka (edo beste gizaki baten aurka, finean gauza bera baita). Aldiz, ez dira batere lagungarriak ondorio gisa marmarka eta zeharo haserre alde egin besterik ez badugu egiten. Hori nork bere buruari harrika egitea da eta sekulako buruhaustek sortzen ditu.

Maila motorra, alegia, kanpotik ikusten den portaerarena, zehatu dezakegu baldin eta bere ondoeza trebetasun sozialen faltaren ondorio gisa planteatzen badugu. Gizarte trebetasunak pertsonarteko harremanak bultzatzeko balio duten egiteko moduak eta portaerak dira, hitzezkoak eta

ez hitzezkoak. Portaera hauek daude gizarte trebetasunen artean: entzuten jakitea, mesede bat eskatzea eta eskerrak ematea, kexa bat aurkeztea, adostasunera iristea, ezetz esatea, kritikak jasotzea edo sentimenduak adieraztea.

Horrenbestez, esan dezakegu Xabierrek ez duela asmatu aurkitzen sarritan egunerokoan agertzen zaion egoera multzo bati aurre egiteko modu egokia. Estilo agresiboa erabiltzen du, bere ikuspegia aldarrikatzean oinarrituta; hori guztia, betiere, solaskideak errespetatu gabe. Xabier ez da mugatzen bestekin dituen irizpide desberdintasunak nabarmentzera. Aldiz, kalifikatu egiten ditu (traidoreak, epelak, ezjakinak...) eta euren jokabidea barregarri uzten saiatzen da («denok zuk bezala egingo bagenu...»).

Horrenbestez, euskararen erabileraren ondorioz sortzen zaizkion arazoek ez diote eragiten berari bakarrik, ingurukoei ere eragiten diete. Bere erreakzionatzeko moduaren eragin sekundario bat da lagunak jarrera euskaltzale eta abertzaleen aurka jartzera bultzatzen dituela. Hori gertatzen da, alegia, solasa hizkuntza edo herrialdeari buruzko gaien inguruan den guztietan egoera gatazkatsuak sortzen direlako. Interakzio sozial guztiak oreka printzipio batek gidatzen ditu. Hala, eragileetariko batek guztiz muturreko ikuspuntua azaltzen badu, praktikan solaskideak beste muturrera bultzatzen ditu.

Gainera, erraza da ezezagunek ere aurka jartzeko tentazioa izatea Xabierren parte hartze gatazkatsu eta haserre biziko ugarietakoren bat ikusten dutenean. Paperak galtzen ditugunean eta geure onetik atera gaitzaten uzten dugunean, ez gu ez gure ideiak ez dira izaten erakargarriak.

Xabierrentzako autolaguntza fitxa

Aurreko atalaren egitura jarraituko dugu eta hiru azterketa maila erabiliko ditugu Xabierrentzako gomendioak emateko.

Maila kognitiboan, ezinbestekoa dirudi aurreiritziak albo batera lagatzeko gomendioak. Hori, dena den, errazago da esaten egiten baino. Aurreiritziak ideia autokonfirmatzaileak dira. Guztiok dugu joera pentsatzeko gure aurreiritziek oinarri sendoa dutela eta nonahi aurkitzen ditugu horren frogak. Hori dela eta, Xabierren kasuan bere autoelkarrizketa aldatzeko ahaleginak egingo genituzke. Gaur egun erabiltzen dituen «gogait eginda nago» edo «beste inperialista bat» horien orde, beste hauek proposatuko genizkioke: «ikusiko dugu nola doan », «entzun dezagun ea zer duen esateko», edo, besterik gabe, «ikusiko dugu zer gertatzen den».

Oro har, egokiagoak dira interakzioaren bukaera modu desberdinetakoa izan dadin aukera gehiago zabalik lagatzen dituzten adierazpenak. Aitzitik, erabatekoak eta itxiagoak diren adierazpenek («gureak egin du»; «berriro betiko kontua»...) badirudi soil-soilik bukaera liskartsuetara eramaten gaituztela.

Agian oso aldaketa txikia litzateke. Dena den, gure ustez, aldaketa hau egingo balu, Xabier askoz ere egoera hobean egongo litzateke gaur egun dituen aurreiritziak desegiteko.

Erregistro sinple batzuk egin ditzala gomendatu diezaiokegu, deiak edo bestelako gestioak egiten dituenean zer gertatzen den aztertzeko. Hona hemen adibide bat:

Eguna	Erakundea	Euskaraz egin diet?	Euskaraz erantzun didate?	Euskarari eutsi diot?	Oharrak
08/06/22	Telefonica	Bai	Bai	Bai	Ez dut izan eztabaida beharrik
09/07/30	Orange	Bai	Ez	Bai	Zailtasunak jarri dizkit, baina ez dit eskatu hizkuntzaz aldatzeko.

Maila fisiologikoan, ez litzaiguke ondo irudituko Xabierri gomendatzea eztabaida guztiak ukabilka edo ihesi bukatzerik. Horrenbestez, autokontrolera bideratutako gomendio batzuk egingo dizkiogu, duen aktibazio sinpatikoaren maila handia aprobetxatzeko.

Egia esan, nahiko gauza erraza da. Arnasa sakon hartu eta astiro-astiro botatzen egindako arnasketa teknika eraginkorra litzateke. Birrikak guttiz bete behar dira, aireari barruan eutsi segundo batzuk (5 eta 10 segundo artean, gutxi gorabehera) eta gero irteten utzi ezpainak erdi zabalik ditugula, norberak aktiboki bultza egin gabe (putz egin barik). Horrela, modu erreflexuan lortzen da jarduera sinpatikoa jaitea (beraz, ez daukagu teknikaren eraginkortasunean sinetsi beharrik ere), eta automatikoki erlaxazioa eta lasaitasuna sentituko dugu. Egoera fisiologiko berri horretan askoz ere aukera handiagoak daude amorrua baino emozio egokitzailagoak sentitzeko.

Jakina, ezin dugu teknika hori aplikatu bat-batean gertatzen zaizkigun egoeretan. Hala ere, egoera askotan Xabierrek gatazka aurreikusten du gertatu aurretik (telefono deiak, hainbat bezero edo ezagunekin dituen elkarrizketak...). Egoera horietan guztietan arnasketa teknika hori erabil daiteke gatazkatsua izango dela aurreikusten den egoeran

sartu aurretik. Horrela, interakziorako hurbilpen hobea lortuko dugu.

Azkenik, maila motorrean, arazoak eragiten dizkion egoera anitzetako bati aurre egiterakoan Xabierrek duen portaera aztertzen badugu, gizarte gaitasunei buruzko ikastaro bat egiteko gomendatuko genioke. Ez du hizkuntzari buruzko ikastaro berezia izan beharrik. Gizarte gaitasun orokorretan entrenatzea erabilgarria izango litzaioke. Oro har, komunikazioa asko erraztuko dioten estrategiak erabiltzen eta berarentzat bereziki gatazkatsuak diren uneetan aplikatzen ikasiko luke. Batez ere, kritikatik babesteko teknikak oso erabilgarriak izan litezke Xabierrek egoeratik apur bat gehiago urruntzen ikas dezan. Alderdi batera hain tinko jarri beharrea, Xabierrek ikasiko balu pixka bat itxaroten, berak soka tenkatu gabe, agian sorpresa hartuko luke ikustean bere solaskide guztiak ez direla antieuskaldun porrokatuak edo inperialismo suntsitzailearen alde itsu-itsuan ari diren txorimaloak. Horrela, eztabaida lasaiagoak eduki ahal izango lituzke, eta horrek Xabierren jarrera orokorra lasaitzen asko lagunduko luke. Gainera, agian, bere aurreiritzi batzuk deuseztatzea ere iritsiko litzateke.

Horietako teknika batzuek errazak dirudite eta, izan ere, halakoxeak dira. Hala ere, guztiek nolabaiteko praktika eskatzen dute benetan eragiten diguten egoeretan aplikatu aurretik. Horregatik gomendatzen dugu teknikok testuinguru egoki batean ikastea (adibidez, ikastaro berezi batean) eta gaian adituak direnen gainbegiratupean (oro har, psikologoak edo komunikazio adituak dira egokienak). Adibide gisa, erakuts dezakegu nolakoa izango litzatekeen —hipotetikoki— Xabierren elkarrizketa bat kritika baten aurrean —kritika ez ezik, benetan, eraso bat izango litzateke— eta nolakoa izango litzatekeen kritikatik babesteko teknika baten aplikazioa, hain zuzen ere, gainexajerazioa deritzon teknikaren kasuan.

Egoera hau berarekin sarritan harremana duen edozein lagun edo ezagunekin gerta liteke, eta Xabierren ohiko estiloan gutxi gorabehera horrela gerta liteke:

Solaskidea. —Izan ere, zu oso erradikala zara: beti euskaraz egiten duzu eta ez duzu begiratzen ea bestiak euskaraz ulertzen duen ala ez.

Xabier. —Erradikala ni? Erradikalak joan deneko hogeita hamar urtean hemen bizi diren arren euskaraz egiteko gogorik ez duten aluak!

Solaskidea. —Aizu, denak ez dira bizi Euskal Herrian hainbeste urte. Eta gainera, ez daukazu iraindu beharrik aluak direla esaten, ez?

Xabier. — Berdin zaio denbora asko ala gutxi daramaten hemen. Denok zure moduan egiten badugu eta beti espainieraz egiten badiegu, sekula ez dute euskaraz ikasiko. Finean, zuek zarete errudunak, traidoreok, zuengatik Euskal Herrian bizi izateko euskara ez baita beharrezkoa.

Nahiz eta asmatutako elkarrizketa izan, ez dago jarraitu beharrik ikusteko —kanpoko behatzaile baten ikuspuntutik— Xabierren jarrera ez dela oso erakargarria. Arrazoiaren zati bat izan dezake, baina zati hori ez da batere nabarmentzen, izan ere, tonu iraingarria hartzen du eta besteari askoz ere moderatuagoa eta bakezaleagoa dirudien jarrera ematen dio. Bere estiloa kontraerasoan oinarrituta dago eta horregatik oso azkar igotzen da eztabaiden intentsitatea eta tonua. Horren guztiaren ondorioz, Xabierrek oso baieztapen biribilak egiten ditu eta horrela zaila da entzuleen artean bere alde jarriko den inor aurkitzerik. Oro har, bakardade sentsazio horrek giroa oraindik ere gehiago berotzera eta komentarioen erabatekotasuna indartzera bultzatzen du. Azkenerako, horrenbesteko presioa aguantatu ezina egiten zaionez, zeharo haserretu eta alde egitea erabakitzen du.

Ikus dezagun, orain, nola aplika daitekeen gainexajerazioaren teknika.

Solaskidea: — Izan ere, zu oso erradikala zara: beti euskaraz egiten duzu eta ez duzu begirutzen ea besteak euskaraz ulertzen duen ala ez.

Xabier: — Erradikala? Egia esanda, nik uste dut teknikoki ni psikopata bat naizela.

Solaskidea: — Tira, nik ez nuke horrenbeste ere esango...

Xabier: — Eta nola esango zenioke, bada, zuk?

Solaskidea: — Beno, nik ulertzen dut zuk ez duzula egiten iraintzeko asmoz...

Berriro ere, horrelaxe laga dezakegu. Teknika honen gakoa da Xabierrek erasoari erantzuteko bere buruaren aurkako are eraso handiagoa erabiltzen badu —nahiz eta itxurazkoa bakarrik izan—, besteari bere hitzak zehazteko bidea soilik uzten diola. Interakzio guztiak oreka jokoa dira eta bere burua psikopatatzat aurkeztuta bestea erasotzaile izatetik alboratuta gertatzen da eta ez zaio geratzen defendatzaile izatea besterik.

Teknika hori aplikatzeko, beste guztiekin bezalaxe, bat etorri behar dira hitzezko adierazpenak eta hitzezkoak ez direnak. Horrek entrenamendu pixka bat behar du eraginkortasun maila onargarria lortzeko, behar bezala gidatutako praktika apur baten bidez.

Xabierrentzako errezeta

1. Aldatu zeure buruari esaten diozuna gatazka posible bat hastera doanean.
2. Jarri zeure ongizatea beste guztien gainetik. Horrela, gainera, gehiago egingo duzu zeure herriaren alde.

Saiatu jolas modura hartzen; ikasi dituzun tresnak eta trukuak erabiltzeko aukera gisa hartu egoerok.

4 Isabel, euskaldun berria

«Euskara etxean egoteko apreta baten
modukoa da euskaldunontzat.
Kanpora ateratzeko kaleko zapatak
janzten dituzte: ez da hain eroso,
baina dotoreagoa da.»

Isabel Lasarte-Orian jaio zen 1960ko hamarkadaren amaieran. Gurasoak Caceresetik etorri ziren Lasartera eta bertan izan zituzten seme-alabak. Isabelek, anai-arrebek bezalaxe, gaztelaniaz egin zituen ikasketa guztiak. Guraso eta anai-arrebekin beti gaztelaniaz hitz egin du. Bere lehenengo urteetan euskararekin izandako harremana eskolan ikasgai gisa izatera mugatu zen.

—Apenas entzuten nuen euskaraz nire inguruan. Bizilagun bat euskalduna zen eta amarekin euskaraz egiten zuen, baina gero, lagunekin, erdaraz. Institutuan hasi nintzenean euskaldunen eta erdaldunen gelak zeuden. Ikasgai batzuetan elkartzen gintuzten eta orduan eza-gutu nuen zenbait jende euskaldun.

18 urte zituenean, euskaraz buruz ikasitako esaldi apur batzuk baino ez zekizkien eta zaila egiten zitzaion. Kua-drillan ere, laguneren arteko harremana gaztelaniaz zen. Hala ere, bere lagun euskaldunak euren artean euskaraz aditzen zituenean

—Inbidia pasatzen nuen, lagunak elkarren artean euskaraz aritzen ziren eta nik ez nuek tutik ere ulertzen. Kristoren inbidia pasatzen nuen.

Isabelen aldaketarako gakoa denbora gutxian izandako bi gertaera izan ziren. Behin lagun euskaldun batekin ondoko herriko jai batzuetara joan zen. Bertan pertsona bat hurbildu zitzaion eta zerbait euskaraz galdetu zion. Berak ez zion ezer ulertu eta zer erantzun ez zekiela gelditu zen. Ondoan zuen lagunak erantzun zion euskaraz pertsona hari. Aste horretan bertan, egoera bera berriz ere gertatu zitzaion beste herri batean. Pertsona batek euskaraz zerbait galdetu, Isabelek ulertu ez eta ondoan zuen lagun batek erantzun behar izan zuen.

—Sekulako lotsa sentitu nuen. Nire buruari esan nion: “Isabel, hau ez da posible”. Egun horretan bertan erabaki nuen euskara ikasi behar nuela eta euskaltegian hasi nintzen.

Hasiera batean euskara ulertzeko gaitasuna lortzeko helburuarekin herriko euskaltegian bi urte eman zituen ikasten. Ondoren, gehiago ikasi ahal izateko asmoarekin barnetegira joatea erabaki zuen. Lau hilabete egin zituen barnetegian. Hasieran kostatzen ziren zitzaien. Ez zuen inor ezagutzen eta bertako euskalkiarekin buruhausteren bat edo beste izan zuen.

Gaur egun, Isabelek txukun eta aski zuzen hitz egiten du euskaraz. Oraindik ez du euskaldun zahar batek bezain ondo egiten euskaraz, baina ez dio batere garrantzirik ematen horri.

—Norbaitek esaten didanean lotsa ematen diola euskaraz hitz egiteak ez duelako ondo egiten, tontakeria iruditzen zait. Hizkuntzalariek eta akademikoek hitz

egin beharko dute zehatz-mehatz. Osterantzekoek ahal dutena egiten dute, eta horrekin aski da.

Barnetegitik bueltatu zenean, berak nahi baino erdaldunagoa zen herria aurkitu zuen. Kuadrillako lagun batzuekin pixkanaka euskaraz egiten ausartzen hasi zen. Garrantzi berezia izan zuen bere lagun Ainhoak eman zion laguntza. Ikastola bateko irakaslea zen eta ohitura handia zuen beti euskaraz egiteko. Egun batean galdetu zion: “Nahi al duzu nik beti euskaraz egitea?” Isabelek baietz erantzun zion. Handik aurrera Ainhoak beti euskaraz egiten zion, nahiz eta Isabelek hasieran gaztelaniaz ere egiten zion. Denbora batera biak euskara hutsean aritzen ziren.

Hasieran Isabelek gaztelaniaz pentsatzen zuen eta euskarara itzultzen zuen guztia. Egunaren amaieran burua neka-neka eginda amaitzen zuen. Denbora aurrera joan ahala, Isabel konturatu zen euskaraz nahi gabe pentsatzen hasi zela, jadanik ez zuela etengabeko erdaratik euskararako itzulpena egiten. Bereziiki pozgarria izan zen euskaraz amets egiten zuela konturatu zen eguna.

— Gogoratzen naiz nola esnatu nintzen goiz batean eta konturatu nintzen euskaraz egin nuela amets. Sekulakoa izan zen, izugarrizko poza sentitu nuen. Benetan sentrazio berezia izan zen. Euskara nire barruan zegoela konturatu nintzen.

Era berean, hasieran bertso saioetara joaterakoan ondoko lagun batek itzulpenak egiten zizkion, baina bat-batean, egun batean dena ulertzeko gai zela ohartu zen, ez zuela inolako itzulpen laguntzarik behar. Horrek poz handia eman zion Isabeli.

Isabelek sarri esaten du euskara ikastean ez duela hizkuntza bat bakarrik ikasi, baizik eta ezagutzen ez zuen kultura aberats eta handi bat ere ezagutzeko aukera izan duela.

Era horretan, bi kultura, bi mundu ezagutu ahal izan du, gaztelaniazkoa eta euskarazkoa.

—Ez dut esango bat bestea baino hobe denik. Baina biak desberdinak direla bai. Eta biekin bizitzea pribilegio bat da.

Isabelek askotan errepikatzen du Ainhoa lagunaren jokabideak, berari euskaraz etengabe eginez, asko lagundu ziola euskaltegian ikasitakoa praktikan jartzeko eta euskaraz bizitzeko hautua egiteko. Izan ere, badaki aukeratu egin behar dela. Badaki hizkuntzaren inguruko ekimena berea dela interakzio bakoitzean, komunikabide gisa hizkuntzetariko bat finkatzea, dakien beste hizkuntzei uko egin gabe nahi duenean erabiltzeko. Baina kalean, aurkitzen dituen ezezagunekin, hizkuntza bat izan behar du erreferentzia gisa, eta bere hautua euskara da.

—Niretzat normala da. Maiz esaten didate ikusgarria dela egiten dudan hori, sekulako meritua dudala. Hasieran, jendeak egiten nuen esfortzuagatik ni zoriontzak indarra eman zidan hitz egiten jarraitzeko, baina egia esanda oraintxe bertan ez nau batere lagutzen. Txorimaloa banintz bezala sentiarazten nau. Ez da eroso inondik inora, nahiz eta hobe beharrez egiten duten. Izan ere, zuk elkarrizketan zentratu nahi duzu eta ez duzu nahi beti euskarari buruz jarduterik, ezta zergatik hitz egiten duzun hain ederki euskaraz azaltzerik ere. Oraintxe bertan, egin ahal didaten gorespenik handiena da euskaraz normal hitz egitea.

Aitortzen du batzuek balio handia ematen diotela horri eta jarrera horregatik ez dela inoiz iristen euskararen normalizazioa. Harrigarria da nola adierazten duen:

—Nik euskaraz hitz egiten dut euskaldunak gorabehera. Energia handia gastatzen dut euskaraz egin diezadatela eskatzen. Eta hori txundigarria iruditzen zait niri.

Orain, Isabelek ezinbesteko tresna du energia aurrezteko: Euskaraz Bizi Nahi dut dioen txapa, beti bularrean bistan. Horrela, sarritan, ez du euskaraz hitz egiteko eskatu beharrik, azalpenak eman beharrik edo hizkuntzaz aldatu beharrik.

Dena den, ez da beti horrela gertatzen. Bai, zera! Batzuek ez dute txapa ikusi ere egiten, eta badirudi ez direla gai Isabelek zein hizkuntzatan diharduen antzemateko ere. Orain artekoan, horixe izan da gauzarik amorrargarrienetako bat: euskaldun berria dela dakiten euskaldun batzuek behin eta berriz gaztelaniaz egiten diote nahiz eta berak beti-beti euskaraz egin.

—Badirudi benda bat dutela begiak estaltzen. Euskaldun berria naizela ikusi edo sentitu edo jakiten dute-nean, hizkuntzaz aldatzen dute. Behin lan elkarrizketa bat egitera joan nintzen eta bertan zegoen pertsona batekin lasai-lasai ari nintzen euskaraz hitz egiten, eta euskaldun berria nintzela esan nionean, bat-batean gaztelaniaz hitz egiteari ekin zion. Hori zergatik egiten zuen galdetu nion eta erantzun zidan nik ondo ulertzea nahi zuela, eta edukazio kontua zela. Emakume hark ez zuen kontuan hartu 15 minutuz euskaraz jardun genuela inolako oztoporik gabe. Benda jarri zuen begietan eta aurreiritziak pisu handiagoa izan zuen — euskaldun berria da, ez du nau ondo ulertuko— bere esperientziak baino, nahiz eta orduantxe bertan bizi izan esperientzia hura.

Horrelako jarrerekin, Isabel noraezean sentitzera iritsi da. Berarekin horrela jokatu duen jendeak amorrarazi egin izan du batzuetan, euskaltegian euskara ikasten pasatako orduak alferrik izan balira bezala.

—Eta gainera, gauza da pentsatzeko edukazio onekoa dela niri gaztelaniaz egitea neuk berari euskaraz egiten diodanean. Hamaika ikusteko jaiok gara!

Horrelakoetan pentsatzen du euskaraz ongi hitz egiteko ahaleginaz gain, beste ahalegin bat ere egin behar izaten duela bere hizkuntz portaeraren zergatia azaltzeko.

—Ba bai, euskaldun berria naiz eta euskaraz bizitzeko hautua egiten dut. Ez al da, bada, hemengo hizkuntza?

Batzuetan ezin du saihestu eta nolabaiteko suminduraz esaten du hori. Batu duen eskarmentuarekin, bere teoria sortu du euskaldunen hizkuntz erabilerari buruz:

—Euskara etxean egoteko apreta baten modukoa da euskaldun batzuentzat. Kanpora ateratzeko kaleko zapatak janzten dituzte: ez da hain eroso, baina doto-reagoa da.

Isabelek bere gustuko lan atsegin bat lortu zuen. Pozik dago lanarekin eta euskara jakitea ezinbestekoa izan zaio lanerako. Euskaraz jakiteak lan on bat izateko eman dion begi-bistako onuraz gain, bestelako sentsazio positiboak ere iristen zaizkio:

—Duela egun batzuk, lan kontuak zirela eta enpresari batekin harremanetan jarri behar izan nuen. Nolabait esateko, mesede eske ari gintzaizkion. Bera gaztelaniaz hasi zitzaidan, baina euskaraz egitera pasa nintzenean elkarriketaren hasierako hoztasuna bukatu zen eta benetako konfiantza iritsi zen.

Isabel dibanera

Isabelen portaeran, bada nabarmendu nahiko genituzkeen alderdi batzuk:

- a) Isabelek euskara ikasteko motibazioak ez zuen izan oinarri ideologikorik. Euskara ikasi zuen beste batzuei entzutean ezer ez ulertzeak sortzen zion inbidiagatik.

Euskara ikasten hasi zenean ez zen bere asmoa Euskal Herriaren kultura eta tradizioen alde grinatsu borrokatzea. Berak euskaraz entzuten zituenak ulertu nahi zituen, hitz egiten ziotenei erantzuteko gai izan nahi zuen, besterik ez. Azken batean hizkuntza normalizatu bat ikasteari buruz ari bagara ohikoenak izan ohi diren arrazoiengatik ikasi zuen Isabelek euskara, alegia: erabilgarritasuna, prestigioa, hizkuntza horren hiztunekiko hurbiltasun sentimendua edo maitasuna.

- b) Norbaitek euskaraz arrazoi ideologikoak direla medio egiten duela pentsatzea oso tranpa maltzurra da. Euskara hizkuntza folkloriko eta guztiz baztergarria bihurtzea nahi duten pertsona eta erakundeek ideia hori hedatzea ulergarria da. Dena den, ez da hain ulergarria euskarari, dagokion bezala, hizkuntza normalaren estatusa itzultzearen aldekoak ere joko horretan sartzea eta tranpa horretan bete-betean erortzea. Hizkuntza bat sistematikoki aukera politiko edo ideologia jakin batekin lotzen bada, horrekin identifikatzen ez diren hiztun guztiak galduko ditu automatikoki. Gainera, nahiz eta ideologia horretakoak izan, unereren batean hori jendaurrean jakiterik nahi ez duten hiztunak ere galduko ditu. Euskaraz egitea zalantza barik nazionalista (edo independentista, edo anarkista edo sekta bateko kide) izatearekin lotzen bada, eta gaztelaniaz hitz egiteak, berriz, ez badu adskripzio politikoari buruzko batere informaziorik ematen, gaztelania hizkuntza neutrotzat hartuko dugu, eta horrek sekulako indarra emango dio hiztunak irabazteko.
- c) Bigarren alderdia da Isabelek euskaraz egiteagatik jasotzen dituen goraipamenak. Isabelek poz handiak izan

ditu eta oraindik ere jasotzen ditu euskara egin duelako bere harremanetarako lehentasunezko hizkuntza. Gustuko lana dauka, eta bizitza sozial interesgarria du. Bereziki interesgarria da oraindik ere euskaraz egiteagatik jasotzen dituen lausenguei buruz zer esaten duen: «Txorimaloa banintz bezala sentiarazten nau». Egia da sistematikoki portaera bat indartzeak eragin positiboa izan ohi duela portaera geureganatzen ari garenean: ikasketa bultzatu eta erraztu egiten du. Hala ere, portaera finkatuta dagoenean, errefortzu berarekin jarraitzeak gogait eginarazten du eta berehala eragin kaltegarria izatera ere pasa liteke.

Errefortzuak beti onuragarriak dira portaerarako, baina ez beti errefortzu mota bera denean. Gaur egun, euskara ikasi eta maila onarekin hitz egiten dutenek ziur aski nahiago dute gizakiok ezagutzen dugun errefortzurik indartsuena jasotzea: arreta. Beraiei entzuten gaudenean, ez baditugu eteten (asmo oneko zerbait esanez bada ere, adibidez: «Aizu, ederki egiten duzu euskaraz, ezta?»), eta normal hitz egiten badiegu, pertsona bitxi gisa sentiarazi gabe, orduan euren jokabiderako sari egokia ematen jardungo dugu, eta horrenbestez portaera horri eusteko aukerak handituko ditugu.

Isabelentzako autolaguntza fitxa

Dirudienez, Isabelek ez du behar laguntza askorik etxean edo eskolan euskara ikasi duten hiztun gehienek baino hizkuntza portaera dezente sendoagoa edukitzeko. Dena den, gaur egun deserosotasuna eragiten dioten hiru egoera azter ditzakegu, eta hobeto senti dadin estrategia batzuk proposatzen saiatu.

Lehen egoera: euskaraz egiteagatik laudorioak jasotzea

Isabel deseroso sentitzen da goraipamen horiek arreta handiegia jartzen diotelako berak euskaraz egiteari, eta, horrenbestez, ez berak komunikatu nahi duen edukiari. Seguruenik, konponbiderik arinena da komentarioengatik eskerrak esplizituki ematea, horrelakoren bat esanda irribarre batekin batera: «Eskerrik asko. Estimatusa dago». Berehalaxe hasierako gaira itzuliko ginateteke.

Sarritan, zerbait ez dugunean atsegin, aintzat ez hartzen saiatzen gara. Eta horrek ez du funtzionatzen. Kasu honetan, laudorioa ez badugu aintzat hartzen, agian solaskideak pentsatuko du ez diogula entzun eta ahal duenean berriro errepikatuko digu. Eskerrak emanez gero, entzun diogula eta onartzen dugula adierazten diogu, eta gainera, beste gai bati buruz hitz egin nahi dugula. Egoera gehienetan, gure ustez, nahikoa izango da estrategia hori deserosotasuna konpondu eta gustura geratzeko.

Bigarren egoera: gaztelaniaz hitz egitea euskaraz badakitenek

Kasu honetan erabiliko dugun estrategia izango da deserosotasuna kanporatzea. Ez dugu ahaztu behar horrela jokatzen dutenek ez dutela egiten Isabeli irain egiteko edo kalte egiteko. Garunean tinko oinarrituta duten sinesmen, aurreiritzi eta automatismo multzo baten ondorioz egiten dute. Berak dioen bezala, hain dira sendoak oinarriok ezen euren uneko esperientziak baino indar handiagoa baitute. Gainera, gaztelaniara aldarazten dituzte, nahiz eta segundo batzuk lehenago euskaraz hitz egiten egon pertsona horrekin elkar ulertzeko inolako zailtasunik gabe.

Solaskideak eten bat egin arte itxaron eta orduan horrelako zerbait esan dezake Isabelek: «Gaztelaniaz badakit, baina askoz ere erosoago sentitzen naiz euskaraz hitz egiten badidazu. Egingo zenuke ahalegina, mesedez, niri euskaraz hitz egiteko?». Garrantzitsua da adeitsu eta ironiarik edo erresuminik gabe esatea. Eta ez da zaila hala egitea. Agian, ispilu aurrean praktika pixka bat besterik ez da behar. Esaldi horrekin (edo antzekoren batekin) Isabelek ondorengo ideiak adieraziko ditu:

- a) Bestearen jokabidea onartzen duela: «Gaztelaniaz badakit».
- b) Nahiago duela euskaraz komunikatzea: «...askoz ere erosoago sentitzen naiz...»
- c) Bestearentzat ahalegin berezia izan daitekeela ulertzen duela: «Egingo zenuke ahalegina, mesedez...»

Horrelako eskaera baten ondoren, agian solaskideak azalpen mordoxka emango du hizkuntzaz zergatik aldatu duen justifikatzera bideratuak. Kasu horretan Isabeli gomendatuko genioke lehen egoerarako diseinatu dugunaren antzeko estrategia erabil dezala: komentario estandar bat prestatu lehenbailehen onartzeko bestearen azalpena («Ulertzen dut, jende askori gertatzen zaio»), eta beste gai batera pasatzea, bien arteko komunikazio normaleko hizkuntza berreskuratu eta gero.

Hirugarren egoera: euskaraz egiten duelako harritzea

Isabelek dio horrek sumindu egiten duela, denoi gertatzen zaigun bezala, gauza bera behin eta berriro errepikatu beharrean ikusten dugunean geure burua. Jendeari bitxia iruditzen zaio, ez baita estatistikoki jokabide normala. Ez da euskara helduaroan ikasi duten gehienek egiten duten zerbait. Beraz, ulergarria da jendearentzat harrigarria gerta-

tzea. Hala eta guztiz ere, deseroso sentitzen da bere jokabidea justifikatzeko eskatzen diotela interpretatzen duelako. Gainera —eta horixe da garrantzitsuena—, berak uste du justifikatu egin beharra daukala.

Errepikatzen diren egoerei aurre egiteko hobe da sumindura bezain desatseginak ez diren emozioa edo emozioak erabiltzea. Horregatik, berriro ere gomendatu behar dugu erantzun estandar eta formalki zuzena den bat prest izatea, elkarrizketa ez dadin bidezidor horietatik joan. Ikasitako esaldi bat errepikatzen dugunean, errutinaz beteak, kontentagaitzak edo aspergarriak garela erakuts dezakegu, baina inondik inora ere ez haserre gaudela. Honen antzeko esaldiren bat erabil daiteke: «Bai, asko interesatu zitzaidan euskara eta ikasi egin nuen. Orain, atsegin dut praktikatu ahal izatea... ondo iruditzen bazaizue».

Eztabaidagarriak ez diren azalpenak erabilia (interesatzen zait, atsegin dut, Isabelek desaktibatu egin ahal izango du —kasu askotan— gai horren jarraipena izan daitekeena, alegia, hizkuntza ikasteko zein arrazoi izan duen. Berak ere esaten du eta norberak nahiago duen zerbait balitz bezala aurkeztuz gero, ez dago ezer eztabaidatzeko. Beste alde batetik, hizkuntza praktikatzen jarraitu ahal izateko baimena esplizituki eskatzeak («ondo iruditzen bazaizue»), erraztu egingo du Isabelek euskaraz egitea hizkuntza horretan egiten ez duten solaskideei ere.

Azkenik, Isabelek bere esaldia esaterakoan aditzera ematen badu gai horrek ez duela interes berezirik berarentzat (hitzezkoa ez den komunikazioaren bidez), horrek ere lagunduko du —seguruenik— elkarrizketa beste gai batzuetan zentratzen.

Isabelentzako errezeta

1. Prestatu esaldi estandarrak automatikoki erantzuteko desatseginak edo deserosoak egiten zaizkizun komentarioei.
2. Erabili beti argudio erabat subjektiboak euskaraz hitz egiten duzula azaltzeko.
3. Hitzekoa ez den komunikazioa erabili gaiz aldatzea errazteko traba egiten dizuten goraiamenak jasotzen dituzunean.

5 Paula, katalana

«...euskaldun asko ezagutzen ditut
euskara oso gutxi erabiltzen dutenez
ez dakitela ondo hitz egiten sentitzen
dutenak. Gidatzeko baimena tiraderan
laga eta sekula kotxerik ez hartzea
bezalakoxea da hori».

Paula Ribés emakume katalana da, itxura atletikoa duena eta irribarre errazekoa; 38 urte ditu. Duela bost urte bizilekuz aldatu zuen. Urtebete lehenago bazekien aldaketa zetorrela eta bizitoki berriko berezko hizkuntza ikastea erabaki zuen. Horretarako bere hiriko Euskal Etxean ematen ziren euskarazko eskoletara joaten hasi zen. Ekina eta egoskorra denez, Hernanira iritsi zenerako bazekien euskaraz, nahiz eta, artean, akats handiak egin. Hala eta guztiz ere, hizkuntza hori erabili ohi zuen hasten zituen interakzio pertsonal guztietan. Aurretik ere bazuenez eskarmentua beste hizkuntza batzuk ikasten (gaztelania, ingelesa eta frantsesa), egoera ez zitzaion batere arrotza egiten eta erraz gainditzen zuen hizkuntza berria ikasten ari direnen hasierako lotsa. Agian interesgarriena da, jatorrizko euskaldun gehienek ez bezala, berak ez zeukala inolako deserosotasunik euskaraz hitz egiterakoan, kontuan hartu gabe solaskideak hizkuntza horretan egiten zion ala ez.

Denborarekin bere euskarak nabarmen egin du hobera. Sarritan esaten diote Paulari oso euskara zuzena hitz egiten duela (akademikoa balitz bezala, esaten diote), eta katalana dela eta duela gutxi bizi dela Hernanin jakiten dutenean, hizkuntza ikasteko zein metodo erabiltzen duen galdetzen diote. Honela azaltzen du berak:

Atzo bertan, auzoko batek gogotsu galdetu zidan nola ikasi nuen hain euskara perfektua. Ikastaro bereziren batera joan nintzela edo metodo oso eraginkorren bat jarraitu nuela uste zuen. Ez dut uste nire euskara hain perfektua denik, baina gauza batean ados nengoen berarekin, metodoa oso eraginkorra baita: hitz egitea, beti euskaraz hitz egitea. Horixe izan da, eta oraindik ere horixe da nire metodoa. Gero pentsatu nuen: hizkuntza bat jakitea gidatzen jakitearen parekoa balitz, esperientzia orduak gidari ona izateko duten eragina ondo hitz egiteko dutenaren parekoa da. Jakina, euskaldun asko ezagutzen ditut euskara oso gutxi erabiltzen dutenez ez dakitela ondo hitz egiten sentitzen dutenak. Gidatzeko baimena tiraderan laga eta sekula kotxerik ez hartzea bezalakoxea da hori.

Hasieratik harrigarri samarra egiten zitzaion euskaldun askok zalantzan jartzea bere hizkuntzaren erabilgarritasuna. Zeharo aurka jarri gabe ere, jende asko ikusi du Paulak zalantzan jartzen zuena benetan zertarako balio ote zuen euskara ikasteak. Entzun dezagun, dena den, bere ikuspuntua:

Beste hizkuntza batzuk ikasi ditut. Askok erakartzen nauen jakintza mota da. Dena den, guztietatik inolako zalantza gabe euskara egin zait orain arte erabilgarriena. Neure lanagatik bidaia asko egiten dudanez, berehalaxe konturatu nintzen euskaraz ikastea oso erabilgarria egin zitzaidala: Hernanin izan, Ondarroara iritsi edo Aramaiora joan, hizkuntza berak balio zidan harrera ona izateko.

Kanpotarrek euskara bere egiten dutenean alderdi oso interesgarria da horrek beste hiztunengan duen eragina.

Hernanin bizi izan nintzen lehen hilabeteetan, txokea etengabea zen eta pasadizoak, mordoak. Batzuetan euren artean gaztelaniaz egin ohi zuten taldeek, ni tartean nintzela euskarara aldatzen zuten, edo gutxienez elkarrizketa elebidunak izaten zituzten. Azalpena taldekideek eurek ematen zuten. Lotsagarria iruditzen zitzaien kanpotar bat izatea euskaraz egiten zuen bakarra. Niri harrigarri samarra egiten zitzaidan eta berehalaxe amets egin nuen oso ahalegin txikiarekin aldaketa iraultzailea lortu ahal izango zela euskararen erabileran. Gero konturatu nintzen, ordea, nire baikortasuna batzuetan gehiegizkoa dela.

Izan ere, kokaleku horrek, etorri berriarenak, indar handia du, Paulak kontatzen duen pasadizo honek oso ondo erakusten duenez.

Bizikleta tailerreko mutilarekin ari nintzen hizketan. Mutilak beti gaztelaniaz egiten du. Orduan, bere aita etorri zen. Nik euskaraz egiten jarraitzen nuela ikusita, semeari galdetu zion zergatik ez zidan berak ere hizkuntza horretan egiten. Semeak erantzun zion ea zergatik ez zuen aitak berak euskaraz egiten.

—Hombre, es que yo soy de Albacete. ¡Tú eres el que ha nacido aquí!

Nik esan nion neu ere kanpotarra nintzela.

—Ya, pero llevarás muchos años aquí... ¡y lo habrás estudiado en la escuela!

—Urtebete da Hernanin bizi naizela, eta ez, ezin izan dut eskolan ikasi, Bartzelonan ez baita euskararik irakasten.

Harrituta geratu zen gizona eta hizkuntzetarako daukadan erraztasunari buruzko laudorioren bat bota eta gero berehalaxe argi utzi nahi izan zuen berak euskara pixka bat ulertzen zuela, baina hitz egiteko gai ez zela, lotsa ematen ziola zekien apurra erabiltzea eta guztiak gaztelaniaz egiten ziotela berari. Hori bai, seme-alabek oso ondo zekitelako euskaraz.

Hizkuntza geroztik bere egin izanak kalitate berezia ematen dio Paulari, nabarmendu egiten baitu hainbat posizioen ahultasuna, alegia, egoera erabat inposatzaileen ondorio diren hizkuntz pribilegioetan oinarritzen direnak, elabakarrek batez ere oso erosoak zaizkielako mantentzen dituztenak. Finean, gutariko edonor beste herrialde batera joaten bada bizi izatera, adibidez, Alemaniara, eta jende guztiak euskaraz egiten badio, ulergarria da askok ez lukeela egingo alemana ikasteko ahaleginik.

Hala ere, Paularen bizipenetako batzuk ez dira hain positiboak ere. Hasteko, hizkuntz gaitasuna lortzeari dagokionez, zeharo normalizatuta dagoen hizkuntza ikasten ari denak behin eta berriz erabilera zuzeneko adibideak aurkitzen ditu, baina euskararekin guztiz desberdina da egoera. Horrela adierazten du berak:

Euskara ikasteko, hasiera-hasieratik nire mutil-lagunaren laguntza izan nuen. Bera metodikoa izan zen, eta une batetik aurrera euskaraz hitz egiten hasiko ginela erabaki genuen (gaztelaniaz ezagutu genuen elkar eta hori izan zen gure arteko komunikazio hizkuntza harremaneko lehen hiru urteetan). Progresioa erabili zuen zuzenketetan. Hasieran soilik oso akats handiak zuzendu zizkidan eta hiztegi dosi txikiak ematen joan zitzaidan. Egoera, hasieran, estralurtar samarra zen. Izan ere, hitzen % 80 gaztelaniaz esaten nituen, baina poliki-poliki eta pazientziaz, konpontzen joan zen eta

zuzenketa progresiboaren metodoa aditz trantsitibo eta intrantsitiboen basamortutik igaro zen, nor-norinork eta nor-nork aditz laguntzaileen mendilerroetan eta haranetan gora igo zen, eta oraindik ere hor dabil baldintza eta subjuntiboen gailur ia atzemanezinera iritsi ezinda. Hori ere iritsiko da; hala espero dugu, behintzat. Denborarekin, hizkuntz akatsen detektagailu bat instalatu zitzaidan burmuinean. Akats bat egin orduko, neuk zuzentzen nuen, ahots goraz. Zoritxarrez, detektagailu hori aktibatu egiten zitzaidan beste norbaitek akatsen bat egiten zuenean ere, eta batzuetan desatsegina izatera ere iristen zen. Adibidez, kalean norbaitekin hitz egiterakoan, «ikusi nizun» esaten duenean «ikusi zintudan» esan beharrean edo «Iñakiren zorionak dira» esaten dutenean «Iñakiren urtebetetzea da» esan ordez. Zaila da liburuetan ikasten duzuna gogoratzea, egunero beste nolabait entzuten duzunean.

Agian hizkuntzaren normaltasun ezak (edo horrek ere bai, behintzat) filologo amateurren herri bihurtzen gaitu. Ezaugarri hori harrigarri egiten zaie gurera iritsi berriei sarritan.

Harrigarria egiten zitzaidan, eta oraindik ere hala gertatzen zait, edozein tokitako lagunak edo ezagunak aurkitutakoan hizkuntzari buruzko elkarrizketak aurkitzea beti, edozein izanda ere geure arteko harremana. Sarritan entzun ditut mota askotako euskaldunak iritzia emanez euskararen konplexutasunaz, euskalkien eta euskara batuaren arteko harremanaz, Euskaltzaindiaren arauen “aldaketa etengabeaz”, filologo adituak bailitza:

—Euskaltzaindikoek arauak urtero aldatzen dituzte eta ez dago jakiterik ondo ari zaren edo ez!

—Zuk eitten dozun euskara batua, hori bai garbia. Euskalkixan berba eitten dounok aldiz txarto hitz eitten dou!

— Euskaraz ikasi? Zuk bai meritua! Oso zaila da euskara ikastea!

Beste alde batetik, denbora pasa ahala, Paula konturatzen da euskarari buruz dituen pertzepzioek gero eta antz handiagoa dutela euskaldun “zaharrek” dituztenekin. Poliki-poliki, inguruak bere eragina du eta egoeraren arabera deseroso sentitzen hasi da euskaraz egiterakoan.

Hasieran, ez zuen batere deserosotasunik sentitzen. Seguruenik horrek bere hizkuntz jarrera oso sendoa egiten zuen. Dagoeneko, badira bost urte Euskal Herrian bizi dela eta astia izan du hurbil-hurbiletik ikasteko hizkuntza gutxitu bat ikasteak kostu erantsia duela. Hala eta guztiz ere, Paularen hizkuntz portaera oso sendoa dela esan dezakegu; ahal duen guztietan euskaraz egiten du eta, oro har, oso eroso sentitzen da.

Zein egoerak sentiarazten du orain deseroso?

Bere hitzetan emango dugun ondorengo kontakizunean oso ondo ikusten da zeintzuk diren hizkuntza gutxiagotua izateak portaeran dituen ondorioak, eta nola orokortzen diren portaera horiek antzeko egoeretara.

Kataluniara joan nintzen batean bizi nuen egoera batek oso kontziente egin ninduen hizkuntza gutxiagotu batean hitz egiten jarraitzeak dituen konnotazioak ikasi ditudala, nahi gabe izanda ere.

Hernanira itzultzerakoan, Bartzelonako El Prat aireportuko tabernara joan nintzen zerbait hartzera hegazkinaren zain nengoela. Lokala bete-bete eginda zegoen eta kosta egiten zen eskatzea tabernariak lanpetuta zebiltzalako. Azkenean zerbitzari baten arreta lortu nuen eta nireganantz etorri zenean, dardarka hasi nintzen. Banekien zergatik. Eskatu nuen:

—Un café amb llet i una cervesa, si us plau (Kafesnea eta garagardo bat mesedez).

—¡Uy! Así vamos mal. Si no me hablas en castellano no nos entenderemos —erantzun zidan umore txarrez. Harrigarriena aurretik izan nuen erreakzioa iruditu zitzaidan: urduri, prebentzio pentsamenduak («beti berdin!») eta zurruntasuna. Imajinatzen dut nire erreakzioa ez zitzaiola oharkabean igaroko zerbitzariari, eta seguruenik horrek ahulago egingo ninduen bere begien aurrean.

Zer nahi nuen gaztelaniara itzuli eta ekarri ondoren, hau izan zen nire hurrengo esaldia:

—Y ahora tráeme una hoja de reclamaciones, por favor. Bada bai, gatazka aurreikusteagatiko beldurra ikasia nuen. A zer lastima!

Etsipen sentsazio sakon bat utzi zidan bizipenak. Konturatu nintzen ez zela ea irabazle nor suertatzen den ikusteko borroka bat. Bera oso urduri jarri zen eta arduraduna bidali zidan, zeharka begiratzen zidan bitartean, nire erreakzioaren zain. Dena den, ni oso triste geratu nintzen. Oso etsigarria da hizkuntza bat hitz egiteagatik (lurrealde horretako hizkuntza ofiziala izanda ere) edukazio gutxirekin eta mespretxuz tratatzen zaituztela ikustea. Sutan jartzen nau horrek eta oso tristea da. Kontua ez da norberak handiagoa itzultzea, baina gure aldetik ezin da zalantza izpirik ere geratu legeak uzten digun azken muturreraino iristeko. Eta gutxienez bidegabekeria salatu egin behar da.

Erreklamazio orrian ez nuen azpimarratu gatazkaren hizkuntz izaera. Kafetegiko langile batek bezeroari emandako arreta gabezia gisa deskribatu nuen. Nire ustez horixe da enpresek ulertzeko moduko hizkuntza, eta ulertu behar dute hizkuntzaren aldetik bezeroa nahigabetzea ere gaizki tratatzea dela. Ziur nago, inge-

lesez hitz egin izan banu, askoz ere ahalegin handiagoa egingo zutela niri arreta emateko. Argi utzi nahi nuen zerbitzariak arazo bat zeukala, baina argi eta garbi konaturatu nintzen neuk ere baneukala beste bat.

Sarritan, horrelakoak gertatzen zaizkigunean ez gara bakarrik egoten. Dena den, ez da arraroa lagunek ere geure aurka egitea.

Txarren-txarrena nire lagunaren jarrera izan zen. Hasieratik neu baino urduriago eta asaldatuago jarri zen. Nik kasurik egin ez nezan saiatu zen, eta zerbitzariaren alde jartzera iritsi zen («Koitadua! Soldata miserablea ordainduko diote eta bere herrialdetik alde egin behar izango zuen... Zer kostatzen zaizu, bada, gaztelaniaz esatea?»). Nik uste dut bere erreakzioak asko eragin zidala eta askoz ere deserosoago sentiarazi ninduela. Nire alde jarri beharrean, bere laguna izanda eta biok hizkuntza bera hitz eginda, Katalunian katalanez egin nuelako errudun sentiarazi nahi ninduen! Egun hartan ikasi nuen oraindik ere lan handia dudala egiteko.

Paula dibanera

Paula Hernanira iritsi zenean, ikasi duen beste edozein hizkuntza bezala hitz egiten zuen euskaraz. Hitz egiten den herritik kanpora ikasi duenez, ez du izan txikitako ikasketarik (gurasoek nola egiten duten ikusi, euskaraz egiteagatik zuzenketak edo errietak izan...). Hasierako ikasketa horiek asko baldintzatzen dute jaiotzezko hiztunek nola erabiltzen duten hizkuntza.

Teknikoki esan dezakegu Paulak euskaraz egiten duenean errefortzuak lortzea dela nagusi. Batez ere, pozak lortzen ditu euskaraz egitearen ondorioz, barnekoak (gaitasun

pertzepzioagatik) eta beste batzuek emanak (onarpena, laudorioak, miresmena...).

Horregatik, hasieran, naturaltasunez hitz egiten du batere deserosotasunik sentitu gabe. Gainera, agian horrexegatik aurkitzen ditu egoera zail edo gatazkatsu gutxi. Bere naturaltasuna kutsatu egiten da nolabait eta solaskideen enpatia, laguntza eta hizkuntz konbergentzia ere bultzatzen ditu. Gainera, seguruenik kanpotarra izateak desaktibatu egiten ditu bertako hitzunek pairatzen dituzten erantzunik ohikoenak.

Adibidez, berak euskaraz egin duen eskari bati norbaitek «Es que yo no soy de aquí» esaten badio, berak lasai asko erantzun dezake «Yo tampoco». Paradoxikoki, badirudi horrek bidezkoagoa egiten duela bere hizkuntz aukera eta —batez ere— bestearen aitzakia desaktibatzen du, modu oso ahaltsuan, nahiko gezur nabarmena baitu oinarritzat: hitz egiten dugun hizkuntza jaioterriaren araberakoa dela eta ez bizitokiaren araberakoa.

Ikuspegi psikologikotik, kasu hau oso interesgarria da, denbora pasa ahala Paulak euskara familiako hizkuntza gisa izan dutenen ohiko inhibizio eta beldur batzuk hartzen joan baita.

Komunikazio hizkuntza gisa sistematikoki euskara erabiltzeko ohitura du eta bere borondatez hartu du ohitura hori. Horrek poz handiak eman dizkio, baina komunikazio zailtasun batzuk eta gatazka egoerak ere ekarri dizkio. Horrenbestez, testuinguru batzuetan euskaraz egiteak halako deserosotasun maila bat eragiten dio. Honela kontatzen du berak:

Nire burmuinean poliki-poliki prebentzio portaera bat ezartzen ari da. Egoera zailen bat izateak edo

beste batzuen bidez hala bizi izanak, espontaneotasun pixka bat kendu dit. Asko sentitzen dut, izan ere nire espontaneotasunak ustekabeen harrapatzen zituen hizkuntzaren alorrean mugigaitzak diren solaskide batzuk, eta sarritan elkarrizketak erraz eta epaiketarik gabe igarotzen ziren. Orain ere itxura bera ematen saiatzen naiz, baina itxurakeria besterik ez da. Ahalegina eskatzen dit.

Ahalegina da, hain zuzen ere, naturaltasunaren eta hizkuntzari eustearen aurka doazen faktoreetariko bat, nekea eta akidura eragiten baitu. Eta nekea oso zigor primarioa da, eta, beraz, oso eraginkorra portaera hori murrizteko orduan, eskema honi jarriki:

Ahalegina > Nekea > Zigorra > Portaera murriztea

Batuetan prozesua desberdina izaten da, ez baikara makinak. Eta eskerrak hala den. Kontua da posible dela egiten dugun ahalegin hori interpretatzea ez neke gisa, baizik eta erronkak bilatze eta arrakastak lortze gisa. Horixe egiten dute norgehiagoketan ari diren kirolariek. Norghegiagokak ere ahalegin handia eskatzen du eta nekagarria da, baina kirolariek saihestu egin beharrean interes handia izaten dute eta ahal duten guztietan hartzen dute parte. Horrenbestez, zigorra izan behar zena errefortzu garrantzitsu bihurtzen da. Hala, aurreko eskema aldatu eta beste hau sortuko litzateke:

Ahalegina > Erronka pertzepzioa >
Arrakasta (Errefortzua) > Portaera handitzea

Beste alde batetik, aireportuan bizi izandako gatazka egoerari dagokionez, ikus dezakegu tabernariaren erantzuna zigor

moduko bat dela, Paulari sentsazio desatsegina eragiten baitio.

Eman duen erantzunarekin («Así vamos mal», bere baitan Paulak eskatzen diona ez ateratzeko mehatxu eta guzti), katalanez egiteko portaera desaktibatu nahi du tabernariak. Paularen erantzuna nahiko pragmatikoa da: gaztelaniaz eskatu du (tabernariak behartu duen moduan), eta gero erreklamazio orria eskatu du. Azken hori ere zigor mota bat da, eta hala hurrengoan agian tabernariak ez du horrela jokatu.

Esan behar da hori ez dela nahitaez horrela ez Paularen kasuan, ez tabernariarenean. Zorionez, gizakiok asko egokitu ditzakegu jasotzen dugun estimulazioaren ondorioak. Horregatik agian Paulak ez du atzerapauso bat ere egingo dakizkien hizkuntza gutxituen erabileran, izan ere egoera berrinterpretatu egin dezake eta arrakasta moduan bizi (eta, beraz, errefortzu gisa), baldin eta pentsatzen badu bere portaerarekin ekarpena egin diola berak asko baloratzen duen helbururen bati.

Beste alde batetik, tabernariaren kasuan zigor diferitu mota bat da, izan ere ondorioak gerora ikusiko dira (seguruenik, negoziaren arduradunak kexaren berri jasotzen duenean). Ondorioak, beraz, arduradunak ematen duen erantzunaren araberakoak izango dira batez ere. Adibidez, tabernariaren alde jartzen bada eta bezeroaren portaera ez dela egokia izan erabakitzen badu, zigorraren eragina txikiagoa izango da.

Dena den, argi utzi behar dugu inoiz ez direla alferrikakoak izaten portaera baten ondorioak. Egokituta edo egokitu gabe, beti dute eraginen bat jasan dituenaren etorkizuneko portaeran.

Paula: autolaguntza fitxa

Egia esan, Paulak nahikoa hizkuntz portaera asertiboa du dagoeneko. Seguruenik, hiztun gehienek baino euskararen erabilera maila handiagoa du. Nola edo hala hobetu ahal badu, euskaraz egiten duenean erosoago sentitzen izan daiteke. Kasu honetan, esan dezakegu berriro ere hasieran bezain eroso sentitzea izango litzatekeela helburua. Begibistakoa da ezin dugula albo batera laga geure eskarmentua eta horren ondorioz ikasten duguna. Dena den, beste modu batera berrinterpretatu dezakegu.

Geure buruari beste nolabait azal diezazkiokegu gertatzen zaizkigunak, gustura geratzeko aukera gehiago izateko moduan. Beraz, Paulak konplexurik gabeko bere hizkuntza portaera erosoari eusteko dituen aukerak batez ere bizi dituen egoerak jolas testuinguruan (kirol modura esan dezakegu) interpretatzeko gaitasunean datza. Horrela, egoera horietan bere gaitasunak praktikan jarri ahal izango ditu eta arrakastak lortzeko aukera izango du.

Egoerak gatazka edo zailtasun gisa hartu beharrean jolas moduan hartzeak bidea ematen du horri aurre egiteko behar den ahalegina norberarentzat atsegin iturri izan dadin eta, horrenbestez, eraldatzaile izan dadin zigorra izan orde. Eta badakigu indartzen gaituzten portaerek aukera handiagoa dutela etorkizunean errepikatzeko.

Aireportuko pasadizoaren inguruan bereziki interesgarria da Paularen lagunaren portaera. Erreakzio hori sarritan gertatzen da hizkuntzari eusten ez diotenen artean. Besteren batek hizkuntzari eustekak deseroso sentiarazten ditu eta horrek maiz eramaten ditu alderdi indartsuenaren alde egitera.

Zerbitzariaren posizioa ez dela indartsuena eman dezake, baina benetan, bada. Langile gisa bezero baten aurrean dago, eta horrek, teorikoki, mendekotasuna ematen dio. Dena den, hizkuntza nagusiaren hiztuna den aldetik, egoera indartsuagoa dauka. Azken finean, legeek ere arrazoa emango lio-kete. Izan ere, katalanez hitz egiteko eskubidea legez onar-tuta dago, baina legeek ez dute jasotzen katalanez egiten duenari ulertzeko betebeharra eta, horrenbestez, hizkuntz eskubide hori nominala da, ez baita iristen efektiboa izatera.

Erantzun honetatik nabarmendu behar da, dirudienez, Paula ez zela gustura geratu. Horixe da irizpide nagusia erabakitzerakoan ea hurrengorako antzeko gertakizuneta-rako bestelako baliabideak garatu behar diren, beste nolabait erreakzionatu ahal izan dezagun.

Hasteko, pentsa dezakegu ea gure aldetik nolako jarrerak eta erantzunak komeni zaizkigun hurrengo batean horrelako zerbait gertatzen zaigunean gusturago geratzeko. Sarritan, aurkitzen ditugun egoera zailak ez dira hain desberdinak bata bestearengandik. Horrela, bizi berri dugun egoera beraren aurrean hobeto erreakzionatzeko prestatzen gara eta hurrengoan gertatzen zaizkigunetarako ere balio izango digu.

Paulak bere buruari egin ahal dizkion galdera gakoak hauek izan litezke, gutxi gorabehera:

- a) Nola gustatuko litzaidake erreakzionatzea?
- b) Nola gustatuko litzaidake agertzea neure burua?
- c) Zer gustatuko zitzaidan esan eta egitea?

- a) Seguruena, onar dezakegu Paulak nahiago izango zukeela lasaiago agertzea, umore txarreko samar izanda ere. Bezero izateak, printzipioz, aukera hori

erraztu beharko lioke. Bere aurreko erreakzioa, berak urduri eta prebentzio pentsamenduz betetako gisa deskribatzen duena, ekiditen zaila da —seguruenik— egoerak prestatu gabe harrapatzen gaituenean. Egoera espero badugu, berriz, askoz ere bideragarriagoa da guztiz bestelako jarrera bat izatea.

b) eta c) Nolabaiteko sorpresa erakuts zezakeen, hasteko. Hori hitzezkoa ez den komunikazio maila batean adierazten da bekainak jaso, begiak zabaldu eta burua tente jarritz, agian irribarre txiki batekin batera. Jarraian tonu didaktiko batean —irribarre egiteari utzi gabe— tabernariari azal diezaioke:

—«Cafê amb llet» es café con leche; «una cervesa» es una cerveza y «si us plau» significa por favor. («Cafê amb llet » kafesnea da; «una cervesa» garagardo bat da eta «si us plau» mesedez esan nahi du).

Jarraian, tabernariaren konfirmazioa espero dezake (seguruenik, ez hitzezkoa: buruarekin baiezkoa ematea edo ulertu duelako beste zantzuren bat), eta gero arreta egiteari laga. Seguru asko, horrela erosoago sentituko litzateke bere buruarekin, tabernariarekin eta bere lagunarekin. Gainera, horrek guztiak ez du esan nahi, inondik inora, ezin denik edukazio osoz erreklamazio orria eskatu alde egin aurretik, idatziz jasota gera dadin ez diotela behar bezalako arreta eman.

Nabarmenezkoa da proposatzen dugun portaerak gaztelaniaz hitz egitea eskatzen duela. Ondorioz, solaskide guztientzat sortuko liratekeen sentsazioak oso desberdinak izango lirateke Paulak azaldu duen benetako egoeran gertatutakoekin alderatuz gero.

Bereziki, oso desberdinak dira berarentzako ondorioak, eta hori da garrantzitsuena kasu honetan. Bere onetik aterata eta deseroso sentitu ordez, gure proposamenarekin seguruenik

askoz ere gusturago alde egin ahal izango zuen tabernatik, honako arrazoi hauengatik:

- a) zailtasuna dotoreziaz gaintitu du eta ahultasunik erakutsi gabe, eta
- b) bere kexa plazaratu ahal izan du tabernan berarekin zegoen lagunari elkarrekin pasa duten tarteaz izorratu gabe.

Oro har, egoera estresagarriari aurre egiteko, arazoa konpontzean gehiago oinarritutako estrategia gomendatu ahal diogu, agian horrela emozionalki distantzia handiagoa jarriko bailuke. Oraintxe bertan, kontuan izanda jaiotzeko euskaldunen hainbat muga bereganatu dituela, orientazio hori abantaila txikia izan daiteke Paularentzat, eta Hernanira iritsi zenean zeukan ‘naturaltasuna’ berreskuratzeko bidea eman diezaioke.

Laburbilduz: Paularentzako errezeta

Dagoeneko euskaldun “zaharren” mugetariko batzuk zeureganatu dituzunez, saiatu konponbidean gehiago oinarritutako estrategiak hartzen Hernanira iritsi zineneko zeneukan naturaltasuna berreskuratzeko.

Saiatu teknika desberdinekin, jolas modura hartu ahal izateko. Horrela oso distantzia osasungarria lortuko duzu, eta horrek zure jarrera sendotuko du.

6 Nerea, hiztun militantea

«Alde batetik Gernikako Arbola baino euskaldunagoak izan nahi dute, eta beste alde batetik, beti eta edozeinekin gaztelaniaz hitz egin besterik ez dute egiten. Horrela ez goaz inora!»

Nerea Eizmendi Euskara Zerbitzuan ari da lanean bere herrian, Durangon. Euskal Filologia ikasi zuen. AEKn irakasle aritu zen hainbat urtez oposizioak prestatzen zituen bitartean. Gustuko du egiten duena; zalantza barik bere burua bokaziozko langiletzat dauka. Gustukoa zuen hasieran lanaren zatirik handiena itzulpenak eta zuzenketa egitea zenean, eta gustuko du orain batez ere hizkuntz dinamizatzaile gisa ari den honetan ere. Bokaziodun beste profesional askok egiten duen moduan, Nereak ere lana etxera eramaten duela esan dezakegu. Izan ere, lanorduz kanpo ere sarri kezkatzen da bere hizkuntzaren egoeratik.

Badaki jakin 80ko hamarkadan prozesu normalizatzailea hasi zenetik gauza asko hobetu egin direla. Hala gertatu da irakaskuntzan, errotulazio publiko eta pribatuan, euskal prentsa, irrati eta telebistan, eta hizkuntzaren ikusgarritasunarekin lotutako beste alderdi askotan ere. Hala eta guztiz ere, badaki zein den hizkuntzaren benetako egoera Durangon. Badaki —nonahi bezalaxe—euskaraz batere jakin

barik ere bizi ahal dela bertan, eta hori ia ezinezkoa dela gaztelaniaz jakin barik.

Nerearen ustez, berriz, ez dira etorkinak —oraingoak edo lehenagokoak—euskararen prekariedade horren errudunak, beste batzuek esaten duten moduan.

—Badira hogeita hamar urte hemen bizi direla eta oraindik ez dira gauza ezta «Egun on» esateko ere. Azentu andaluzak ere ez dute galtzen!

Hori entzuten duenean, Nereak beti pentsatzen du (nahiz eta ia sekula ez duen esaten): «Eta zuk, zer egiten duzu, bada, ez dadin hori gertatu? zein hizkuntzatan hitz egiten diezu?». Izan ere —hizkuntz paisaiaren behatzailea izaki—, sarri askotan ikusi du hizkuntzaren eguneroko erabileran daudela hutsune nagusiak. Kanean belarria erne izanda konturatzen da elkarrizketa asko gaztelaniaz egiten direla, eta sarritan hori gertatzen dela egunerokoan euskaraz egiten dutenek oso erraz uzten dutelako euskara albo batera.

—Inolako beharrik izan gabe gaztelaniara igarotzen dira! Inork eskatu gabe ere egiten dute.

Nereak egunero ikusten du etorkinek ez dutelako euskaraz egin nahi garrantziaz kekatzen diren horiek oso joera sendoa dutela etorkinekin gaztelaniaz egiteko. Gehien-gehien haserretzen du ikusteak zeharo euskaldunak diren bere ezagun batzuek gaztelaniaz egiten dietela eurei euskaraz egiten dietenei ere —lotsa gehiago edo gutxiagorekin eta ikasten ari denaren segurtasun gabeziekin—. Bere lana dela eta, sarritan izaten ditu harremanak helduentzako euskarazko ikastaroetako irakasle eta ikasleekin, eta badaki gehien agertzen den kexa horixe dela; alegia, eskolatik kanpo euskaldun “zaharrek” ez dietela aukerarik ematen eurekin euskaraz egiteko.

—Batuetan badirudi ez dutela nahi guk euren hizkuntza ikasterik —esan zion behin jatorri mexikarreko ikasle batek.

Badaki bere lana dela-eta berarentzat errazagoa dela euskaraz bizi izatea beste batzuek baino ahalegin gutxiago eginda. Dena den, Nerearen ustez bertako jendearena da erantzukizuna kanpotik etorritakoena baino gehiago.

—Imajinatu Alemaniara joaten zarela bizi izatera eta jende guztia alemanez hizketan entzuten duzula, baina alemanez hitz egiten saiatzen zarenean, zure hizkuntzan erantzuten dizutela. Eta telebista ikusi, prentsa irakurri eta zinemara joatea zure hizkuntzan egin ditzakezula... Gutariko zenbatak ikasiko genuke alemanez horrelako egoera batean?

Nerearen ustez ohiko euskaldunak, bere hizkuntza gisa euskara dutenek, etxeko lehen hizkuntza zein duten albo batera lagata, horiexek dute giltza euskara beharrezko hizkuntza bihurtzeko.

—Guztiok beti euskaraz egingo bagenie eta benetan ulertzen ez digutenean soilik aldatuko bagenu hizkuntzaz, horietariko gehienek ikasiko lukete eta natural erabiliko lukete. Geuk ez dugu ondo egiten. Praktikan geure hizkuntza ikastea galarazten diegu.

Oso ohikoa da jarrera hori bere herrikideen artean. Alde batetik suminduta agertzen dira kanpotarrek enpatia txikia agertzen dutelako hizkuntzarekiko. Beste alde batetik, berriz, euskara erabiltzeari uko egiten diote. Horrek guztiak inpotentzia sentazioa sortzen dio Nereari eta oso desatsegina egiten zaio.

—Igeri egin eta arropa gordetzearen parekoa da. Alde batetik Gernikako Arbola baino euskaldunagoak izan nahi dute, eta beste alde batetik beti eta edozeinekin

gaztelaniaz hitz egin besterik ez dute egiten. Horrela ez goaz inora.

Nerea konturatzen da jarrera hori ez dela izaten kontzientea edo nahita egiten dena, eta ez dela —nahitaez— intenzio txarrez edo hizkuntz ordezkapenaren aldeko ideologia argiarekin batera agertzen. Aitzitik, Nereak maite dituenen artean antzematen du, eta politikoki euskararen aurkakoak inondik inora ez direnen artean ere ikusten du jarrera hori. Agian, horrexek ematen dio etsipena, hain zuzen ere.

Horixe da bere lagun Olatzen kasua. Lore eta landare saltoki bat du. Olatz oso alaia eta komunikatiboa da. Erraz egiten du irribarre eta oso ondo daki jendearekin harreman onak izaten. Saltzaile eraginkorra eta trebea da, eta ohiko bezeroak ditu bere saltokian, Amaren egunean lore sortaren bat erosten duten noizbehinkakoez gain.

Bere familia guzti-guztia euskalduna da, baina Nerearen lagunak inoiz ez du kezka berezirik izan hizkuntz kontuengatik. Erraztasunez egiten du euskaraz eta gaztelaniaz eta sarritan biak nahasi erabiltzen ditu elkarriaz berean.

— Lehengo egunean Frantziako presidentea ikusi nuen ETBn, Sarkozy. Paris handiari buruzko kontu horri buruz ari zen eta esan zuen “Debemos pensar a lo grande”. A zer larru sendoa, ezta? Jendea hil bukaerara iritsi ezinda, eta bera “a lo grande” bizi izateaz hitz egiten.

Beste askok bezalaxe, Olatzek gaztelaniaz egiten du euskaraz ere badakiten batzuekin. Batzuk euskaldun zaharrak dira eta beraiekin gaztelaniaz aritzeko ohitura hartua du. Beste batzuk lehen hizkuntza gaztelania dutenak izan ohi dira, euskaraz ez zekitenean ezagututakoak, nahiz eta geroztik ikasi duten. Orain Olatzek badaki euskaraz hitz egiten dutela, sarritan

egiten baitute bere aurrean beste batzuekin. Hori dela eta, batzuetan Nereak Olatzi bere jokaera aurpegiratzen dio:

—Nolatan egiten duzu, bada, Mari Joserekin gaztelaniaz? Aspalditik bikain egiten du euskaraz eta!

—Beno, gaztelaniaz ezagutu genuen elkar eta...

Behin, udalak antolatuta psikologo batek ematen zuen hitzaldi batera gonbidatu zuen Nereak. Biei interesatu zaizkie psikologia kontu horiek betidanik. Olatzek sarritan erosten ditu psikologiari buruzko aldizkariak eta libururen bat ere irakurri du. Beraz, Olatzek onartu egin zuen gonbita. Iritsi zirenean, hitzaldiaren izenburua harrigarri samarra egin zitzaion: «Euskaraz eroso, noiznahi eta nonahi sentitzeko».

Psikologoak ez zuen hitz egin psikologiako dibulgazio aldizkariak ohikoen izaten dituzten gaiei buruz, alegia, depresioei edo bikote gatazkei buruz. Aitzitik, hizkuntz ohiturei buruz jardun zuen. Hitzaldiari hasiera emateko, bertan zirenei galdetu zieten ea nola erabakitzen zuten egoera bakoitzean zein hizkuntzatan egin.

Olatzek ez zuen inolako oztoporik izan erantzuteko:

—Nik ez daukat inolako arazorik... euskaraz hitz egiten badidate, euskaraz erantzuten diet. Gaztelaniaz egiten badidate, berriz, gaztelaniaz.

Hurrengo galderak zalantza puntua sorrarazi zion. Psikologoak, irribarre samurra kendu barik, honela galdetu zion:

—Beraz, beti lehen hitza besteak izaten du? Zeu sekula ez zara hasten beste inori hizketan?

Olatzek erantzun baino lehen, beste partaide batzuk hasi ziren hizketan eta ezin izan zuen bere erantzuna eman. Dena

den, Olatzek onartu behar izan zuen —bere buruari, hori bai— hori egiten zuenean gaztelaniaz egiten zuela. Beti gustatu izan zitzaion bere portaera neutroa eta inpartziala zela pentsatzea. Beti euskaraz egiteko seta zutenek arrazoi politikoengatik egiten zutela pentsatzen zuen, eta, berak, berriz, edukazio onaren eta bizikidetzaren izenean soilik jarduten zuela.

Hitzaldian, psikologoak esan zuen gaztelaniara aldatzea gaztelaniaz egiten diguten guztiakin mendekotasun linguistikoa zela, eta horrek ez zion grazia handirik egin Olatzi. Eta ez zen bakarra izan. Atzeragoko ilara batetik norbaitek honela esan zuen:

—Nik beti egiten dut hori, baina ez mendekotasunagatik, edukazioagatik baizik.

Hizlariak berehalaxe erantzun zion, argudio berbera behin eta berriro entzun duenaren modura:

—Eta ez zaizu iruditzen lehen hitza gaztelaniaz egiten diguten horiek gu bezain edukazio onekoak izan daitezkeela?

Hizlariaren erantzun hark dezente harritu zuen Olatz, izan ere —beste entzule askok bezalaxe— inoiz ikuspegi horretatik begiratu barik zeukan. Egia esan, inoiz inolako ikuspegiarik erabili gabe zeukan kontu horretarako, eta entzundakoa errepikatu besterik ez zuen egiten beti.

Psikologoak hau gehitu zuen:

—Ondo aztertzen badugu, gaztelaniara edukazioagatik aldatzen dugula esatea gaztelaniaz egiten dutenak diskriminatzekeko modu bat da. Are gehiago, irain egiten ari gaitzaizkie, edukazio txarrekoak direla esaten ari baikara. Eta hori ez da bidezkoa. Ez dut uste zilegi denik ere. Ez

badiegu euskaraz egiten, inoiz ez diegu ematen aukerarik hori frogatzeko.

Olatz haserre samar atera zen. Bazirudien hitzaldian eta ondorengo eztabaida animatuan entzun zuen guztiak barrenak astindu zizkiola. Deseroso sentitzen zen hark guztiak kolokan jarri zizkiolako argi eta garbi zituen oinarri sendoak.

—Ni oso pertsona libre naiz. Nahi dudan moduan hitz egiten dut eta guztiak errespetatzen ditut, eta inork ez du zertan esanik nola egin behar dudan, nik beste inori esaten ez diodan bezalaxe.

Etxera bidean, ozen pentsatuz, Nerearekin hitz egin zuen:

—Zu bai ederki, Udalean lanean eta gainera Euskara sailean. Zuretzat beti euskaraz hitz egitea oso erraza da. Esango didazu nola egin beharko nukkeen nik azokan! Niri bezero batek gaztelaniaz egiten badit, neuk ere gaztelaniaz egin beharko diot bada? Ordaintzen duenak agintzen du, aizu!

Nerea ez zegoen harrিতuta baizik eta oso gustura bere lagunarengan izan zuen eraginagatik. Hala erantzun zion:

—Orduan, zeuk erosten duzunean euskaraz egiteko eskatuko diezu, noski. Baldin eta ordaintzen duenak agintzen badu...

—Neska! Niri ez zait batere axola gaztelaniaz egitea ere. Nik badakit gaztelaniaz, baina gaztelaniaz egiten dutenek agian euskaraz ez dakitelako egingo dute.

—Agian egia da ez dakitela euskaraz. Edo ez; agian badakite, baina zeuk bezalaxe egiten dute eta gaztelaniaz egiten dizute zuk ez dakizulakoan. Edonola ere, inork ez badie euskaraz egiten, ezin izango dute sekula ere ikasi.

Betidanik entzun izan du edukazio onaren kontu hori Olatzek. Eta sekula pentsatu barik zeukan beste aldera ere aplikatu zitekeela. Hala, seme-alabei beti irakatsi die hizkuntzaz aldatzen gaztelaniaz egiten duen baten aurrean, ez emateko edukazio txarreko izatearen itxurarik. Guztiok jende guztiarekin euskaraz egiten ez badugu hizkuntza desagertu egingo dela eta nonahi euskaraz egitearekin tematuta daudenek kontatzen dituzten kontu horiek ez zituen sinesten. Egunero euskaraz asko egiten dela entzuten du berak. Gainera, bere inguruko artean askok egiten dute euskaraz. Finean, berari ez zaio batere axola gaztelaniaz egitea ere. Nereari esan zion bezalaxe:

—Nik kaleko euskara hitz egiten dut; gurasoek irakatsi zidatena eta jendeari entzuten zaiona. Ez ditut hitz dotoreak eta zuzenak erabiltzen. Badakit ‘oporrak’ esan behar dela, baina etxean beti ‘bakaziñuak’ esan izan dugu eta nik horrelaxe esaten dut! Pedante samarra da beti hain euskara zuzena hitz egitea, ez?

Hori amorratu samartuta esan zuen, eta Nerearekin minduta (hark euskara batu oso zuzena hitz egiten du) halako egonezina eragin zion hitzaldi hartara eraman zuelako. Nerea, berriz, ez zen mindua sentitu horregatik:

—Eta gaztelaniaz ere berdin egiten al duzu? Zerbait gaizki esaten baduzu, eta egunen batean beste modu batera esaten ikasten baduzu, hala ere gaizki esaten jarraitzen duzu? Eta gaztelaniaz zuzen egiten dutenei buruz ere pedanteak direla pentsatzen duzu?

Berriro ere, Olatzek onartu behar izan zuen ez zuela berdin jokaten euskararekin eta gaztelaniarekin. Gaztelaniaz, ahal bazuen, ez zuen bat ere akatsik egiten. Gainera, iruditzen zitzaion euskaldun izate hutsagatik nahikoa gaztelania kaskarra egiten zuela. Eta ahal bazuen, hobetu egiten zuen adibidez ondo egiten dutenei entzunez telebistan edo

irratian edo liburuak irakurtzen. Ondo begiratuz gero, etxean dituen liburu gehienak, umeei eskolan irakurtzeko agintzen dizkietenak kenduta, gaztelaniaz daude.

Eta hala eta guztiz ere, Olatz oso euskalduna sentitzen da. Goitik beheraino, berak esaten duen bezala.

Etxera iritsi zenean, Nerea agurtu eta gero, etxeko lanak egiteari ekin zion pentsakor. Hitzaldian entzundakoei buruz hausnartzen ari zen etengabe. Ez zuen nahi hain azkar etsitzerik, baina argi ikusten zuen gaztelaniarekin eta euskararekin zuen jokaera ez zela berdintasunezkoa. Eta horrek izorratuta utzi zuen bere buruaren inguruan zeukan berdintasunezko eta inpartzialtasunezko irudi ederraren flotazio marra.

Bere portaera bat etorri zitzaion burura. Euskal Herritik kanpora joaten zirenean, umeekin edo senarrarekin asteburu pasa, euskara ikur bat zen berarentzat, eta hori ez zitzaion gertatzen Durangon zegoenean. Museoetarako ilaran edo lekuren baterako sarreran, inguruan entzun ziezaiokeen jendea zeukanean nahita erabiltzen zuen hizkuntza: ohikoa baino ozenago ere hitz egiten zuen umeekin edo telefonoz. «Zergatik?» galdetzen zion bere buruari. Laster aurkitu zuen erantzuna. Besteek bera euskalduna dela jakitea nahi zuen. Eta konturatu zen egunerokoan, Durangon, berriz, bere-berezkoa duen ezaugarri hori ezkutatu egiten duela «Buenos días» baten ostean egunero.

Nerea dibanera

Bokazioz lan egiten duenez, Nereak bere bizitza pribatura eramaten du euskara guztiz hizkuntza normala egiteko interesa. Hori ez da arazo, baizik eta desira guztiz normal

eta osasungarria. Hori ez litzateke izan behar arazo iturri. Arazo gisa har dezakeguna da horrek inpotente eta etsita sentiarazten duela eta haserretu egiten dela bere lagun Olatzek dituen hizkuntz jarrerak bezalakoak ikusita.

Berak argi eta garbi dauka Olatz bezalakoak ez direla konturatzen zein nolako hizkuntz mendekotasuna praktikatzen duten. Ez dira konturatzen benetan egiten dutena gaztelania hizkuntza nagusi gisa erabiltzea dela, euskara soilik solaskideak badakiela dakitenean erabiltzen baitute (eta horrelakoetan ere ez beti). Beste egoera guztietan, baita zalantzazkoetan ere, gaztelaniaz egiten dute. Eta portaera hori normal gisa bizi dute bizitza guztian egin eta ikusi dutena delako.

Oso pertzepzio ulergarria da. Azkenean, guztiok azaletik estatistikan oinarrituta jokutzen baitugu. Estatistika informala da, jakina, eta aurretik genituen ideiek oso baldintzatua, baina nahiko aldiz errepikatzen ikusi duguna normaltzat hartzera bultzatzen gaitu.

Funtsezko alderdi bat nabarmendu behar da: norbaitek sistematikoki mendekotasuna (hizkuntzaren ingurukoa edo bestelakoa) praktikatzen duenean, gatazka egoerarik ez dagoela sentitu izan ohi du. Paradoxa dirudi, baina ez da, inondik inora. Arrazoia da mendekoak kostua oso-oso sorik bere gain hartzen duela (beti bera jarrita mendean), eta horrela interesen gatazka ez da azaleratzen inoiz: hortik dator gatazkarik ez egotearen pertzepzioa.

Hori guztia aurre egiteko estilo pasiboari dagokio. Gogora dezagun horrek gertakariak ukatzea dakarrela (ez dago gatazkarik; euskara ez dago egoera txarrean...) eta, horrenbestez, horren ondorioz sortuko lirakeen sentimenduak erreprimitu egiten direla.

Begi-bistan denez, hori baliagarria da beste edozein mota-tako gatazketarako ere. Pentsa dezagun orain hizkuntzarena ez den beste egoera batean: oporretako txandak banatu behar dituzten bi lankide. Bietariko batek aurre egiteko estilo pasiboa hartzen badu eta beti besteari aukeratzen uzten badio, ez onura jasotzen duenak ez kaltetuak ez luke egoera gatazkatsu gisa deskribatuko. Dena den, agian, mendekoari egunen batean data zehatz batzuetan komeniko zaio oporrak hartzea eta besteak ere egun horiexek nahi izango ditu. Orduan, gatazka pertzepzioa azaleratuko da ezinbestean. Urtea joan urtea etorri amore eman duenak zilegitasun handiagoa duela sentituko du behin izanda ere aukeratzeko duen eskubidea aldarrikatzeko. Besteak, berriz, lehentasuna izatera ohituta dagoenez, agian ez du erraz amore emango. Pribilegioak —batez ere norberarenak— eskubideekin nahastea oso ohikoa da.


Kanpotik erraza da ikustea mendeko hiztunek duten normaltasun pertzepzioak asimetria handi bat duela oinarri, eta horren atzean dauden aurreiritziak ez liratekeela hausnarketatik bizirik aterako... baldin eta egunen batean hausnarketa hori iritsiko balitz. Horregatik sentitzen da deseroso Olatz hizkuntz ohiturei buruzko hitzaldian. Horrexegatik ez du gustuko bere portaera mendekotzat jotzea.

Esan beharko genuke Nerearen haserrea pizten duen jarrera duten horiek teknikoki fase aurrekontenplatio batean daudela hizkuntza portaerari dagokionez (terminologia bera erabiltzen da erretzaileentzat oraindik ere ez dutenean esplizituki erabaki erretzeari uztea). Horrek esan nahi du oraindik ere ez dutela erabaki batere aldaketarik egitea. Ez du esan nahi, dena den, aldaketa ezinezkoa denik. Izan ere, etengabe ari gara aldatzen. Bene-benetan ezinezkoa dena ez aldatzea da.

Dena den, Nereak horietakoren batengan aldaketaren bat eragin ahal izateko gaur egun dituzten hizkuntz ohituretatik hurbil samar dauden proposamenak egin behar dizkie. Kontuan izan behar da eurek ez dutela sentitzen gaizki egiten dutenik, eta ez dutela uste euren jarrerak euskara baztertzea bultzatzen duenik. Norbaitek proposatzen badie, adibidez, euskaraz hitz egin beharko luketela guztiekin eta beti, Olatz bezalakoek ez lukete izango adorerik hori egiteko eta, horrenbestez, orain arte izan duten portaera berbera izango lukete: batez ere gaztelaniaz.

Horregatik kasu honetan arrakastaren gakoa izango da iradokizun xume batzuk aurkitzea, fase aurrekontenplatihoan dauden horiek euskaraz gehiagotan egitera bultzatu ahal izateko. Horrela, poliki-poliki, oinarrian dituen aurreiritzi batzuk deusezta ditzake maila kognitiboan hizkuntz jarrera horrek (adibidez, kanpotik etorritakoek ezin dutela edo ez dutela nahi euskaraz hitz egin). Horrek, gainera, pixka bat gehiago erraztuko luke euskaraz gero eta gehiago egiteko joera.

Progresioaren ideia hau pentsamenduek (maila kognitiboak) eta ikus daitekeen portaerak (maila motorrak) bi norabideetan duten harreman sakonean oinarritzen da. Ondorengo diagraman ikusten da hori:



Nerearentzako autolaguntza fitxa

Bi norabidetan joango lirateke Nerearentzako ditugun gomendioak:

- a) Aztertu hizkuntz mendekotasuna dutenen portaeraren prozesu psikologikoak. Babesgabetasun ikasiaren fenomenoaren mendekotasunaren oinarri gisa ulertzeak lagun dezake Nereak ez dezan erantzukizun pertsonaleko inputaziorik egin. Horrela, ez da horrenbeste haserretuko Olatzek bezala —inolako beharrik gabe— gaztelaniara aldatzen duten hiztun askoren jarreraren eta justifikazioen aurrean.
- b) Nereak portaera aldatzeko eskaera asertiboak egiten ikas dezake. Ondo diseinatuta badaude eta behar bezala proposatzen badira, eragin positibo bikoitza izango dute:
 - b. 1. Probetxuzko ekarpena egitearen sentsazioa emango diote, eta horrela hainbeste molestatzen duen inpotentzia sentsazioa murriztuko du.
 - b. 2. Benetan portaera aldaketa txiki bat eragiteko aukera handituko du, eta kontuan hartu behar da aldaketa txiki hori handiagoen hasiera izan litekeela.

Olatz bezalako hurbileko pertsona bati eragiteko Nereak zer egin dezakeen aztertzen badugu, aldaketa oso txikia proposatzea izango litzateke egokiena; adibidez, ondorengo hau:

—Olatz, ez duzu pentsatu gaztelaniara berehalaxe aldatzen baduzu, agian batzuek zurekin euskara praktikatzea galaraziko duzula? Nahikoa izango litzateke bi edo hiru aldiz euskaraz jarraituko bazenu. Solaskideak ez badizu ulertzen, berehalaxe jakinaraziko dizu, eta orduan lasai aldatu ahal izango duzu gaztelaniara, jakinda ez diozula kalterik egingo.

Hauek dira ikuspuntu honen gakoak:

- a) Ez ditu aurrez aurre zalantzan jartzen Olatzen sinesmenen («gaztelaniaz egitea edukazio onekoa da») eta balioen sistema («besteen hizkuntzara egokitu behar da»).
- b) Aitzitik, sinesmen eta balio horiek hartzen ditu oinarri euskarari eustea besteei kalterik ez egiteko modu gisa aurkezten duenean, ez baitzaie euskara praktikatzea galarazten.
- c) Ez du eskatzen gaur egun Olatzek dituen jokabideetatik oso urrun dagoen beste jokabiderik.
- d) Aldaketa bat dakar, txikia izanda ere, aurre egiteko estilo pasibo batetik (zer hizkuntzatan hitz egiten dizuten ikusi arte itxaron) proaktiboagoa den batera (euskaraz agurtzea bere ekimenez).

Agian ez du emango oso erronka handia jende askok oso errotua duen hizkuntz portaera bat aldatzeko. Dena den, gogoan izan behar da berak oraindik ez duela erabaki ezer aldatzerik. Beraz, euskara maizago erabiltzerantz egindako edozein aitzinamendu aurrerapausoa izango da. Gainera, oso litekeena da aldaketa txiki horiek bere hizkuntz kontzientziaren mailaren gorakada bultzatzea bukaeran. Horrela, beste aldaketa handiago batzuk planifikatu ahal izango lituzke —oraingoa bere ekimenez—.

Beste ekintza bat izan liteke Olatzi eskatzea identifika ditzala zein diren berak hizkuntzaren inguruan dituen ideia nagusiak (teknikoki, aurreiritziak esan beharko genuke). Ez dago aurreiritzi horiek eztabaidatu beharrik edo albo batera utz ditzan nabarmendu beharrik ere. Lehen urratsa ideioek identifikatzea da, besterik gabe. Zeintzuk diren eta barneratuta ditugula jakite hutsa nahikoa da zerbait aldatzen has dadin.

Galdetegi sinple hau lagungarria izan daiteke. Esaldi bakoitza irakurri (ezkerreko zutabea) eta borobil bat egin behar da gure adostasun maila adierazten duen puntuazioaren inguruan (eskuineko zutabea)

Esaldia	Zenbateraino nago ados horrekin? Batere ez 0 1 2 3 4 5 Guztiz
Euskaraz egitea baserritarren kontua da	0 1 2 3 4 5
Euskaraz egitea edukazio txarrekoa da	0 1 2 3 4 5
Jende guztiak daki gaztelaniaz	0 1 2 3 4 5
Beti euskaraz egitea erradikala izatea da	0 1 2 3 4 5
Euskara itsusia da	0 1 2 3 4 5
Gaztelaniadunek ezin dute euskara ikasi	0 1 2 3 4 5
Harrera ona egiteko, gaztelaniaz egin behar zaie atzerritarrei	0 1 2 3 4 5
Norbaiti kosta egiten bazaio euskaraz egitea, gaztelaniaz egin behar zaio	0 1 2 3 4 5
Norbaitek gaztelaniaz egiten badit, esan nahi du ez duela nahi nik euskaraz egitea berari	0 1 2 3 4 5
Oso itxura desberdinekoek ez dakite euskaraz (beltzek, asiarrek...)	0 1 2 3 4 5

Beste ariketa erabilgarri bat izan liteke ezkerreko zutabeen hutsik dauden gelaxkak betetzeko eskatzea, beste batzuekin hitz egiterakoan berak aurki ditzakeen hizkuntzaren inguruko aurreiritziekin. Kasu horretan, ez dago inolako arazorik aurreiritziak izendatzeko. Guztiok prest egon ohi gara besteren pentsamenduan dauden aurreiritziak bilatzeko.

Laburbilduz: Nerearentzako errezeta

1. Gogoan izan hizkuntz mendekotasunez jokatzeko duten guztioi eragiten diguten portaeraren ikaste eta finkatze oinarriari erantzuten dietela. Ez dira pertsonalki errudunak eta, horrenbestez, ez daukagu beraiekin haserretu beharrik.
2. Euren hizkuntz jarreran eraginen bat izan nahi baduzu, saia zaitez portaera zehatz batean aldaketa txikiak eragiten (adibidez, bezeroak agurtzea edo ezezagun batekin jarduterakoan egiten duen lehen hitza).
3. Norbaiti aldaketak proposatzeko, lehendabizi aztertu zein den bere portaera eta proposatu soilik apur bat desberdina den besteren bat. Kontuan izan edozein aldaketak portaera sistema guztia birdoitzea eragingo duela eta horrek beste aldaketa batzuk egitea erraztuko duela.

7 Khadim, hiztun afrikarra

«... nire ametsetan gure seme-alabak
euskaldunak izango dira eta ordurako
jendeak ikasia izango du azal beltza
izateak ez duela esan nahi
kanpotarra zarenik».

Badira urte batzuk Khadim Ondarroara iritsi zela Senegaletik. Lehenengo bere herritik itsasoz abiatu eta ondoren penintsula iberikoko ertz batetik bestera joan zen. Azkenean Ondarroara heldu zen, oso ondo jakin barik non zegoen ere. Lur zati hura Europa zela eta han bizimodu berria izan ahal izango zuela esan zioten. Lehorrera iritsi zenean zorionetik oso hurbil zegoen zerbait sentitu zuen. Bidaide bat baino gehiago desagertzen ikusi zuen bide luzean. Hiltzen hurrengoia bera izango zela sinestera iritsi zen, eta bere herritik eta erabateko ziurgabetasunaren truke familiaren-gandik urruntzeko erabakia madarikatzen hasi zen.

Lehen hilabeteak oso biziak izan ziren. Berritasunak horrenbeste zirenez, egunero abentura bat zen. Berritasun guztien artean espero zuen bat zegoen: hizkuntza. Bere sorterrian, wolof izeneko hizkuntzaz gain, frantsesa ere ikasi behar izan zuen. Khadimek, herrikide askok bezalaxe, hizkuntzeta-rako erraztasuna zeukan, eta Ondarroako kaleetan entzun zuen euskara berehalaxe iruditu zitzaion eskuragarria. Las-

ter behar izan zuen elkar ulertzeko bertako arrantzaleekin itsasontzian lanean hasi zenean.

Orain, Khadimek kontatzen du —barrez— hasieran arrantzaleek sekulako ahaleginak egiten zituztela gaztelaniaz egiteko berari, eta oso ozen hitz egiten zutela, atzerritarra izateaz gain gorra ere balitz bezalaxe.

Dena den, elkarrizketa hasi eta gutxira hori ahaztu eta naturaltasunez euskarara igarotzen ziren, berriro ere aurpegira begiratzen zioten arte. Orduan berriro hizkuntza aldatzen zuten. Berarentzat arrantzaleen gaztelania ez zen euren artean egiten zuten hizkuntza baino ez errazagoa ez zailagoa. Hori bai, etengabe aldatzen jarduteak harritu egiten zuen pixka bat. Bitxia egiten zitzaion berak ulertzen ez zuen hizkuntzan hitz egiteko halako ahalegina egiten zuten gizon haien aurrean egotea. Hori dela-eta, batzuek ulertu zuten ekonomikoagoa zela gaztelaniara itzultzen ibiltzearen energia aurrezte eta euskaraz hitz egiten hasi zitzaion. Poliki-poliki denek gauza bera egiteari ekin zioten. Hilabete batzuetan Khadim elkarrizketa gehienak ulertzeko gai zen eta lehendabizi euskaraz hitz solte batzuk eta gero esaldi osoak esaten hasi zen.

Ondarroara iritsi eta urtebetera nahikoa integratua sentitzen zen. Herrian nonahi ezagutzen zuten eta agurtzen zuten. Berak ere gauza bera egiten zuen.

—Egun on, zer moduz?

—Ondo esan beharko, eta zeu? —erantzuten zuen berak.

—Pozten naiz ondo zaudelako.

—Eta ni poztan naiz zu poztan zarelako ni ondo nagoelako!

Khadimek gustura ikusten zuen zer nolako aurpegiak jar-
tzen zituzten beste norbaiti ikasitako esaldi berriren bat
botatzen zuenean. Eta eroso sentitzen zen, bere azentua
normal onartzeaz gain, bere aurrerapenak irribarrez hartzen
zituen jende harekin. Noski, denak ez ziren horrelakoak.
Noizean behin herriko dendaren batean azalaren kolorea
eta gaztelania batzen zuen jendea ere aurkitzen zuen:

—Egun on. Kilo bat oilasko izter jarriko didazu,
mesedez?

—¿Qué querías? ¿Un kilo de pollo?

Ez zuten asmo txarrez egiten, eta berak ere bazekien hori.
Kosta egiten zitzaion ulertzea, dena den, zergatik berak
euskaraz egin bazuen jende hark beste hizkuntza batean
erantzuten zioten, nahiz eta berarentzat arrotzagoa eta
zailagoa egin hizkuntza hura, are gehiago dendariak ere
gaztelaniaz egiteko nahikoa lan zuela ikusita.

Hala eta guztiz ere, gustura bizi zen herrian, ondo
sentitzen zen eta Senegalen utzi zituen emaztea eta semea
ekartzearekin pentsatzen hasia zen. Hori egin ahal izateko,
legezko kontratua eta diru egoera on samarra behar zituen.
Itasoko lanak ez zuen beldurtzen, baina ia beti aldi baterako
kontratuekin edo batere kontraturik gabe izan ohi zen.
Beraz, Ondarroara iritsi eta hirugarren urtean, arrantza urte
txar baten ondoren, Khadimek pentsatu zuen aldatu egin
beharko zuela bizilekuz.

Gizarte zerbitzuetan informazio garrantzitsua eman zio-
ten —herriko arkitektoak Bilbon zeukan ezagun baten
bidez—, eta garbiketa industrialeko enpresa batekin harre-
manetan jarri eta gero, kontratua eskaini zioten. Horrek
nabarmen hobetuko zuen bere egoera eta, gainera, familia
ekartzeko aukera emango zion. Nahiz eta oso lotua sen-

titzen zen Ondarroarekin eta oso gustura bizi zen bertan, hirira bizi izatera joateko erabakia hartu zuen.

Bilbora iritsi zenean, sekulako kolpea hartu zuen. Bizimoduaren erritmoa bizi-bizia zen herrikoaren aldean, eta horrek harritu egin zuen hasieran. Gainera, Ondarroan ikasitako euskara Bilbon bizitzeko nahikoa ez zela ohartu zen.

Bizi zen auzoan, guztiek beti gaztelaniaz egiten zioten: dendariak, beste hiru etorkin bizikide zituen pisuaren jabeak, okinak... guztiek. Batzuek euren artean euskaraz egiten zuten, baina berari hitz egiten hasten zirenean automatikoki aldatu eta gaztelaniaz egiten zioten. Berriro ere harrituta geratu zen, ez baitzuen menderatzen hizkuntza hura. Lanean, enkargatuak ere gaztelaniaz egiten zion eta lankideek ere —gehienak andaluziarrak, errumaniarrak eta magrebtarrak— gaztelaniaz egiten zuten. Khadimi dezente kosta zitzaion berriro ere hizkuntzara egokitzea eta babesgabetasun sentimendu handia eragin zion. Urte gutxitan ahalegin bikoitza egin behar izan zuela sentitzen zuen bi hizkuntza ikasi behar izan zuelako. Nolabait, sorterriko egoera gogorarazten zion, izan ere etxeko hizkuntza, wolofa, frantsesaren mende bizi zen, horixe baitzen eskolan nahitaez ikasi beharreko hizkuntza.

Oraingoan, Khadim ez zen sentitzen ez eroso ez integratuta. Harrera egin zion herritik kilometro gutxira bazegoen ere, orain kanpotarrago sentitzen zen duela hilabete batzuk baino. Poliki-poliki, gero eta hobeto ikasi zuen gaztelaniaz, murgiltze linguistikoak ere asko laguntzen baitzuen.

Hitz batzuek ez zituen sekula itzultzen gaztelaniaz ere oso antzekoak direlako eta horrela ere ondo ulertzen zirelako. Jendea hasiera harritu egiten zen bera euskarazko hitzak esaten zituenean. Objektu bitxi bat izango balitz

bezala begiratzen zioten, irribarrea ahoan zutela, ondoren gaztelaniaz hitz egiten jarraitzen zutela. Euskara ulertzen ez zuen baten batek ere Khadim euskaraz entzuterakoan Afrikako hizkuntza batean ari zela pentsatu zuenik ere egon zen. Hala ere, euskarazko hitzak tartekatzeke ohiturak, aldaketa garrantzitsu bat eragin zuen Khadimen bizitzan.

Behin, Khadim Eusko Jaurlaritzaren ordezkari zara joan zen bere familia ekartzeko behar zituen paper batzuk konpontzera. Egokitu zitzaion mahaian Aitziber Gerrikagoitia zegoen, eta funtzionario hori izan zen Bilbon euskaraz egin zioten apurretariko bat.

—Egun on. Zertan lagun zaitzaket?

Agurra euskaraz izan arren, Khadimek barneratua zuen Bilbon gauzak gaztelaniaz egin behar zirela eta hizkuntza horretan jarraitu zuen.

—Egun on! Quería un impreso para reagrupamiento familiar.

Aitziberrek, ohituta zegoenez horrelako egoeretara eta Khadimen euskarazko agurra entzunda, ausardiaz jokatu eta euskaraz jarraitu zuen, hasierako tonu gozoarekin.

—Europar Batasuneko ala kanpoko zara? Nondik etorriko da zure familia?

—Del Senegal.

—Ados. Hemen daukazu. Behar duzu laguntzarik betetzeko ala zeuk bakarrik egingo duzu?

—Ahaleginak egingo ditut eta zerbait falta badut, galdetuko dizut. Eskerrik asko. Mila esker.

—Nahi duzun bezala. Bukatzen duzunean, etorri hona berriro. Ez daukazu ilaran zain egon beharrik.

—Konforme eta eskerrik asko.

Bilbora iritsi zenetik, ezezagun batek lehendabizikoz egiten zion zuzenean euskaraz, eta nolabait, horrek hobeto sentiarazi zuen.

—Gustatu zitzaidan, bai horixe. Beste edozein banintz bezala tratatu ninduen. Egoera erraztu egin zuen. Egoera bitxia zen, izan ere inork ez zidan niri euskaraz egiten. Agian beltza naizelako, agian kanpotarra naizelako. Kontua da hemen bizi naizenetik ikasia neukala ezagutzen zaituztenean eta konfiantza dagoenean bakarrik egiten dizutela euskaraz eta emakume horrek etxean sentiarazi nau keinu horrekin soilik.

Aitziberrek guztiei euskaraz egiteko ohitura zeukan, nahiz eta erreakzioak ez izan beti oraingoan bezain onak. Hizkuntzari gehienetan eusten dion biztanle euskaldunen zati txikiaren partaide da bera. Hori egiten urte batzuk jardun eta gero, eta ohiko ondorioak jasan ondoren (nekea, etsipena, beti borrokan aritzearen sentrazioa...), euskaraz jarraituta eroso sentitzen ikasi du. Askotan presioa jasaten du horregatik, baina berak lasai erantzuten du dituen elkarrizketetan, edonolakoak izanda ere; baina agresiboak direnean ere.

Dena den, beti ez zen horrela izan. Urteetan, Aitziberrek bere hizkuntz eskubideei buruz eztabaidatu du, sarritan borrokatu du eta frustraturik eta deprimituta sentitu da bere hizkuntzaren egoeragatik. Behin, euskarari buruzko webgune batean norbaitek euskaratutako ‘Català Sempre’ izenburuko testua aurkitu zuen (ikusi atal honetako 1. eranskina). Herrialde katalanetan posta elektronikoz zabalduko Lluís Gon Sagak sinatutako testuaren itzulpena zen eta dekalogo antzeko bat zeukan. Bertan irakurritakoak begiak zabalarazi zizkion. Mezu hark bestelako estrategiak bilatzera bultzatu zuen. Gero hitzaldi eta tailer batzuetara joan zen eta —poliki-poliki— bere hizkuntz ohiturak

aldatzen joan ziren. Beti euskaraz jarraitzen zuen, baina salbuespenak salbuespen, ez zuen borrokarik egiten eta, garrantzitsuena, askoz ere erosoago sentitzen zen.

Emakumeak eman beharreko paper guztiak biltzen zituen bitartean gizalegezko esaldi batzuk trukatu zituzten. Paperak betetzeari buruzko jarraibide gutxi batzuk eman eta gero, Aitziberrek kuriositatea sentitu zuen:

—Zer, aspalditik ari zara hemen lanean ala?

Hitz gutxitan Khadimek Ondarroako egonaldia laburbildu zion eta gehiagotarako astirik ez zegoenez, Aitziberrek laneko telefonoa eman zion inprimakiekin zalantzaren bat bazuen ere. Pare bat aldiz erabili zuen telefonoa Khadimek eta bere laguntzarekin behar zituen paper guztiak betetzea lortu zuen. Hilabete batzuk beranduago familia Bilbora etortzea bideratu zuten tramite zailak gainditzen lagundu zion emakumeak.

Orduan, familia alboan zuela, Khadim lasaitu egin zen eta gauzak ondo zihoazela sentitu zuen. Aitziberrekin sortu zen adiskidetasunari esker, bestelako bilbotarrak ezagutu zituzten. Haiek euskaraz egiten zieten eta pozik hartzen zuten berak euskaraz egitea eta emazteak ere ikasteko gogoia edukitzea. Orduantxe erabaki zuten euren lau urteko seme Boubakar euskaraz eskolatuko zutela Bilboko ikastetxe publiko batean.

Khadimek, dena den, bazituen bestelako harremanak ere, batez ere lanean. Lankide batzuek zalantzan jarri dute erabaki hori semeak beste hizkuntza bat ikasi behar duenez espainiera erabilgarriagoa izango zaiola esanez, jende gehiagok munduko herrialde gehiagotan hitz egiten duelako. Khadimek ez die ezer esaten. Berez isila da, eta dirudienez dagoeneko ikasi du —bertako askok baino errazago— eztabaida batzuk zentzugabeak direla.

—Etxean wolofez egiten dugu. Geure hizkuntza da eta gure seme-alabak ere Afrikako senideekin hitz egiteko gauza izatea nahi dugu. Eskolan euskara ondo ikastea nahi dugu, hizkuntza hori ere euren dela senti dezaten. Seguruenik, emaztea eta biok beti atzerritar gisa ikusiko gaituzte ezagutzen ez gaituztenek, baina nire ametsetan gure seme-alabak euskaldunak izango dira eta ordurako jendeak ikasia izango du azal beltza izateak ez duela esan nahi kanpotarra zarenik. Gaztelaniaz bizi izaten irakatsiko dien eskola batera bidaltzen baditugu, nire ustez ez diote utziko inoiz kanpotar izateari hemen Bilbon, euren bizilekuan.

Khadimek argi eta garbi dauka ez daukala beste herrialde batera joateko asmorik. Gaztelaniaz milioi askok hitz egiteak ez dio ezer esaten. Izan ere, berak ez dauka asmorik milioika pertsonarekin hitz egiteko. Bere lagunekin, auzokoekin eta bera eta familia bizi diren toki berean bizi direnekin hitz egin nahi du.

—Senegalen ere ezagutu dut han bizi arren bakarrik frantsesez egiten zuen jendea. Batzuek wolofa mespretxatu ere egiten zuten eta hitz solteak ikasterik ere ez zuten nahi izaten. Egia da han bizi ahal direla eta lan egin ahal dutela, baina beti izango dira atzerritarrak. Ez dut nahi gure seme-alabak ere horrelakoak izaterik.

Denbora honetan Khadimek hizkuntz aldaketa batzuk bizi izan ditu, ikusi dugunez. Ondarroan euskara ikasi zuen oso erabilgarria egin zitzaiolako. Gero Bilbon jendearekin gaztelaniaz egin behar dela ikasi zuen. Aitziber ezagutu eta gero, berriro ere zalantza sartu zaio. Orain gutxienez saiatu egiten da euskaraz, baita espainieraz erantzuten badiote ere. Dena den besteak gaztelaniaz jarraitzen badu, Khadim ere gaztelaniaz egiten hasten da. Bere egoera soziala oraindik ere prekarioa da eta hori egiten diotenean sentitzen da batez ere atzerritar eta babes gabe. Batez ere horregatik argi

ikusten du seme-alabak —Boubakar eta etorriko direnak— euskarazko eskolara bidali behar dituela, integratzeko erabilgarria izango zaiela pentsatzen duelako eta badakielako gaztelaniaz ere nahitaez ikasiko dutela eskolan eta kalean.

Khadim dibanera

Pertsona honek Euskal Herrian gehien hedatutako aurreiritzietariko bat jartzen digu aurrez aurre: beltzek edo zuriak ez direnek ez dutela euskaraz hitz egiten. Horren arabera, beste hizkuntza bat erabili behar dugu elkar ulertzeko, gehienetan gaztelania.

Aurreiritzi honen sustraia da pentsatzea gure hizkuntza soilik bertan jaiotako batek hitz egin dezakeela, izan ere, nori gehiago gertatuko zaio, bada, interesgarria? Aurreiritzi hori gutxi gorabehera gutxiagotasun konplexu gisa har dezakeguna da benetan eta —teknikoki— babesgabetasuna ikastearen emaitza da.

Kanpotartzat hartzen dugun horrelako baten aurrean gaztelaniara aldatzea begirada batera hartzen den erabakia da, soilik itxura fisikoa kontuan hartuta. Duela belaunaldi batzuk agian lagungarria zen hori. Gaur egun, dena den, aurreiritzi horrek ez du ez buru eta ez hanka. Neskabila beltz bat edo ekialdeko begiak dituen mutiko bat guztiz euskaldunak izan daitezke baldin eta euskarazko eskolara joan badira.

Nabarmenezkoa da aurreiritzia oso sendoa dela, izan ere, euskaraz eta azentu ondarroar zuzen samarrarekin entzun eta gero ere batzuek espainieraz erantzuten diote.


Hala eta guztiz ere, Ondarroara iritsi eta batez ere arrantzaleekin zituenean harremanak, nahikoa hizkuntz portaera normala izatea lortu zuen Khadimek (bertako hizkuntza ikasi eta erabiltzen zuen). Horrek bere herrikideen jarrera normalizatzea bultzatu zuen (ez guztiena, jakina), onartu egin zuten eta harremanak euskaraz izaten zituzten berarekin, normaltasunez.

Bilbora iristeak eragin du hizkuntz anormalizazioa. Hirian, Khadimek Senegaletik ezagutzen zuen egoera bat bizi izan zuen: kanpoko hizkuntza bat izatea nagusi. Ulegarria denez, Khadim egokitu egin zen eta harik eta Aitziber ezagutu arte ez zen itzuli, gutxi gorabehera, Ondarroan lortua zuen normaltasunera.

Hurrengo eskemek erakusten dute bien artean gertatutako portaera sekuentzia zein izan zen.

- a) Hirian bizi denetik izan duen ikasketa prozesuaren arabera, Khadimek pentsatzen du euskaraz arazoak izan ditzakeela. Gai hori berarentzat oso garrantzitsua denez, bere aktibazio maila handia da eta bere buruari esaten dionak artean ere gehiago jasotzen du aktibazio maila hori (urduri jartzen da). Gaztelaniaz hitz egitea aukeratzen du.
- b) Gaztelaniaz egiten du, baina ‘Egun on’ esaten du, ohituta dagoelako.
- c) Ondo hartzen dute, samurtasunez. Bera oraindik ez da kontziente horrek inolako harremanik izan dezakeenik euskararen erabilerarekin. Aitziberren arreta eta irribarrea, eta komunikatzeko inolako zailtasunik eduki ez izana ondorio atseginak izan dira. Ondorio horiek bere portaera berrelikatzen dute: gaztelaniaz hitz egitea. Dena den, Aitziberrek beti euskaraz egin dio denbora guztian eta horrek errefortzu gisa jokatu


du Khadimentzat (etxean bezalaxe sentiarazten du gehiago) hurrengoan euskaraz egiteko.



Paradoxikoki, orain arte Aitziberren adeitasunak, gainera, partzialki Khadimen gaztelaniaz egiteko erabakia indartu du. Azter dezagun, dena den, portaera sekuentzia Aitziberren ikuspuntutik.

- a) Guztieieuskaraz egiteko ohiturarekin edozein herritarri arreta egiterakoan lasai sentitzeko baliabideak garatu ditu Aitziberrek. Bere aktibazio maila egokia da eta bere buruari esaten diona lagungarria da horretarako.

- b) Euskara maila edozein izanda ere aise ulertzen diren galdera errazak erabilia, mezu hau helarazten dio argi eta garbi: ‘Laguntzeko prest naukazu, euskaraz egin ahal didazu’.
- c) Khadimen erantzuna, irribarrez eta ondo sentitzen dela adieraziz, Aitziberren jokabidearen errefortzua da. Ulertu ez eze euskaraz hitz egin ere egiten duela ikustea atsegina da Aitziberrentzat. Ondorioz, horrek berrelikatu egiten du euskaraz arreta emateko hartua duen erabakia.



Labur-labur aztertu dugu portaera sekuentzia bi solaskideen ikuspegitik. Beste batzuegan izan dezakeen eragina ere komeni da aztertzea. Edozein hiri handitako gizarte zerbitzuetako bulegoak noiznahi jendez gainezka egon ohi dira. Jendea zain egoten denez, lekuko asko egon ohi da. Portaera asertiboa duen edozein ekintza hainbat lagunek ikusiko dute, besteak beste, hizkuntza eta kulturarekiko sentsibilitatea daukateneak. Lekuko horientzat guztientzat bidea errazagoa izango da Khadimen eta Aitziberren arteko elkarriketa entzun eta gero. Eredu gisa funtzionatu dute. Mezu inplizitua hau izango litzateke gutxi gorabehera: Administrazioan ere egin daiteke euskaraz. Geurean jaio ez direnek ere egiten dute.

Khadimentzako autolaguntza fitxa

Khadimek hizkera komunikatibo bikoitza du hizkuntzaren inguruan:

1. Badaki onuragarria dela seme-alabentzat euskaraz jakitea eta euskarazko eredura bidaltzen ditu eskolara.
2. Bere hizkuntz jokabidea, denbora tarte handi batean, gaztelaniazkoa da.

Ez du denbora gehiegi beharko konturatzeko seme-alabei oso mezu argia erakusten diela: «euskara umetan erabiltzeko da, baina handi egin eta gauza garrantzitsuei buruz hitz egiten dugunean gaztelaniaz egingo dugu, aitak bezalaxe». Gainera, mezu hori ez du bakarrik Khadimek transmititzen; horrela jokutzen duten guraso, irakasle eta hezitzaileek ere egiten dute. Bere kasuan, hain zuzen ere, ulergarriagoa da. Duen lan eta gizarte harremanen prekaritatetik ezin dugu espero izan hizkuntzaren aldeko militante moduan jardungo duenik.

Dena den, oso interesgarria da aztertzea zein diren bere erreakzioak naturaltasunez euskaraz egiten dion norbait ezagutzen duenean (Aitziber), erosoago eta harrera hoberekin sentiaraziz. Jende askok, nahiz eta euskaraz ondo jakin eta sarritan erabili, gaztelaniara salto egiten dute beste kontinente batzuetatik etorri berri direnekin hitz egiten dutenean. Hori egiten dute horrela euren burua abegikorrago ikusten dutelako. Khadimen adibideak, eta antzeko beste askok, ikusarazi behar lieke hori ez dela hala, automatikoki behinik behin.

Nahiz eta Khadim ez izan hizkuntzaren aldeko militantea, bere ezaugarriengatik potentzial dinamizatzaile oso interesgarria du. Seguruenez, euskaraz jakiteak aukera eta poz gehiago emango dizkio gaztelaniaz jakiteak baino. Euskaraz ondo jakitea askorentzat balio erantsia izan liteke (ez da hori gertatzen gaztelaniarekin, ezinbestekoa baita hizkuntza hori jakitea). Beste alde batetik, askok oso begi onez ikusiko dute Khadim bezalako etorkin batek berezko hizkuntzan hain gaitasun ona izatea.

Khadimen hizkuntz portaera hobetzeko esku hartzea Aitziberrek edo euskaraz egin ohi dion beste norbaitek egin dezake. Guztiei lehen hitza euskaraz egiteko gomenda diezaiokete, besterik gabe, eta alda dezala gaztelaniara interesatzen zaiolako berari iruditzen zaion kasuetan, soilik solaskideak hizkuntza horri eusten diola ikusten duenean. Edozein kasutan ere, aurrean duena Euskal Herriko kulturaren aurkari fanatikoaren denean salbu, horrek ez dio inolako kalterik egingo. Aitzitik, hizkuntzaren gaitasun eta ezagutza maila ona erakutsiko du eta horrek abantailak ekarri ahal izango dizkio.

Beste alde batetik, batzuetan, Khadimek behin eta berriz gaztelaniaz egiten dion jendea aurkitzen du, nahiz eta nabarmena izan euskaldunak direla eta oso ondo egiten

dutela euskaraz. Kasu horietarako, gomendio hau emango genioke:

Lehendabizi, solaskideen artean dagoen harreman hierarkikoa zein den erabaki behar da. Ez da gauza bera lan eske doanean norbaitengana (kasu horretan, agian, bestearen hizkuntz erabilerara egokitu behar du) edo harategiko dendariarekin ari den, adibidez. Azken kasu horretan (bera bezeroa da, eta, beraz, nolabaiteko pribilegio egoeran dago) honelako elkarrizketa bat oso eraginkorra izan daiteke:

—Khadim: Kilo eta erdi xerra jarriko didazu?

—Dendaria: ¿Qué quiere, kilo y medio de filetes? —gaztelaniaz, euskal azentuarekin.

—Khadim: Barkatu, ulertzen didazu euskaraz? ala gaztelaniaz egitea nahi duzu? Gaztelaniaz ere badakit...

—samurtasunez eta ahots lasaiarekin.

Agian, dendaria pixka bat haserretuko da elkarrizketa horrekin. Haserretu egingo da, baina euskaraz egingo du argi uzteko bera euskalduna dela, lehen gaztelaniaz egiten zion bezala bezero beltzari, segurutzat jotzen zuelako kanpotarra zela eta euskara jakingo ez zuela. Horrelako elkarrizketa batekin gai bat nabarmentzen da (zein hizkuntza hitz egiten dugun), alegia, lehen inplizitu geratzen zena oinarri faltsuekin (beltzek ez dakitela euskaraz, eta gaztelaniaz, berriz, bai). Horrela, Khadimek pertsona hark hemendik aurrera euskaraz egin diezaiola lor dezake. Gainera, dendan diren besteek ere ez dute ahaztuko, eta argi eta garbi ikusiko dute nola hausten den aurreiritzi bat.

Lehen esan dugun bezala, Khadimen ‘kanpotar itxura nabarmena’ abantaila handia izan liteke desabantaila izan beharrean. Hizkuntz portaera asertiboagoarekin Khadim eta bere familia askoz ere gusturago sentituko dira bizi diren tokian —nahiz eta hori ez izan euren lehentasunezko

helburuetariko bat—, eta nabarmen dinamizatu ditzakete eurekin harremanetan direnen hizkuntz ohiturak.

Laburbilduz: Khadimentzako errezeta

1. Hasi euskaraz zure harremanak. Behar izanez gero eta komeni izanez gero, nahi duzunean aldatu ahal izango duzu gaztelaniara.
2. Euskalduna dela argi igartzen zaion batek gaztelaniaz egiten dizunean, galdetu ea euskaraz ulertzen dizun.
3. Jarraitu inorekin hizkuntza dela-eta eztabaidatu barik. Norbaiti arraroa egiten bazaio zuk euskaraz egitea eta zergatik egiten duzun galdetzen badizu, erantzun irribarrez: «Zergatik ez?».

1. eranskina. Lluís Gon Sagaren hexalogoia (‘Catalá Sempre’ posta zerrendatik aterea)

Urteetan zehar, esperimentatuz eta ikasiz, jarrera, baliabide eta erantzun batzuek hobeto funtzionatzen dutela ikusi dut. Denborarekin, ikasketa horiek oinarrizko sei puntutan laburbildu ditut. Nire bide erakusleak dira sei arauok. Egunerokoan aplikatuta guztiz egingarria eta dibertigarria ere egiten dute beti guztiei katalanez jardutea.

1. Beti katalanez egiten diet guztiei, daukaten kolorea daukatela, erantzuten duten moduan erantzuten dutela. Soilik turistak salbuesten ditut eta bakarrik ezinbestekoa bada. Baina hemen bizi den edonorekin, iritsi berria izan arren, soilik katalanez egiten dut. Hasieratik horrelaxe egiten badut, zalantza barik, hizketaldi erdian hizkuntza aldatu barik, ez zaie arraroa iruditzen eta inoiz ez didate eskatzen aldatzeko. Hasieran

gaizki erreakzionatu ohi dutenek ere, denborarekin nik katalanez jarraitzen dudala ikusten dutenean, lehen egunean bezalaxe, samurtasunez eta errespetuz tratatzen naute. Horietako batzuek ahaleginak egiten dituzte nirekin katalanez egiteko ere. Bitxia, ezta?

2. Ez dut inoiz ezer esaten besteek hitz egiten duten hizkuntzari buruz. Besteek hitz egin dezatela nahi dutena, neure hizkuntza errespetatzen didaten bitartean. Ez ditut katalanez egin dezaten ere animatzen, eredugarri izaten naiz, besterik ez: ekintzek niregatik hitz egin dezaten uzten dut.
3. Orain arte katalanez egin ez duen bat katalanez hitz egitera ausartzen denean, normal hitz egiten jarraitzen dut, ezer ez balitz gertatuko bezala: ez naiz liluratzen eta ez diet lausengu faltsurik botatzen oso ondo hitz egiten dutela esaten. Ez dut aipatu ere egiten. Kontraesana dirudi, baina ikusi dut horixe dela erantzunik onena. Aldiz, lausenguka hasten banatzaie, katalan «bikain» egiten dutela esaten badiet edo euren aurrean beste norbaitekin horri buruz hitz egiten badut, horrek lotsarazi egiten ditu eta berehalaxe etsi eta gaztelaniara itzultzen dira. Lausenguka, katalanez egitea benetan niretzat ez dela inondik inora normala erakutsiko nuke eta nire ustez inork ez du besteren barregarri izaterik atsegin.
4. Ez naiz inoiz haserretzen, eta ez dut eztabaidatzen ea katalanez egiteko eskubiderik dudan ala ez, bizitzeko edo pribatutasunerako dudan eskubidea eztabaidatuko ez nukeen bezalaxe. Eskubideak ez dira eztabaidatzen, gauzatu egiten dira. Norbait ni probokatzen saiatzen bada komentario isekari edo iraingarriekin, ez diot kasurik ere egiten, entzun izan ez banu bezalaxe. Asko tematzen badira, oso irtenbide erabilgarri eta erraza hauxe da: «Zeuk badiozu...» esan eta gero isildu. Eztabaida hasi baino lehen bukatzen da. A, eta batez ere

ez dut sekula ere gaztelaniaz eztabaidatzen katalanez egiteko dudan eskubidea: hori egitea hasi baino lehen ere eztabaida galtzea litzateke...

5. Ez ditut ametitzen «interpretariak» eta bitartekariak: etorkin bati katalanez egiten diozula entzuten dutenean tartean sartu eta kritikatzten zaituzten horiek, edo zuk diozuna gaztelaniara itzultzen duten horiek, zu baino «irekiagoak eta solidarioagoak» direlako harro. Serio baina beti ere haserretu gabe jakinarazten diet nire burua defendatzeko gauza naizela eta ez dudala euren laguntzaren beharrik; edo nire solaskideak nahikoa adimentsua dirudiela, geure arteko elkarrizketa dela, ezer nahi badu jakinaraziko didala eta errespetu falta iruditzen zaidala ezindu gisa tratatzea berak egiten diharduen bezala.
6. Norbaitek katalanez ez duela ulertzen esaten didanean galdera simple batekin erantzuten diot, beti samurtasunez: «Zergatik?» Horrek babes guztiak hautsi ohi ditu: seguruenik lehen aldiz galdetuko zioten horrela, argi eta naturaltasun osoz. Eta ez, ez da haserretzen. Soilik haserretzen dira diskurtso antikatalan oso politizatuak dituztenak. Horrelakoeekin, albait arinen alde egiten saiatzen naiz eta kito. Duela gutxi iritsi direlako edo hizkuntzarekin harremanik izateko aukerarik izan ez dutelako katalanez ulertzen ez dutenek, berriz, naturaltasunez erantzun ohi dute. Eta orduan nire erantzuna, katalanez beti, hau izan ohi da: «lasai, joango zara gero eta gehiago ulertzen, oso erraza da», eta irribarre bat. Eta egiten ari nintzena egiteari jarraitzen diot –kafea eskatu edo dena delakoa– keinuen laguntzarekin. Eta behar beste errepikatzen dut, beti haserretu gabe: gehien-gehienek azkenean ulertu egiten didate edo ulertzen duen norbaiti deitzen diote. Hori gertatzen denean, inoiz ez dut ahazten etorri berriari samurtasunez agur esatea. Besterik ez bada ere, katalanezko lehen hitzak ikasiko ditu horrela: «adéu eta gràcies»!

8 Iparraldeko Itxasne

Baionan, 2015eko ekainaren 21ean. Itxasne pozez zorutzen zegoen. Euskal Filologiako azken maila ikasten ari zen Euskal Herriko Unibertsitatean eta etxera, Ainhoara, itzultzen ari zen uda pasatzera osaba-izeben espartin dendan lan eginez. Dena den, sentitzen zuen poza ez zen ikasturte amaieragatik. Horrek ere poza ematen zion, baina batez ere nekea. Gainera, oraindik ere ez zekien ziur azken azterketako emaitzetariko bat eta beraz, ez zekien ziur oraindik denak gainditu ote zituen.

Itxasne poz-pezik, emozioz betea eta zoriontsu zegoen duela gutxi bizi izandako festagatik. Herri Urrats festan ehunka lagun, kolore anitz eta itxaropen irribarreak. Ezagunak eta herrikoak, ezezagunak eta kanpotarrak, adin guztietako jendea... eta guztiak asmo berberarekin: Giza Eskubide Unibertsalen Gutunean jasotako oinarritzko eskubide bat aldarrikatzea, erabakitzeke eskubidea, hain zuzen ere. Horregatik, ezezagunek ez ziruditen hain ezezagun. Inoiz ikusi gabeko aurpegiaren aurrean ere sekulako hurbiltasun sententzioa zegoen. Aurrean zegoenak, han egotearen arrazoi hutsagatik bere bihotzaren zati bat erakusten zuen, alegia, nork bere etorkizuna idazteko guraria.

Halako batean, hiriko hormetan pankarta zabaltzen ari zela agure bati hitz egin zion Itxasnek:

- Que c'est joli tout ça!
- Bai, neska, bai. Inoiz ez dugu ahaztuko
- (Kaka zaharra, Itxasne!!)

Bat-batean astindu bat sentitu zuen kontzientzian. Biktima eta borrero aldi berean, errudun sentitu zen euskaldun bati frantsesez egin ziolako. A zer lotsa!

Handik egun batzuetara espartin dendan hasi zen lanean. Ainhoa oso herri turistikoa da. Goi denboraldian, alegia udan, egunero ehunka lagun joan ohi dira gutxi gorabehera Ainhoara. Horientzat dira kale nagusian dauden dendak. Itxasneren osaba-izeben denda eskuz egindako espartinez beteta zegoen, kolore eta takoi mota guztietakoak, zenbaki guztietakoak, gizonentzat zein emakume eta haurrentzakoak. Noski, ez ziren sorora lanera joateko modukoak. Prezioak, jatorrizko espartinekin alderatuta, izugarriak ziren. Hala eta guztiz ere, arrakastatsuak ziren sartzen ziren turisten artean souvenir berezi, chic eta originala (trés basque) nahi izaten baitzuten.

Itxasnek apur bat “mozorrotuta” joan behar izaten zuen dendan aritzeko. Inork ez zion halakorik egiteko esan, baina ohikoa baino janzkera neutroagoa beharko zuela imajinatzen zuen: mezu aldarrikatzailek gabeko elastikoak, praka bakero normalak edo gona ez oso deigarriak eta, jakina, espartinak ondo lotuta, bezeroen eredugarri. Dena den, jantzia ez zen izan Itxasnek bere kasa aldatzea erabaki zuen gauza bakarra. Erabaki zuen hizkuntzarekiko jarrera ere aldatu egingo zuela. Baionan izan zuen trauma eta gero bere buruari egin zion inoiz ez zela bere hizkuntzaz lotsatuko. Hegoaldean ikusi zituen kanpainetako leloa (lehen

hitza euskaraz) bereganatu egin zuen. Ausardia handia hartu zuen bere baitan horretarako.

Lehen egunean pertsiara ireki orduko paristar itxurako emakume bat ikusi zuen pasatzen (belaunak arteko soinekoa, papar hegal gurutzatuduna, ilea mototsean bildua eta esku poltsa besaurretik zintzilik). Emakumea dendara begira geratu zen eta gero sartu egin zen.

- Bon jo... Egun on! – agurtu zuen Itxasnek irribarrez.
- Buenos días. ¡Qué bonitas las alpargatas! Voy a echar un vistazo, vale?
- Sí, sí, claro, para eso están. Si necesita algo,...

Eta bere artean hausnartzeari ekin zion: zergatik kostatzen da horrenbeste? Zergatik erran dit nire buruak frantziarra zela? Ez banintz erne egon, lehen saiakeran huts egingo nuen. Baina, zer axola ote dio, ba?, finean, ez dit ezertarako ere balio izan euskaraz egiteak. Emakumeak ez dio jaramonik ere egin hizkuntzari. Tira, behintzat ez dit aurpegi arrarorik jarri...

Itxasnek hausnartzen jarraitu zuen tarte batean, bezeroa denda barruan alde batera eta bestera zebilen bitartean. Izaeraz erabakitzailea denez, berehalaxe ateratzen zituen ondorio batzuk. Lehena izan zen baliagarria izan zela lehen hitza euskaraz esatea, bere hizkuntza eta, hain zuzen ere, lurralde hartako berezko hizkuntza bistaratzea zekarrelako. Bigarren ondorioa zen erne egon behar zuela bere burua garbitzeko hitz egin aurretik lehen hitza baldintzatuko luketen estereotipoen menpe ez erortzeko. Horrela errazagoa izango zen hemendik aurrera. Gainera, “egun on” edo “arratsalde on” esanez gero, ez zeukan pentsatu beharrik frantsesez ala gaztelaniaz agurtu behar zuen eta horrek betidanik zorabiatu izan zuen mugan bizi izateagatik.

Beraz, Itxasne nahikoa gustura geratu zen bere buruari jarraibide argi eta zehatza eman ziolako. Gainera, aurreantzean horrek guztiak eskatzen zion energia aurreztuko zuen. Beraz, albiste onak ziren.

Laneguna amaitu zuenerako Itxasne leher eginda zegoen. Emozio asko bizi izan zuen. Ahalegin handiak egin zituen eta dezente ikasi zuen giza izaerari buruz.

Bitxia izan da nire agurrari jendeak nola erantzuten zion ikustea. Egia esan, prest nengoen erantzun txarrak jasotzeko, baina ez da horrelakorik egon. Bezero gehienek “Egun on” erantzuten zidaten, nahiz eta ondoren gaztelaniaz edo frantsesez jarraitu. Ez dakit zergatik nuen horrenbesteko beldurra. Zentzugabeko aurreiritzia izango zen. Pozten nau oker nengoela jakiteak.

Beste egun batean, bezero bat dendara sartu eta Itxasnek harrera gozoa egin zion. Euskaraz galdetu zion laguntzarik behar zuen. Bezeroak haserre erantzun zion:

- Est-ce que tu ne vois pas que je ne parle pas le basque?

Itxasne zur eta lur geratu zen erantzunarekin. Isil-isilik geratu zitzaion begira.

Egia esan, harrigarria egin zait eta hitzik egin ezinda geratu naiz. Hainbat erantzun nituen buruan: eta nola nahi duzu nik hori jakitea? Zer hizkuntza dakizun aurpegian markatuta geratzen al da, baztanga bezala?... Horregatik geratu nintzen isilik. Gero konturatu naiz zein erabilgarria den askotan isiltasuna.

Gizonak ez zuen erantzunik jaso eta horrek eragin zion egonezinaren ondorioz etenik gabe hitz egiteari ekin zion.

- Je veux dire... si je ne te comprends pas, il faudra que tu parles français, n'est-ce pas vraie? Autrement ce serait... de la mauvaise education!

Itxasnek isilik jarraitzen zuenez, gizona hizketan jarraitzera behartua sentitzen zen.

- Je ne dis pas que... Ce serait très bien de savoir le basque. Mes grand-parents en parlaient, et même mes parents! Ce sont eux qui ont décidé de me parler en français. Vous savez... à cette époque-là on ne regardait pas bien ceux qui parlaient le basque...

Diskurtsoak minutu batzuk gehiago iraun zituen. Harrokeriaz oldartzetik askoz ere jasangarriagoa zen autojustifikazio moduko batera igaro zen. Eta hori guztia Itxasnek ezer esan gabe. Edo, hain zuzen ere, isilik egon izanari esker!

Gatazka sortu beharrean aitorten moduko bat bilakatu zen egoera. Frantsesez, egia da, baina gizon hark ez zuen alde egin dendatik berriro ere bere hizkuntza inposatzea lortu zuen garaile baten modura. Aitzitik, euskaraz ez jakitea hutsune moduko bat izatearen kontzientziaz alde egin zuen.

Dendari lanetan jardun zuen bitartean askotariko egoerak bizi izan zituen Itxasnek. Asko atseginak egin zitzaizkion. Zenbaitek agurtu eta gero euskaraz jarraitu zioten normaltasunez. Beste batzuk biziki pozten ziren euskaraz hitz egiten entzutean. Baziren aurretik frantsesez edo gaztelaniaz hitz egin izan ziotenak eta orain, berriz, lasaitasunez euskaraz egin ziotenak ere.

Beste egun batean, interakzio oso interesgarria suertatu zen Itxasne souvenir denda batera sartu zenean lagun batentzako opari bila. Hain zuzen ere, izena eta errotulu batzuk euskaraz zituen denda bat aukeratu zuen.

- Egun on! – agurtu zuen Itxasnek
- Bon jour! – erantzun zion dendariak, inolako deserosotasunik adierazten ez zuen irribarre batekin.

Elkarrizketa frantsesez jarraitzekotan zegoela, berak egunero bizitzen zituen egoeren kontrakoa zela konturatu zen Itxasne. Oraingoan bera zen bezeroa eta osaba-izeben esanen arabera saltzaileak egokitu beharko zuen bezeroaren hizkuntzara. Dena den, ez zen hori gertatzen ari.

- Ez zara euskaraz mintzatzen?
- Non, français ou espagnol, si vous voulez... esan zuen saltzaileak, inolako enbarazurik erakutsi gabe eta irribarrea galdu gabe.
- Merci, alors, j'irais dans une autre boutique .Adio!

Deseroso sentitu zen hori egiten zuen bitartean, baina baita eszitatuta eta euforiko samar ere atetik irtetean. Ez zen hain zaila ere izan: bezeroa zara, zerbitzu bat eskatzen duzu, ez dizute zeuk nahi duzun eran ematen, eta beste hornitzaile bat hautatzen duzu. Biziki erraza! Bilatzen ari zaren hori ez balute bezalaxe izango litzateke; beste norabait alde egiten duzu horren bila eta kito.

Esperientzia haren ondorioz, euskarazko kartel batzuek jarri zituen dendan, osaba-izeben baimenarekin, nahiz eta hasieran ez zuten oso begi onez ere ikusten. Horrenbestez, herriko berezko hizkuntzaren presentzia areagotu egin zen espartin dendan. Turista batzuk, batez ere Hegoaldekoak, zuzenean euskaraz galdezka sartzen ziren dendara euskarazko kartelak ikusi eta gero. Bestalde, arrazoi komertzialak medio, frantsesez edo gaztelaniaz hitz egiten ere jarraitu zien hizkuntza horietan egiten zutenei (denda baten helburu nagusia saltzea baita). Dena den, lehen hitza euskaraz egiteak euskaldunekin kanpoko hizkuntza batean ez aritzeko balio izan dio gutxienez.

Itxasne dibanera

Itxasne sentibera da inguruan duen errealitatearekiko. Bere jaioterrian du bizilekua eta bertan sentitzen da gustura. Mugaldeko lurralde guztietan gertatzen denez, hizkuntzen arteko bizikidetzak ohikoa da. Kasu honetan nahiz eta euskara izan mugaz alde bietan dagoen hizkuntza bakarra, begi-bistakoa da euskara dela, hain zuzen ere, estatus baxuena duena. Gaztelania eta frantsesa elkarrekin bizi daitezke inolako arazorik gabe; inork ez dauka barkamena eskatu beharrik edo gaizki sentitu beharrik hizkuntza horietako bat soilik hitz egiteagatik. Egoera gatazkatsuek eragin ditzake euskarak, batez ere solaskideak hizkuntza nagusikeria handia duenean. Hizkuntza menderatzaileetako hiztunek maiz pentsatzen dute guztiek beren hizkuntzan egin behar dietela, eta iraingarria iruditzen zaie batez ere bestearen hizkuntza ez bada hizkuntza nagusien taldekoa.

Hizkuntz mendekotasuna edo sumisioa oso modu eraginkorrean ikasten da. Hainbat bide daude mendekotasuna ikasteko: imitazioa (bestek egiten duena egiten duzu zeuk ere), behaketa (frantsesetik edo gaztelaniatik inoiz ez dela hizkuntza arazorik sortzen ikusten duzu), eta norberaren esperientziak (ondorioak zuzen-zuzenean pairatzen dituzu). Ondorioz, hizkuntza gutxituetako hiztunek bere hizkuntza dakitela ezkututzen ikasten dute eta jendaurrean frantsesdun edo gaztelaniadun gisa aurkezten dute euren burua. Hizkuntzari buruzko kontzientzia hartzea, esaterako Itxasneren kasuan, mendekotasunaren kateetatik askatzeko lehen urratsa besterik ez da. Ezinbesteko urratsa, baina ez da aski.

Ohitura guzti-guztiak zailak dira aldatzen. Dena den, zaila izateak ez du esan nahi ezinezkoa denik. Beste hainbat gauza bezalaxe, ohiturak aldatu egin daitezke beste ohitura batzuk hartzen baditugu horien ordez. Portaera bat zenbat

eta gehiagotan praktikatu, orduan eta gehiago aurreratuko dugu ohitura berria ezartzeko bidean. Itxasnek, hasteko, lehen hitzari buruzko ohitura aldatu du, eta orain lehen hitza euskaraz egiten du. Gauza txikia dirudi, baina keinu txiki honekin euskaldun asko “bistaratzen” laguntzen du, izan ere, bestela gatzelaniadun edo frantsesdun gisa aurkeztuko zuten euren burua euskaldun horiek. Eta kasu honetan oso eraginkorra egin zaio jarraibidea: “Lehen hitza euskaraz”. Hain zuzen ere, argia eta erraza da, eta energia asko aurrezten laguntzen dio. Bere baitan ebidentzia bilaketa nekagarri bati ekin beharrean (itxura, arropa, inguruko jendea, testuingurua) solaskidea euskalduna dela eta euskaraz hitz egitea nahi duela jakiteko (eta hori arrazoibide logikoaren bidez lortzea ia ezinezkoa da), hauxe da egin behar duen bakarra:

A gertatzen bada, orduan, B

Hitz egitea egokitzen bada, orduan euskaraz egin.

Aldaketa energetiko honekin Itxasnek lortzen duen aldaketa izugarria da. Izan ere, automatikoki ikusten du euskaraz hitz egiteagatik ondorio negatiboak izango dituela iragartzen dioten mamuak desagertu egiten direla. Esperientziak aurreiritzia deuseztatu egiten dio.

Egia esan, gatazkaren bat ere “bistara” dezake, esate baterako, ikusi orduko frantsesdun gisa identifikatzea nahi zuen gizon haren kasua. Horrelakoetan, dendaren jabeek Itxasneri emandako aginduek konpontzen dute egoera: “bezeroarenera egokitu behar duzu”. Beraz, ez da oso portaera arriskutsua. Norik bere burua aurkezteko modu zintzoa da eta abantaila bat du, euskaldunekiko euskaraz egiteko aukerak zabaltzen baititu.

Itxasnerentzako autolaguntza fitxa

Arrakasten egunkaria, beste atal batean ere ikusi dugunez, oso tresna erabilgarria izan liteke Itxasnerentzat. Bizi izan dituen egoerak eta nola bukatu diren idaztea oso modu eraginkorra da aurrerapena elikatzeko. Horrela, adibidez, ikusi ahal izango du lehen hitza euskaraz egiten duen gehiengotan ez dela ezer negatiborik gertatzen. Ondorengo solasa agian euskaraz izango da osorik edo agian ez, baina oso gutxitan sortzen dira egoera gatazkatsuak. Gainera, gutxitan sortzen diren gatazkak nola konpontzen diren jasotzeak ere oso informazio garrantzitsua ematen dute hurrengo batean portaera hobetu ahal izateko.

Arrakasten egunkaria Itxasneren helbururik garrantzitsuena lortzeko lagungarri izan liteke, hain zuzen ere, bere hizkuntz ohiturak aldatzeko. Esan dugun bezala, ohitura bat beste baten ordezkari har daiteke. Kasu honetan helburua hau da: lehen hitza erdaraz egin ordezkari bere hizkuntzan egitea, euskaraz, alegia.

Isilik geratu denean horrek izan duen eragina idaztea, esate baterako, oso baliabide erabilgarria ikasteko lagungarri izango zaio. Maiz, hizkuntza gutxituen hiztunek egoerak puzteko edo exajeratzeko joera izan ohi dute, hain zuzen ere, egoerari buruzko kontzientzia dutelako eta gaiari buruz asko hausnartu dutelako. Argudioen bidez aurre egin nahi diete hizkuntz nagusikeriari eta antzeko jarrerari, nahiz eta benetan topikoetan eta ikasitako portaeretan oinarritzen diren jarrera horiek eta ez argudio sendoetan. Errespetuz isilik geratzea modu oso erraza eta dotorea izan liteke sarritan hizkuntza bat hitz egitea bezain gauza natural baten ondorioz sortutako gatazkak konpontzeko. Finean, guztiok hitz egiten dugu hizkuntzaren bat, ez?

Ohiturak aldatzeko orduan oso etsai indartsua da maximalismoa. Gauza bat inoiz egin ez duen norbaitek arrakastatsu izateko bere buruari %100etan egitea eskatzen badio, ia ziur porroterako bidean doala esan dezakegu. Aldiz, Itxasnek bere burua zuzendu eta “Bon jour” esan beharrean “Egun on” esaten duenean, aurrerapauso bat egiten ari da. Eta euskaraz egiten duen bakoitzean ordu arte erdaraz mintzatzen zen norbaitekin, oso urrats handia egiten du bere helbururantz. Horri Mailakako ikasketa deritzo. Ez luke gehiegi ere arduratu behar akatsengatik. Automatismoak indartsuak dira eta ulergarria da egiten ari garenari arreta handiegirik ere jartzen ez diogunean automatismook gailentzea. Ez da ezer gertatzen berriro ere hizkuntz sumisioan erortzen bada. Konturatzen denean akatsa zuzendu besterik ez du egin behar. Gainera, egoera nolakoa izan den idatzi egin behar du eta horrela hurrengo baterako prestatuko du bere burua akatsik ez errepikatzeko. Hala, poliki-poliki euskaraz egitea posible den egoera guztiak ezagutzen joango da. Batez ere hasieran, gure hizkuntz ohiturak aldatzeko erabakia hartzen dugunean, hobetzeko aukera oso handia izaten da eta arrakasta ziur lortuko dugu... baldin eta ez bagara maximalistak, oro har kalterako izan ohi baita maximalismoa.

Funtsezkoa da Itxasnek hizkuntz asertibotasunerantz hartu duen bidea hainbat erritmotako aurrerabidetzat hartzea. Gaur atzo baino urrunxego iristen bada, nahiz eta apur bat besterik ez izan, arrakasten egunkarian jaso beharko luke helburutik hurbilago dagoela. Azkenean, lehen hitza euskaraz egitea keinu automatikoa izango da, inolako hausnarketarik gabe egingo duena. Hori lortzen duenean, beste helburu bat jartzeko ordua izango da, aurrekoa baino handixeagoa. Esaera zaharrak dioen bezala, “poliki-poliki, urrutira!”.

8 Hizkuntza asertibitatea hobetzeko gida laburra

Honako hau gida eskematiko bat da, euskaraz gehiago bizi nahi dutenentzat eta edonolako solaskideekin hizkuntzari eusterakoan erosoago sentitu nahi duten guztientzat erabilgarria izateko helburuarekin. Badakigu zaila dela edozeinentzat eta noiznahi erabilgarriak izango diren jarraibideak eskaintzea. Beraz, bakoitzaren esku utziko dugu bederlatzi gomendio hauek egokitu eta aldatzea. Gainera, beste lau babes teknika ere emango ditugu.

Hasteko, ezezagunak edo hurbilekoak ez direnekiko harremanak aztertuko ditugu.

1. Identifikatu zein mailatan aldatu ohi duzun gaztelaniara ezezagunekin hitz egiten duzunean:
 - a) Itxuragatik: euskaldun itxurarik ez daukala iruditzen bazait.
 - b) Esan diodana ez duela ulertu esaten edo ikusarazten badit
 - c) Lehen hitza gaztelaniaz egiten badit
 - d) Euskaraz ez duela hitz egiten esaten badit
 - e) Euskaraz ez duela ulertzen esaten badit
 - f) Gaztelaniaz hitz egiteko eskatzen badit

2. Baliagarria da kontuan izatea zure solaskideak zeuk besteko gaitasuna duela argi eta garbi adierazteko zer nahi duen. Beraz, saia zaitetz euskarari eusten harik eta solaskideak ez duela ulertzen esplizituki esan arte, besterik ez bada ere. Euskaraz ez duela hitz egiten esaten badizu, agian horixe da esan nahi duena, eta ez zuk berari euskaraz egiterik ez duela nahi.
3. Pazientzia izan! Agian, hasieran deseroso sentituko zara. Ohitura bat da gaztelaniara salto egiteko kontu hori, eta ohiturak aldatzea kosta egiten da pixka bat. Denbora gutxi barru erosoago sentituko zara elkarrizketa elebidunekin. Eta agian hasieratik harrigarria egingo zaizu zenbat jende den gauza euskaraz hitz egin edo ulertzeko. Hasi orduko gaztelaniara aldatu ohi zenuenean aurkitzen zenituenak baino askoz ere gehiago.

Beste sektore garrantzitsu bat da dagoeneko nolabaiteko harremanen bat dugun jendea (ezagunak, auzokoak, lankideak, adiskideak, senideak, bikotekideak...), orain arte harreman hori gaztelaniaz izan denean.

4. Pentsatu horietako zenbatekin hitz egin ahal izango zenukeen euskaraz, komunikazioari kalterik egin gabe, euskaraz hitz egin dezaketelako edo zailtasun barik ulertzeko gai direlako.
5. Erabaki horietako zeinekin nahi duzun aldatzea eta euskaraz komunikatzera igarotzea. Orduan:
 - a) Baloratu zein den zailtasun maila zeuretzat horietako bakoitzarekin hizkuntzaz aldatzeko (0= zailtasunik ez; 10= ezinezkoa).
 - b) Ordenatu zailtasun txikienetik handienara
 - c) Komentatu aldaketa egiteko errazen iruditu zaizun pertsonarekin eta jarraitu —banan-banan— zerrendako hurrengokoekin.

Hizkuntzaz aldatzeko gomendioak:

- a) Aukeratu unea eta aukera (eguna, zein baldintzatan) hautatu duzun pertsonari azaltzeko.
- b) Prestatu zure argudioa, betiere guztiz subjektiboak diren arrazoietan oinarrituta (gustatuko litzaidake, nahiago nuke, hobeto sentituko nintzateke, ilusioa egingo lidake...).
- c) Azaltzerakoan, elementu positiboak nabarmendu. Adibidez: «Gehien errespetatzen ditudanekin eta gehien maite ditudanekin euskaraz egiteko ohitura daukat. Zeurekin ere halaxe egin nahi nuke».
- d) Galdetu zer iruditzen zaion eta entzun bere erantzuna. Ez da ultimum bat, komunikazioa hobetzeko saiakera baizik.
- e) Prestatu zeure erantzunak, agian nolabaiteko erresistentzia aurkituko duzu eta. Finean, ohiturak aldatzea kosta egiten da. Aldatzearen aurka gehienetan erabiltzen den argudioetariko bat deserosotasunarena izan ohi da. Imajinatu lankide batekin aldatu nahi duzula hizkuntzaz. Hau izan liteke elkarrizketa gutxi gorabehera:

—Baina oso deseroso sentituko gara, ez? Beti gaztelaniaz egin dugu elkarrekin.

—Agian deseroso sentituko gara hasieran. Ondo baderitzozu, saiatu egin gaitezke eta ezinezkoa egiten bazaigu deserosoegia delako, gaztelaniara itzultzeko aukera izango dugu.

Beste argumentu hau ere erabili ahal duzu solaskideak sortuko den deserosotasuna aipatzen badizu:

—Beno, zu deseroso sentitzen bazara, gaztelaniaz egin diezadakezu berriro ere nahi duzun guztian. Nik uste dut laster erosoago sentituko naizela neu ere zurekin. Beraz, ez bazaizu axola, nik euskaraz jarraituko dut eta

zuk nahi duzun moduan erantzun. Ondo iruditzen zaizu?

Badago beste alderdi garrantzitsu bat. Hain zuzen ere, euskaraz egiteagatik edo egin nahi izateagatik kritikak, deskalifikazioak edo erasoak jasotzen ditugunekoak dira.

Kasu horietan, ezinbestekoa da argi izatea gure helburua ez dela erasotzailea konbentzitzea edo gure ikuspuntuak, iritziak edo bizitza ikusteko moduak bere egin ditzan lortzea. Gure ustez, gure helburua izan behar da al bait arinen neutralizatzea eraso, ahalegin txikienarekin eta ahalik eta inplikazio emozional txikienarekin. Helburu hori lortzeko oso erabilgarriak dira kritikatik babesteko teknikak. Jarraian laburbilduko ditugu teknikok gomendio gisa eta elkarrizketa adibide batzuekin batera.

6. Ez itzuli eraso.

Hau guztiz okerreko adibide bat izango litzateke:

—Erradikala zara, gero! Beti euskaraz hitz egiten!

—Zu bai erradikala. Hogei urte badira Euskal Herrian bizi zarela eta oraindik ez dizut entzun hitz erdirik ere gartzelaniaz ez bada!

Horrek eskalada besterik ez du eragingo, egoera azkar bukatzea galaraziko du eta kostu emozionala eragingo du, eta hori saihestu egin nahi dugu, lehen esan dugun bezala.

7. Ez justifikatu zure portaera.

—Aizu! Bizi garen tokiko hizkuntza da, ezta?

Justifikatzen zarenean, besteak zure portaera kuestiona dezan legitimatzen ari zara eta, horrenbestez, kritikatzeko edo azalpenak eskatzen jarrai dezan gonbita egiten ari zaitzaizkio.

8. Saihestu ideologian, historian edo eskubideetan oinarritutako eztabaidak.

—Badira mendeak gure herriak euskaraz egiten duela eta gainera, Estatutuak horretarako eskubidea aitortzen digu!

Oscar Wildek zioen bezala «Arrazoia da mundu honetan ugarien dagoen substantzia: guztiek dute guztia, denbora guztian». Hori kontuan izanda, eztabaida horrela planteatzea zeharo aurka dago lehenbailehen eta gutxieneko kostuarekin bukatzeko dugun helburuarekin.

Xehetasun garrantzitsua: batzuk sartu egiten dira horrelako eztabaidetan, eta gainera gaztelaniaz egiten dute. Horrela egitea hasi aurretik galtzea da. Ezpainetan zigarroa piztuta duen batek beste inork ez erretzea nahi izatearen parekoa da. Berdin zaio zein onak diren bere argudioak; bere portaerak alde aurretik indargabetu ditu.

Orduan, zer egin dezakegu eraso egiten digutenean?

Kritikatik babesteko teknika batzuk azalduko ditugu jarraian. Teknikok erabilgarriak izan litezke euskaraz hitz egiteagatik kritikak edo erasoak jasotzen ditugunean sortzen diren egoera batzuk konpontzeko. Horrelako erasoen adibideak hauek izan litezke:

—Erradikala zara, beti euskaraz egiten duzu.

—Nola izan zaitezke hain edukazio txarrekoa? ez duzu ikusten kanpotarra dela?

—Denok horrela egingo bagenu, ez genuke elkar ulertuko munduan!

—Euskararekiko obsesioa berriro ere!

1. Behelainogunea

Horrelako erasoei ahalik eta tonurik neutro eta lasaienean honelako erantzunak emango dizkiegu besterik gabe:

—Agian

Edo bestela:

—Baliteke

Agian gutxiegi irudituko zaizue hain eraso gogorrek desaktibatzeko. Egin ezazue proba. Ahozko erasoak botatzen duenak intentsitate eta inplikazio emozional antzekoa duen erantzuna espero du. Jasotzen duena guztiz desberdina denean, erasoarekin jarraitzeko duen probabilitatea zeharo murriztuta geratzen da.

2. Disko akastuna

Teknika hori aplikatu nahi badugu, honelako erantzunak eman ditzakegu:

—Ulertzen dut zure argumentua... baina euskaraz jarraituko dut

Edo bestela:

—Ikusten dut, bai, zer esan nahi duzun... baina euskaraz jarraituko dut

Behar adina aldiz egingo dugu, besteak bere argudioekin jarraitzen duen bitartean. Abantaila da guk ez daukagula pentsatu beharrik. Nahikoa dugu geure leloa errepikatzearekin. Solaskideak, berriz, bere argumentuak garatu behar ditu (eta horrek nekatu egingo du) edo eztabaidatzeari utzi beharko dio (eta horixe da gure helburua).

3. Operazionalizazioa

Izen zaila badu ere, teknika hau oso erraza da. Kritikan edo erasoan ageri den hitzei buruzko zehaztasunak eskatuko ditugu behin eta berriz. Adibidez, horrelakoren bat esaten badigute:

—Berriro ere euskararen obsesioa!

‘Obsesio’ hitza aukeratu eta hau besterik ez dugu esan behar:

—Eta zer da zuretzat zehatz-mehatz ‘obsesioa’?

Agian solaskidea —hiztegi bizidun bihurtuta— azalpena ematen saiatuko da. Eman dezagun horrela egiten duela:

—Bada, obsesioa da egun guztia gai berarekin jira eta buelta ibiltzea!

—Eta zer da zuretzat zehatz-mehatz ‘jira eta buelta ibiltzea’?

Eta horrela etengabe. Benetako galdera hauxe da: zenbat aldiz iritsiko da hiztegi izatera jolastera partida utzi baino lehen?

4. Kritika indartzea

Gauzatzeko oso estrategia erraza da. Arrazoi eman besterik ez dugu egin behar (bai, zoroiei bezala, esan ohi den moduan)

—Arrazoi guztia duzu esaten diharduzun horretan.

—Zurekin erabat ados nago.

Gero, esaten ari ginenarekin jarraituko dugu, besteak hitz egin aurretik bezalaxe.

Teknika honen aldaera interesgarri bat da gainexajerazioarena, 5. atalean ikusi duguna, alegia. Eraso azpimarratzean datza, tonua oraindik ere gehiago indartuz.

—Erradikala zara, gero, euskararen kontuarekin!

—Erradikala bakarrik? Nik uste dut ‘lehen mailako etsai publikoa’ edo ‘serieko hiltzailea’ askoz ere esamolde egokiagoak izango liratekeela ni deskribatzeko.

Berriro ere, egin zaigun deskalifikazioaren aurka jarri beharrean, oraindik ere gehiago azpimarratzen dugu. Horrenbestez, bestea jarraitzeko aukerarik gabe utziko du eta —guk nahi dugun bezala— berehalaxe bukatuko da elkarrizketa.

Bukatu baino lehen, argi utzi nahi dugu horiek guztiak erasoak neutralizatzeko teknikak direla, eta ez direla erasotzailak neutralizatzeko. Deskribatutako teknikek ez dute garaizten inondik inora elkarrizketak bide onargarriagoetatik jarrai dezan. Erasoak edo irainak deuseztatzea besterik ez dute helburu. Irainak albo batera uzten baditu solaskideak, eta bere argumentuak modu eraikitzailean azaltzen baditu, elkarrizketa erraztuz, orduan berriro ere berarekin hitz egin nahi dugula erabaki dezakegu. Dena den, horrelakoetan ere oraindik balio dute lehen aipatu ditugun oinarriek: gure jokabidea ez justifikatzea eta dauden argumenturik sendoenak soilik erabiltzea, alegia, oso-osorik subjektiboak direnak, adibidez, «gustatzen zaidalako» edo «erosoagoa egiten zaidalako», edo besterik gabe bueltarik ez duen «nahi dudalako».

Eskertza

Eskerrak eman nahi dizkizuegu liburu hau posible egin duzuen guztioi: alde batetik, liburuaren egileak diren Ferran Suay-ri eta Gemma Sanginés; eta, bestetik, liburu hau euskarara zein Euskal Herriko egoeretara ekartzea posible egin duzueni, Imanol Larreari, Juanjo Ruizi eta urte haue-tan gurekin herri askotako tailerretan parte hartu duzuen herritarroi zuen bizipenak eta bizipozak partekatzeagatik.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, Ferran Suay eta Gemma Sanginés, duela hamar bat urte TELPa Euskal Herrian zabaltzeko Emunen jarritako konfiantzagatik, erakutsitako guztiagatik eta liburu honen egokitzapenean zuen laguntza emateagatik.

Imanol Larreari Katalunian harremanak egiten laguntzeagatik, ate ugari zabaldu dizkigulako, eta hango esperientzietatik ikasteko eta hobetzeko aukera paregabea izan dugulako. Ahaztu gabe, proiektu honetan egindako itzulpenagatik eta ekarpenengatik.

Juanjo Ruizi, liburuaren egokitzapenagatik, TELP saioak dinamizatzen jasotako ezagutza eta esperientzia liburu honetan islatzeagatik. Eskerrak, halaber, hizkuntza portaeren aldetan eragiteko berritzen eta saioak dinamizatzen ari den lantaldeari, beraien gogo, prestasun eta ilusiorik gabe hau ez litzatekeelako posible izango.

Eskerrik asko Kike Amonarrizi libururako idatzi dizkigun hitzengatik eta TELPa zabaltzen lagundu izanagatik. Azken finean, gure bidaide izateagatik.

Amaitzeko, eskerrik asko, zuei, gutxi dakizuenei, asko dakizuenei, gehiago erabili nahi duzueni, euskararako jauzia egin duzueni, euskaraz lan egiten duzueni eta egin nahi

duzuenei, ausardia erakusten duzuenei, ezinak konpartitzen dituzuenei, eragin nahi duzuenei eta eragile zaretenei... Eskerrik asko, hizkuntza portaera aldaketan egindako gogoetak konpartitzeagatik eta, nola ez, gurekin hausnartu nahi izanagatik. Asko ikasi dugu zuekin eta zuengandik. Eta ikasten jarraitu nahi dugu.